



GELA BAT
NORBERARENA
~
VIRGINIA
WOOLF

GELA BAT
NORBERARENA
~
VIRGINIA
WOOLF

ARGITALPENA

Gela bat norberarena

Jatorrizko liburua: *A Room of One's Own*, Virginia Woolf

ITZULPENA

Maria Colera Intxausti

ZUZENKETA

Juan Garzia

DISEINU GRAFIKOA

Maite Zabaleta

ARGITARATZAILEA

consonni

Proyectos bilduma

www.consonni.org

INPRIMATZEA

Ecolograf

Bilbo, 2013ko maiatza

ISBN 978-84-939858-1-3

LEGE GORDAILUA BI-827-2013

Copyright © The Estate of Virginia Woolf, 1929

© Itzulpenarena: Maria Colera Intxausti

LIBURU HAU POSIBLE IZAN DA PERSONA, ELKARTE ETA
LIBURU-DENDA HAUEI ESKER:

Marie-Jeanne Oxoteguy, Amelie Darraidou, Malou eta Dominique Uhalde, Marielle Uhalde, Mirentxu Larrañaga Suekun , LA TALLER, Tania Arriaga Azkarate, Julia Morandeira Arrizabalaga, Amaia Arriaga Azkarate, Allende Arnaiz, Miren Jaio, Aitziber Goitia, Itziar Diez de Ultzurrun Sagalà, Jule Goikoetxea, Maite Larrauri, Karmele Fernández Boga, Arantza San Sebastián, Oihana Etxebarrieta Legrand, Miguel Mateo Ruiz, Elena Laka, SKOLASTIKA servicios literarios, Kukusoak, Santi Pérez Isasi, Xabier Landabidea Urresti, Raúl Ciriza Barea, Axi, Koldo Telleria Andueza, HK, Goizal, June Fernández, Centro de Documentación de Mujeres "Maite Albiz" Emakumeen Dokumentazio Zentroa, Mikel Martínez, Fernando Pérez, Idoia Larizgoitia, Zuriñe Pérez Arroniz, Arabako Emakumeen Asanblada, Arrate Arias López de Lacalle, Leioako Udal Liburutegia, Aiora Kintana Goiriena, Harriet Brown, Genma Sánchez Mugarra, ANTI-Liburudenda, Ángel M. Etxeberria, Pilar Bonet, Oihane Ruiz eta JoseDavid Carracedo, Aimar Arriola, Sorne Matxiñena, María José Belbel Bullejos, Miguel Ángel Gañeca, Aitziber Eguskiza, Kaxilda liburudenda, Iratxe Jaio, María Pérez Bernedo, Maria Ptqk, Mikel Lizarralde, Nadja Enragée, La Hormiga Atómica Liburuak, Arantza Ezpeleta, Unai Lauzirika, Espacio Zuloa, Izaskun Álvarez-Gainza, Lohitzune Rodríguez Aurrekoetxea, Idoia Azkorra, Zuriñe Burgoa Comunión, Araceli de la Horra, Paule eta Nikole, Ricardo_AMASTE, Dora Otegui, Munts Brunet Navarro, Felipe Ayerbe, MAD, Marc Brunet Navarro, Nerea Ayerbe Elola, Lluís Brunet, María Navarro Francés, Eva Bai, Xara Sacchi, Iratxe Fresneda, Jainestxu, Iván Gómez, María Fernanda Antxoriz, Leire Narbaiza Arizmendi, Isa Castillo Etxano, Ibabe Goikoetxea Anitua, María Mur Dean, Ixiar Rozas Elizalde, María Salazar + Stephanie Barth, Jone Elola, Jemima Cano, Oihana Garro, Iratxe Retolaza, Nuria Cortés Romero, Alex Reynolds, Jaime Cuenca, Susana Carramiñana, Itziar Zubieta, Martí Manen, Amaia Albeniz Goikoetxea, Toñi Willen Ruiz, Haizea Barcenilla eta Arsenio Iglesias Pazos, Maitane Elosegi Mateo, Nora Alejos Azkona, Miren Guillo Arakistain, Alba Colomo, Maia, Alba García, marmot, Mertxe Tranche, 4ratxu, Marga Ruiz San Millán , Jesús Arpal Moya, EHGAM, Laura Martínez, Itu Medeak, Joseba Ortuondo Adarraga, Jone Novo, Isabel Ortega, Saioa Olmo Alonso, M^a Luisa Amigo, Eduardo García Nieto, Sultana's Dream, Joseba Gorordo, Ibon, Kontxa Elorza, Gabriela Huk, Bego Manterola, Isabel Artieta, Amaia Álvarez Uria.

VIRGINIA WOOLF Londresen jaio zen 1882an. Arte, literatura eta politika munduko pertsonaia ezagunak ibiltzen ziren Woolfen gurasoengan, eta haien eragina jaso zuen txikitandik. 1905ean Londresko Bloomsbury auzora joan zen bizitzera anai-arrebekin, eta intelektual eta artista ezagunen topaleku bihurtu zen haien etxea: hantxe elkartzen ziren E. M. Forster idazlea, J. M. Keynes ekonomialaria eta Bertrand Russell eta Ludwig Wittgenstein filosofoak, besteak beste.

1917an Hogarth Press argitaletxea sortu zuen Leonard Woolf senarrarekin batera. Gerra arteko ingeles literaturan garrantzi handia izan zuen Woolf tarren argitaletxeak. Katherine Mansfield eta T. S. Eliot idazle artean ezezagunen lanak argitaratu zituzten, esate baterako.

Woolfek bere hasierako lanetatik erakutsi zuen esperimentazio narratiborako interesa, baina *Mrs Dalloway* (1925) eta *Farorantz* (1927) argitaratu arte ez zuen kritikaren onespenu jaso. Gero etorriko ziren *Orlando: A biography* (1928), *The waves* (1931), *The years* (1937) eta *Between the Acts* (1941).

1941eko martxoaren 28an hil zen, bere burua Ouse ibaira botata.

BIZITZA BAT NORBERARENA

Adelina Moya Valgañón

3

GELA BAT NORBERARENA (KONEKTATUA)

Remedios Zafra

9

GELA BAT NORBERARENA

Virginia Woolf

17

BIZITZA BAT NORBERARENA

Adelina Moya Valgañón

«Hona hemen nire proposamena: hona etorri aurreko bi egunen kontakizuna aurkeztuko dizuet, eleberrigilearen libertate eta lizentzia guztiez baliatuz, eta azalduko dizuet nola, bizkar gainean jarri didazuen gaiaren zamak abailduta, neure eguneroko bizitzan txertatzeraino ibili dudan gai hori gogoan. Esan gabe doa oraintxe azalduko dizuedana ez dela existitzen; Oxbridge asmakizuna da; eta berdin Fernham. “Ni”, berriz, benetako izaerarik ez duen norbait izendatzeko termino egokia besterik ez da. Gezurrak isuriko dira nire ezpainenatik, eta tarteka sortuko da noski egiaren bat, haiekin nahastuta; zuei dagokizue egia horiek aurkitzea eta gortzekorik ezer ba ote duten erabakitzea» (19. or.).

Virginia Woolfen *Gela bat norberarena* 1985ean irakurri nuen lehenbiziko aldiz, emakumezko artistei buruzko hitzaldi bat prestatzeko. Ordurako berrogeita hamarren bat urte izanagatik, *Gela bat norberarena* izan zen kontsultatu ahal izan nuen testurik interesgarriena. Joan dira beste hogeita hamar bat urte, eta etengabe aurkitzen dut kontu miresgarririk liburu hartan, klasikoekin gertatu ohi den moduan: testuaren ironia gordea, nola dabilen jauzika fikzioaren eta errealitatearen artean, nola eskatzen duen egundoko ahalegin bat, gozamina eskaintzearekin bat... Emakume eta idazle izateko ezintasunari buruzko arrazoi ugariak aurkezten dizkigun Woolfek, egun emakume eta idazle izateko dauden aukeren ondoan. Eta gogoeta hori arte-lan bikaintzat dudan testu bat osatuz egiten du, gainera.

1929an argitara eman zuenean, idazleak, Ingalaterra viktoriarreko intelektual eta artista familia burges bateko alabak, eleberri

dezente zituen idatziak, hala nola *The Voyage Out*, *Farorantz* eta *Orlando: A Biography*. Eleberrigile arrakastatsua eta idazlea gazte-gaztetandik, etsigarri zitzaion, bere nebek ez bezala, ezin ikasi izatea Cambridgeko Unibertsitatean (etxean egin zituen ikasketak). Horrenbestez, Woolfen hots handiko esaldietako batzuk —liburutegi «sakratu» bati zuzendutako madarikazioa, edota bere fikzioko «niak» bere gogoaren askatasuna aldarrikatzen dueneko— guztiz katartikoak zaizkigu. Aldi berean, baina, intelektual den ororenganako iseka etengabe eta arras osasungarri bat sumatzen dugu testu osoan zehar.

Gela bat norberarenak teoria kritiko feminista guztiz garatu baten oinarritzko elementuak aurkezten dizkigu, Michèle Barreten esanetan (*Las mujeres y la literatura*, 1981). Emakumeen eta literaturaren arteko erlazioa aztertzea baita Woolfen xedea, William Shakespeareren talentua sortu zen testuinguru patriarkal ingelesaren baitan, eta erakustea Shakespeareren garaiko emakumezko idazleek izan ez zituzten aukera haietako asko eta asko hortxe daudela, geroaldi baten zain, eta onduz joan direla XVIII. mendez geroztik, harik eta XIX. mendean, Jane Austenek eta Brontë ahizpek eleberriaren genero gazteago eta moldagarri hau esku artean hartzean, fruituak ematen hasi diren arte. Ustezko idazle garaikide batenganaino iristen gara horrela: Mary Carmichaelenganaino. Woolfek eskoziar balada batetik-edo atera zituen fikziozko lau emakume haietako bat zen Mary, eta Woolfen beraren *alter egoa* zela esango nuke nik.

Bestalde, *Gela bat norberarenan* Woolfen ahotsa entzuten dugu, bere tresnak eta bitartekoak (gela bat sarrailaduna eta autonomia ekonomikoa) eraskustearekin batera, bere entzuleak animatzen dituelarik beren talentuak garatzera; ez eleberririk eta poesia idazteko soilik, baizik eta baita emakumeei

buruz ikertzeko, dirua irabazteko, beren bizitza bizitzeko edota emakumeen botoa, hezkuntza, lanbide bat izateko aukera eta halako lorpen errotuak aprobetxatzeko ere, aukera horiek guztiak ukatuak baitzituzten XIX. mende aurretik.

Agerikoa da, bestalde, liburu honek arrasto sakona utzi duela ondorengo beste lan eta bizitza batzuetan, eta ekarpen handia egin diela bai ikerketa feministari bai sorkuntzari, literaturan nahiz arte bisualetan. Hala, arte feministaren historialari askok —Ann Sutherland Harrisek eta Linda Nochlinek (*Mujeres artistas: 1550-1950*), Whitney Chadwickek (*Mujer, arte y sociedad*) eta Frances Borzellok (*Mujeres frente al espejo: una historia del autorretrato femenino*), besteak beste— analisirako jarraibide batzuk eta beren lanak egiteko eredu bat aurkitu dute testu honetan. Multzo horretan sar dezakegu Lucy Lippard bera ere, eta Lippardek Eva Hesse eta Louise Bourgeois artisten osagai «arraroa»ren alde egin zuen apustu goiztiarra, mundu femeninoko eginkizunak iradokitzen dituzten eskulturekin. Eta berdin Linda Nochlinen «Zergatik ez da izan emakumezko artista gailenik?» artikulu aitzindaria.

Méret Oppenheim eta Cindy Sherman artistek eta Simone de Beauvoir idazleak adibidez, ekarpen bikainak egindakoak guztiak ere, bat datoz Woolfekin, gure idazleak egindako interpretazio askotan: idazkera femeninoz —propioz, alegia— idazteak suposatzen zuenari dagokionez (emakume dela ahaztu duen emakume batek bezala idazten zuen Mary Carmichael), tradiziorik ezaren arazoari dagokionez, edota tradizio maskulinoak guztiz eta erabat taxutu gabeko bitartekoei (argazkigintzari) heltzeari dagokionez, esate baterako. Ildo horretan, bat nator Francisco Fusterren hitz hauekin (2012): «feminismoak inspirazio-iturri bat eta lanketa teorikorako iturri bat aurkitu ditu bere baitan».

Gauza jakina denez, Woolfek «Emakumeak eta literatura» izeneko hitzaldi bana eman zuen Cambridgeko emakumeentzako bi kolegiotan —Newnhamen eta Girtoneko Odaan—, eta handik sortu zen liburu hau. Virginia Woolfek ez zuen izan Cambridge unibertsitate-ikasketak egiterik, baina Bloomsbury Taldeko funtsezko kideetako bat izan zen bere ahizpa Vanessa Bell margolariarekin batera. Horrekin batera, Hogarth Press izeneko argitaletxea erosi zuen Leonard Woolf senarrarekin batera, eta hantxe egin zuen lan. Bere idatziez gain, XX. mendeko liburu adierazgarrienetako batzuk eman zituen argitara, emakumezko idazle askorenak tartean —Vita Shakesville (*Orlando: A Biography*ko protagonista eta Virginiaren maitalea), Willa Muir Eskoziako emakumeen egoerari buruzko ikerlaria, Nancy Cunard, Katherine Mansfield, Gertrude Stein...—. Hogarth Pressekin askatasunez idazteko aukera ematen zion Woolfi, bai eta bere taldekideen —Roger Fry, Clive Bell, John M. Keynes— lan bikainak argitaratzeko ere, Vanessa Bellen ilustrazioez lagunduta. Hantxe argitaratu zituen, halaber, T. S. Eliot eta beste poeta batzuen testuak, Sigmund Freud psikoanalistarenak, Tolstoi eta beste eleberrigile batzuenak, bidaiaria-liburuak... Arlo askotako jakingaiak bildu zituzten Woolftarrek, eta horrek guztiak erruz aberastu zuen gure idazlearen ezaguera, esfortzu handiak eginenez, horratik. Dena den, inor ez denez perfektu, James Joyceren *Ulyssesi* ezezkoa eman zion Virginiak.

Hogarth Pressen argitalpenen artean ez dut Mary Wollstonecraften *A Vindication of the Rights of Woman* (1792) aurkitzen, ordea, liburu hori *Gela bat norberarenaren* iturrien artean aipatu izan den arren. Niri dagokidanez, lotura estua ikusten dut bi emakumeon artean, beren bertute negatiboak direla eta emakumeek sexu babestua izateari utzi behar diotela esaten duelarik Wollstonecraftek, eta Virginia Woolfek, bestalde, bere

entzuleei agintzen dielarik onartzeko bakarrik daudela, eta heldulekutzat hartu nahi duten hori ez dela egiazkoa. Horrez gain, gizon gailenek landutako pentsaera patriarkal misogino gehiena berrikusi eta agerian utzi zuten biek ala biek, eta haien ondotik bide horrexeri jarraitu dio feminismoak dekonstrukzio-eragiketa higieniko bat eginez.

Center for Basque Studies, Reno, 2013.

GELA BAT NORBERARENA (KONEKTATUA)

Remedios Zafra

Zenbait liburuk kontutxoak, sekretu miragarriak, xuxurlatzen dizkigute belarrira, eta gero harriduraz konturatzen gara sekretu horiek aspaldidanik genituela deiadarka geure bizitzan. Nago horrelako zerbait gertatzen dela *Gela bat norberarenarekin*. Eta irudipena daukat hori gertatzen dela «ez» Virginia Woolfek azaltzen dizkigun sekretuek argia ematen digutelako, benda bat kentzen laguntzen digutelako baizik; eta hori gertatzen bada ez da sekretu horiek argizatzen gaituztelako, begirada boteretzen digutelako baizik. Emakumeen begirada kreatiboaz ari naiz, jakina.

consonniko lagunek *Gela bat norberarenaren* euskarazko argitalpenerako hitzaurre hau idazteko eskatu zidatenean, *neure gela konektatuan* nintzen. Eta berehala esan nuen baietz, noski. Liburu hau berezi-berezia baita niretzat: opari bat da literatura maite dutenentzat, kontutxoak xuxurlatzen dizkigu belarrira eta, gainera, kontzientziaren etengailu moduko bat da.

consonniren gonbidapena onartzean, atsegin handia izango zela tekleatu nuen, eta inork ikusten ez ninduen arren, urduritu, irribarre egin eta begiak ireki nituen zabal-zabal, albiste onak jasotzean ohi dudana moduan. Minutu gutxira, artxibategi honetara abiatu nintzen, Woolfen testua argitaratu eta ia mende bat geroago, nik, *neure gela konektatutik*¹, liburuaren itzulpen eta berrirakurketari zer ekarpen egin niezaiokeen zehazteko asmoz. Lehen puntua. Itzuliko naiz.

1. Zafra, Remedios, *Un cuarto propio conectado*. Fórcola, Madril, 2010.

consonnik eta *consonni* osatzen duten emakumeek emailez bidali zidaten beren gonbidapena, beren gela propio berezitik noski, gela konpartitu gisa ere erabiltzen duten espazio urratzaile horretatik. Kontraesankorra dirudi, baina ez. Niri gehiago iruditzen zait gela propioak eskaintzen digun kontzentrazioarako eta ekoizpen kreatiborako espazio horren aldagai edo aukera bat. Espazio hori talde-lanerako gune gisa, besteekiko aliantzak bideragarri direneko gune gisa ere irudikatzen dut; norberaren espazioa proiektu *partekatuen* nodo gisa funtzionatzen duen gune gisa, alegia. Bigarren puntua.

Neure gela propioa, idazten dudaneko gela, kontu partekatuez mintzo da, baina baita neure intimitateaz, besteek ikusten ez duten horretaz, ere. Bakarrik zaudenean, zeure buruarekin edo zeure osagarri intimotzat dituzun haiekin zaudenean, sentitzen, egiten, pentsatzen eta esaten duzun horretan bizi da intimitatea. Intimitatea ez da pribatutasunaren berdin-berdina, pribatu den hori jabetzaren ideiatik haratago baitoa, eta geure gorputzaren eta espazioen gaineko boterea dugun gizabanako gisa emana baitzaigu. Bai neure gorputza, bai ni neu (irudi gisa, izen gisa, ugaritasun gisa) aske den, are bere burua ezgaitzeko aske ere baden, *leku ezin ederrago horixe* da² eremu pribatua. Baina eremu pribatua izan da subjektu batzuk ezgaitu eta ikusezin bihurtu dituzteneko lekua ere. Kanpoalde publikotik aplikatutako botereak kontrolatu izan du eremu pribatu hori. Edo halaxe izan da berriki arte, gaur egun neure gela propio «konektatua» eremu pribatu gisa irudikatuz gero, eremu *publiko-pribatu* bihurtzen ari dela ikusten baitut. Hirugarren puntua.

2. Barthes, Roland, *La cámara lúcida*. Paidós, Madril, 2010, 110. or.

Lehen, bigarren eta hirugarren puntuak bildu nahiko nituzke orain, artxibategi digital honetako disekzio-mahai metaforikora igo, eta hantxe aztergai hartzeko. Hirurak elkar hartuta, Virginia Woolfen *Gela bat norberarenaren* irakurketa klasikoa eraldatzen dutela iruditzen baitzait. Esango nuke ideia hauek guztiz bestelako gela propioa dakarkigutela gaur egun, eta hori zein zentzutan eta zenbateraino gertatzen den zirriborrazera iritsi nahiko nuke.

Kontua ez baita beste argitaraldi bat ospatzea soilik –euskarazko oraingoan–, testu hau orain sortuko balitz, XXI. mende hasierako emakumeek idazteko eta sortzeko dituzten baldintzek interpelatua izango balitz, munduaz eta emakumeez esango lukeenari buruz pentsaraztea baizik. Kontua ez baita, berritort, Virginia Woolfen ahotsa antzeratzeko ariketa handiuste eta faltsu bat egitea, baina konplexurik gabe onartzen dugu espekulaziotan jardun nahi dugula norberaren gelak egun dituen ezaugarri berezien gainean eta, egungo ekoizpen- eta komunikazio-eszenatoki berrietan, emakumeek lituzketen agentzia eta jabetze kreatiborako eskakizun eta aukeren gainean. Eta, nire ustez, etxe barruko zelula subertsibo gisa, kontzentratzeko, irakurtzeko eta gauzak sortzeko leku gisa, norberaren gela horrek funtsezkoa izaten jarraitzen badu ere, espazio hori mundura konektatutako espazio bihurtu da ezinbestean sarearen bidez; online dagoen gizarte honetan eremu publikoaren eta pribatuaren artean sortu den bat-egite berria hortxe agertzen zaigu argiro, eta ez sorkuntza kreatiborako nodo gisa bakarrik, baizik eta baita sarbide eta hedabide gisa ere. Emakumeek beren gelatan ez baitute idazten bakarrik, komunikatu, gauzak partekatu, sarea eraiki eta munduko liburutegi berrietara ere sartzen dira handik (eta noizean behin sortu ere sortzen dituzte liburutegiok).

Argitaratu zenetik, espekulazio eta aldarrikapen feminista franko egin da esku artean duzuen lan entzutetsu honi buruz, eta Woolfek bere gogoeten xedetzat hartu zituen emakumezko idazleen, eta, ondorioz, asmo kreatiboko emakume guztien, burujabetzearen sinbolo bihurtu da. Liburu honek dioenez, *gela bat norberarentzat eta dirua* izatea ezinbesteko baldintzak ziren emakumeak idazkuntzari lotu ahal izateko. «Ardoa edateko eta beren gela izateko esan nien eztiki» gogoratzen du Virginia Woolfek beste testu batean, «etxeko aingeruaren ezinbesteko» heriotzaz mintzatu zenean ederki irudikatu zituen tribuaren loturetatik, haiengandik espero zen gutzitik, askatzera animatu nahirik emakumeak³.

Norberaren etxeak lotura estua du askapen horrekin. Kontu egin txertatuta dagoen leku-etxean kokatuta baina handik bereizita pentsatuta dagoela gela hori. Burujabetzea dakarren sinboloa den aldetik, patriarkatu-etxearen baitako «beste» baten zehaztapen gisa agertzen zaigu Woolfen gela, pentsamenduaren, irakurketaren eta idazkuntzaren bidez, «izateko» aukera (subjektibotasuna, kontzientzia) ematen digun espazio autonomo gisa, alegia; aldarrikatzen zuen espazioa bezalaxe, «propioa» izatea nahi zuen denbora batean. Zehaztapen hori errotikoa eta iraultzailea izan zen bere garaian, emakumeentzako «denbora eta espazio propioak» eskatzeak hutsune larri bat uzten baitzuen agerian: etxeko espazioak kudeatzen zituztenak emakumeak izanagatik, haiek bizi zireneko espazio guztiak besteentzat instrumentalizatzen ziren eta etxeko gainerako kideak zaindu, hazi, elikatu eta maitatzeko ematen edo erabiltzen ziren, ondorioz eta paradoxikoki, emakumeen denbora eta espazio propioak izanik etxeko gabezia nagusiak.

3. Woolf, Virginia, *La muerte de la polilla y otros ensayos*. La bestia equilátera, Buenos Aires, 2002.

Gaur egun, baina, muga estu horiek aldatzen ari dira. Orain arte intimitaterako espazioekin eta etxeko munduarekin lotu ohi genituen espazio «pribatuak» (tradizionalki feminizatutako eta biopolitikoki ikusezin bihurtutako espazioak) aldatzen ari dira. Hartara, norberaren gela bat Internetera «konektatuta» dagoela esateak modu asko eta ugaritan lotuko luke leku hori kanpoko munduarekin, tradizionalki «publikotzat» jo izan diren espazioekin, lana enplegutzat hartzen den eta, beraz, dago-kion ordainsaria jasotzen dueneko espazioekin.

Gaur egun, norberaren gela *topia* gisa hartuta *espazio* eta *denbo-raren* dimentsioen artean mugitzen da Internetera konektatzen denean. Antropologiaren ikuspegitik, *leku* zehatz bat litzateke gure gela, geure oroitzapenak biltzen dituen eta geure nortasuna eraikitzeko aukera ematen digun aldetik. Baina espazio potentzial bat ere bada, konektatu, eta geure irudikapenak ibilbide eta deriba birtualak sortzen dituztenean. Norberaren gela konektatua *topia* urratzaile bat litzateke orduan, leku pribatua izanik, esparru publikoa pentsatzeko eta irudikatzeko aukera ematen baitigu, bai eta esku hartu, eta kategoria horren esanahia aldaraztekoa ere. Geure intimitateaz gain, iraganean «ataritik kanpoko» horretara mugatuta zeuden ekintza kolektibo eta sozialerako aukerak baitaude gela konektatuan. Gela horretan, komunikazio, ezagutza eta ekintza publiko izan daiteke pentsamendua, bai eta proiektu partekatu, edota leku-etxea barrutik eraldatzen duen proiektu ere.

Norberaren gela (konektatu) berriak, orain, artxibategi-gelak dira batez ere, Woolfek bere liburuan aipatzen dituen liburutegi ospetsu lokartuak iraultzeko ahalmena lukeen liburutegi berri eta erraldoi bat. Emakumeak liburu-etako idazle nahiz aztergai (ez zaugarri bihurtu edo iraindu) gisa zeinen gutxi ageri diren

ikusita, honako hitzak idatzi zituen Woolfek, harrituta eta amorratuta: «Liburutegi ospetsu bat emakume batek madarikatzea bost axola zaio liburutegi ospetsu horri. Agurgarri eta bare, bere altxor guztiak bere magalean babestuta dituela, lo datza patxada osoan, eta, niri dagokidanez behintzat, horrelaxe jarraituko du betiko»⁴. Beharrezkoak ziren kontatu gabeko mundu-ikuskerak berriak, idatzi egin behar zuten emakumeek eta horixe zen eta da *Gela bat norberaren* helburua. Gizonek gizonentzat idatzitako liburutegietara mugatu gabe idatzi behar zuten emakumeek; osagai konformaezin handiko posizio lokalizatu batetik, patriarkatuaren baitako uharte batetik, tribuaren kontuetatik ihes egin zitekeen leku batetik.

Gaurko egunean, hortxe jarraitzen du etxeko presioak emakume askoren ekoizpen kreatiboan; hori gutxi ez eta, telelanaren erronkak eta egungo ahots, datu eta informazioen jario etengabe eta barreiatuak dakartzan distrakzioak gehitu zaizkio presio horri. Egia da liburutegi berriak ditugula ordainean, itxuraz horizontalagoak, sarean eratuagoak, ez beti itxiak edo lozorro baren dautzanak. Era horretan, norberaren gela (konektatua) beharrezko aldarrikapena dugu oraindik, ez geure *network*aren eta *off/online* bizitzaren operazio-gune edo geure laborategi, liburutegi eta estudio gisa bakarrik, diziplinazko ekoizpen-sistemei aurre egiteko aukera ugari eskainiagatik, baizik eta baita jolaserako eta (auto)kudeaketarako isiltasun eta espazio betegabe gisa ere. Norberaren gela konektatua orainaldi iraunkorari eta orainaren bizkortasunari aurre egiteko lekua izan liteke, ziztu bizian doan mundu honek dakarkigun barreiatzeari aurre egiteko, eta kontzientziak eskatzen digun eta sorkuntza orok beharrezko duen norberaren denbora berreskuratzeko lekua.

4. Woolf, V., *Gela bat norberarena*. consonni, Bilbo, 2013, 23. or.

Adi egoteko ahalmena neutralizatu izanari lotutako arriskuak gailentzen diren garai honetan, eta, horrekin batera, emakumeentzako lan prekarizatuak noranahi hedatu diren garai honetan, norberaren gelako kontzentrazio-espazioak, batetik, eta online komunikatu eta ekoizteko molde berriek, bestetik, geraleku bakan eta beharrezkoa bihurtzen dute norberaren gela. Eta iruditzen zait Woolfek emakumeen sorkuntzari buruz egindako proposamenak bi alderdi horietantxe (burujabetze eta kontzentrazioarako espazioetan eta online lan-molde ordainduetan) duela gaurkotasunik gehien.

Internetekin aldatu egin dira mundua eta norberaren gela, eta gaur egun idazten duten emakumeen erronka nagusia ez da orri edo pantaila zuria, denbora betegabe baterako aukera sortzea baizik; gure gizarte konektatua eguneroko «denbora propio» bat izateko aukera sortzea, hobe esanda. Ez dezagun ahaztu, halere, denbora horretan indarrean jarraituko lukeela Woolfen agindu hark; liburu honen idazkuntza eta testu honen hasieran aipatu dizkizuedan sekretuak markatu zituen eskakizun hark. Hementxe dituzue Woolfen hitz haiek: «Eskatuko nizeke era guztietako liburuak idazteko, inolako gairik baztertu gabe, hala axalekoak nola sakonak. [...] irakurtzean amets egiteko eta alferkerian egoteko kale-kantoieta, [...] liburu gehiago idazteko eskatzen dizuedanean, zeuen onerako eta mundu guztiaren onerako zerbait egiteko ari natzaizue erregutzen»⁵.

5. *Ibid.*, 135-136. or.

GELA BAT NORBERARENA¹

1. 1928ko urrian Newnhameko Arts Society elkartean eta Girtoneko Odtaa ikasle-elkartean emandako bi hitzaldi daude saiakera honen oinarrian. Testuak luzeegiak ziren han oso-osorik irakurtzeko, eta aldatuak eta hedatuak izan ziren gerora.

BAT

Baina —esango duzue—, emakumeei eta literaturari buruz hitz egiteko eskatu genizun eta; zer ikusteko du horrek norberaren gelarekin? Hori azaltzen saiatuko naiz. Emakumeei eta literaturari buruz hitz egiteko eskatu zenidatenean, ibai baten ertzean eseri, eta hausnarrean hasi nintzen hitzon esanahiaren inguruan. Izan zitekeen, besterik gabe, nahi zenutela nik iruzkintxo batzuk egitea Fanny Burneyri buruz; beste batzuk Jane Austeni buruz; gorazarre bat Brontë ahizpei eta zirriborro bat Haworth parrokia-etxe elurtuari buruz; ahal izatera, ateraldi barrerarraren bat Mitford andereñoari buruz; aipamen adeitsu bat George Elioti buruz; hitz bat edo beste Gaskell andreari buruz, eta kito. Ondo aztertuz gero, ordea, hitzok ez ziruditen hain sinpleak. *Emakumeak eta literatura* izenburuak esanahi ugari izan ditzake, eta zuek, noski, nahi zenuten nik gaitzat hartzea emakumeak eta haien izaera, edo emakumeak eta haiek egindako literatura, edo emakumeak eta haiei buruzko literatura, edo, izan zitekeen, bestela, bereizezinak izatea hiru aukera horiek, eta, beraz, hirurak batera aztertzea nahi izatea zuek. Baina, gaia ikuspegi horretatik aztertzen hasi nintzenean —horrexek zirudien-eta interesgarriena—, oztopo gaindiezin bat aurkitu nuen berehala: ez nintzela sekula gai izango ondorio batera iristeko. Ez nintzen inoiz gai izango nire ustez edozein hizlariren zeregina lehena izan behar duena betetzeko; alegia, ordubeteko hitzaldi baten ondoren egia aletxo bat ematea entzuleei, beren koadernoko orrien artean jaso eta tximinia gaineko apalean gorde dezaten betiko. Kontu xume bati buruz iritzi bat ematea zen egin nezakeen guztia: literatura egingo badu, emakume baten dirua behar duela, eta gela bat beretzat. Ikusiko duzuenez,

horrek argitu gabe uzten du emakumearen benetako izaerari eta literaturaren benetako izaerari buruzko auzi sakona. Iskin-txo egin diot bi gaiok buruz ondoriorik ateratzeko betekizunari, eta, niri dagokidanez, argitu gabeko auziak dira oraindik emakumeak eta literatura. Baina, huts hori osatzeko asmoz, ahal dudan guztia egingo dut gelari eta diruari buruzko iritzi horretara nola iritsi naizen azaltzeko, eta ahalik eta modu askeen eta osoenean garatuko dut zuen aurrean iritzi horretara eraman nauen arrazoibidea. Beharbada, agerian uzten badituzte baieztapen horren azpian dauden ideia eta aurreiritziak, ikusiko duzue badutela nolabaiteko erlaziorik emakumeekin eta literaturarekin. Nolanahi ere, gai batek zalaparta handia pizten duenean —eta horixe gertatzen da sexuarekin—, batek ezin espero dezake egia esatea, eta, edozein iritzi duela ere, batek ezin du egin iritzi horretara nola iritsi den azaldu besterik. Hizlariaren mugez, aurreiritziez eta bitxikeriez jabetu ahala, entzuleei beren ondorio propioak ateratzeko aukera ematea da batek egin dezakeen gauza bakarra. Eta, kasu honetan, litekeena da literaturak gehiago izatea egiatik, gertakizunek berek baino. Horrenbestez, hona hemen nire proposamena: hona etorri aurreko bi egunen kontakizuna aurkeztuko dizuet, eleberrigilearen libertate eta lizentzia guztiez baliatuz, eta azalduko dizuet nola, bizkar gainean jarri didazuen gaiaren zamak abailduta, neure eguneroko bizitzan txertatzeraino ibili dudan gai hori gogoan. Esan gabe doa oraintxe azalduko dizuedana ez dela existitzen; Oxbridge asmakizuna da; eta berdin Fernham. «Ni», berriz, benetako izaerarik ez duen norbait izendatzeko termino egokia besterik ez da. Gezurrak isuriko dira nire ezpainetatik, eta tarteka sortuko da noski egiaren bat, haiekin nahastuta; zuei dagokizue egia horiek aurkitzea eta gordetzekorik ezer ba ote duten erabakitzea. Hala ez bada, nire hitzak hartu, zakarrontzira bota, eta ahaztu itzazue betiko.

Hantxe nengoen, beraz —dei iezadazue Mary Beton, Mary Seton, Mary Carmichael edo nahi duzuen izenaz; horrek ez du axola handirik—, ibai baten ertzean eserita, duela pare bat aste, urriko eguraldi gozoan, neure pentsamenduetan galduta. Lehentxeago aipatu dudan zamak —emakumeei eta literaturari buruz, era guztietako aurreiritzi eta grinak pizten dituen gai horri buruz, ondorioren batera iritsi beharra, alegia— beherantz tiratzen zidan burua. Zuhaizka gorritzta eta horizta batzuk nituen ezker-eskuin, suaren koloreek piztuak, edota suaren garrek kiskaliak. Beste ertzean, zume negartiak auhen etengabe, adatsak lepo gainean askatuta. Gogoak ematen ziona islatzen zuen ibaiak zerutik, zubitik, zuhaitz gartsutik, eta, ikaslearen batelak isla haiek zeharkaturik, arraunak utzitako lorratza han galdu zen betiko, inoiz existitu ez balitz bezala. Ordu luzez egon liteke bat hantxe, bere pentsamenduetan galduta. Pentsamenduak —merezi duena baino izen jasoagoa ematearren halakoari— ibaian murgildu zuen kordela. Dilin-dalan ibili zen minuturik minutu, hara-hona uretako isla eta belarren artean, urak gora eta behera zerabilela, harik eta —ezagutzen duzue teinkadatxo hori, ezta?— horra bat-batean bil-bil egina ideia bat kordelaren muturrean, uretatik kontu handiz atera hura, eta hantxe paratu nuen txukun-txukun. Hara, belar gainean hantxe zabaldua, zeinen hutsal eta ezdeus zirudien nire pentsamendu horrek, arraintxo bat nola, harrapatu, eta, zeinen txikia den ikusita, berriro ere uretara bota ohi dena, gizendu eta jateko aproposa egin dadin arte. Ez zaituztet pentsamendu horrekin aspertuko, baina, arretaz bilatuz gero, zeuek ere aurkituko duzue, akaso, orain esango ditudan hitzetan.

Txikia izanagatik, bazuen, hala eta guztiz ere, ezaugarri misteriotsu bat, arrainek berezkoa dutena: gogora itzuli bezain laster, liluragarri eta garrantzitsu bihurtzen zen bat-batean, eta, atzera

eta aurrera, gora eta behera zebilela, hantxe lasai egotea galaraz-terainoko ideien plisti-plasta eta anabasa eragiten zuen. Halako batean, hor ikusi nuen neure burua belargune baterantz ziztu bizian. Gizon baten irudia agertu zen berehala, eta bidea moztu. Hasiera batean, ez nintzen konturatu etiketa-jaka eta -alkandoraz jantzitako objektu bitxi haren imintzioak niri zuzenduak zirela. Izua eta sumina sumatzen zitzaizkion aurpegian. Arrazoimena baino areago, sena etorri zitzaidan laguntzan. Hura eskolazaina zen; ni, berriz, emakumea. Hemengo hau belarra zen; hango hura, bidea. Unibertsitateko kideak soilik ibil daitezke belarretan; hartxintxarra zen niretzako lekua. Pentsamenduok istant batean izan nituen. Ni bidera itzuli bezain laster, eskolazainak besoak jaitsi zituen, eta betiko patxadara itzuli zen haren begitarte; eta, nahiz eta ibiltzeko belarra erosoago izan hartxintxarra baino, inork ez zuen kalte handirik jasan. Kargu bakarra leporatu niezaiekeen dena delako kolegio hartako kideei: hutsik egin gabe hirurehun urtean lisatu izan duten belardi hura babestu nahian, izuarazi, eta bere gordelekura uxatu zutela nire arraintxo.

Ordurako ahaztua nuen zer ideiak bultzatu ote ninduen hain ausarki baimenik gabe zapaltzera belargune hura. Bakearen espiritua jaitsi zen orduan, zerutiko laino bat bezala, zeren, bakearen espiritua inon aurkitzekotan, Oxbridgeko patioetan aurkituko baitu batek, urriko goiz atsegin batean. Kolegio haien artean, areto zahar haien ondotik paseatzean, guztiz desagertzearaino leundua zirudien orainaren zakartasunak; inolako soinurik sartzen uzten ez duen beirazko armairu miragarri batean sartuta bezala sentitzen zen gorputza han, eta gogo, gertakizunetik hartu-eman oroz askatua (berriro ere belargunean sartu ezean behintzat), aske zen unearekin bat zetorren edozein gogoetatan pausatzeko. Izan ere, hildako guztien artean (buru-

ra etorri zitzaizkidan bezalaxe azaltzen dizkizuet neure pentsamenduak), Lamb da atseginenetako bat; eta batek gustura asko eskatuko zion azaltzeko nola idazten zituen bere saiakerak. Haren saiakerak, izan ere, hobeak dira Max Beerbohmenak berarenak baino, haien perfekzioa gorabehera, pentsatu nuen, badelako irudimen-txinpart zororik eta talentu-tximistarik saiakeron artean, eta horrek, akastun eta hobendun bihurtzen baditu ere, poesiaren izarraz nabarmentzen dituelako testuok. Lamb Oxbridgera etorri zen duela ehun bat urte, eta saiakera bat idatzi zuen —izena ez dut gogoan— hemen irakurritako Miltonen olerkietako baten eskuizkribuari buruz. *Lycidas* izango zen, agian, eta Lambek idatzi zuen guztiz txundigarria iruditzen zitzaiola pentsatzea *Lycidas* hartako edozein hitz bestelakoa izan zatekeela. Lambek sakrilegiotzat zeukan Milton olerki hartako hitzak aldatzen irudikatzea. *Lycidas* olerkiaz ahal nuen guztia gogoratzen saiatu nintzen, eta hortxe jardun nuen pentsatzen Miltonek zein hitz aldatuko ote zuen, eta zergatik. Bat-batean konturatu nintzen ehunka metro gutxira zegoela Lambek miatutako eskuizkribua, eta, beraz, erraz abia zitekeela bat Lamben urratsen atzetik, patioa zeharkatu, eta altxorra gordetzen duen liburutegi ospetsuraino. Gainera, Thackerayk idatzitako *Esmonden* eskuizkribua ere liburutegi ospetsu horretantxe gorderik dagoela gogoratu nuen, nituen asmoak martxan jartzearekin bat. *Esmond* Thackerayren eleberririk biribilena dela esaten dute kritikariek askotan, baina, gogoan dudanez, XVIII. mendea antzeratu nahian darabilen estilo itxurati hori gogaikarri bihurtzen da, non eta XVIII. mendeko estiloa berezkoa ez den Thackerayrentzat. Eskuizkribua aztertu, eta hango aldaketak estiloaren mesedetan ala esanahiaren mesedetan eginda dauden egiaztatuz jakin liteke hori. Eta, horretarako, estiloa zer den eta esanahia zer den erabaki beharko luke batek, eta auzi hori... Tira, liburutegi-atariraino iritsia nintzen

ordurako. Atea irekiko nuen noski, hantxe etorri baitzitzaidan gizon adeitsu ileurdin bat errieta egitera, aingeru guardako bat balitz bezala bidea itxiz, ez hala ere hegal zuri batzuekin, bere jantzi beltzaren hegalekin baizik, eta, kanporantz bultzatzen ninduela, ahapeka zioen emakumeek ez zeukatela sartzerik liburutegi hartan, unibertsitateko kideren batek lagunduta edo aurkezpen-gutun batekin joan ezean.

Liburutegi ospetsu bat emakume batek madarikatzea bost axo-la zaio liburutegi ospetsu horri. Agurgarri eta bare, bere altxor guztiak bere magalean babestuta dituela, lo datza patxada osoan, eta, niri dagokidanez behintzat, horrelaxe jarraituko du betiko. Sekula ez ditut iratzarriko hango oihartzunak, sekula ez dut han abegirik eskatuko, agindu nion neure buruari eskailetan behera nindoala amorru bizian. Ordubete falta zen artean bazkalordurako, eta zer egin zezakeen batek? Zelaietan paseatu?, ibaiertzean eseri? Udazken-goiz atsegina zen, inondik ere: hosto gorritzak hantxe zebiltzan hegaldaka, lurra jotzeraino. Biak ala biak ziren aukera aproposak. Baina musika-doinuak iritsi zitzaizkidan belarrietara, elizkizun edo ospakizun batetik etorriak noski. Organoa handitasunez arranguratu zen kaperako ate ondotik pasatu nintzenean. Giro bare hartan, kristautasunaren bihozminak berak ere gehiago zirudien bihozminen oroitzapen bat egiazko bihozmin bat baino; organo zaharraren hasperenek, berriz, bake-laztanetan bilduak ziruditen. Eskubiderik izan banu ere, ez nuen han sartzeko batere gogorik: beharbada, sakristaua etorriko zitzaidan oraingoan bidea moztera, bataio-agiria eskatuz, edo deanaren aurkezpen-gutun bat. Eraikin bikain haien kanpoaldea, baina, barrualdea bezain ederra izaten da askotan. Gainera, entretenigarria zen ikustea nola elkartzten ziren eliztarrak, nola zebiltzan sartu-irtenean, erleak erlauntzaren ahoan nola, halaxe pilaturik kapera-atarian. Toga

eta birreta zeramatzen askok; batzuek larruzko mototsak zituzten lepo inguruan; beste batzuk gupil-aulkian zihoazen; eta beste batzuek, helduaroa pasatu gabeak izanagatik, zimur-zimur eginak eta bihurrituak ziruditen, akuario bateko hondarretan nekez mugitzen diren otarrain eta txangurro erraldoien gisako beren gorpuzkera bitxiekin. Hormaren kontra bermatuta, erreserba baten tankera hartu nion unibertsiteari, Strand kalean abandonatu, eta han beren biziraupenagatik borrokatu behar balute, berehala zaharkituta geldituko liratekeen izaki bitxiak babesten direneko erreserba batena, hain zuzen ere. Garai bateko dean eta irakasleen garai bateko istorioez gogoratu nintzen, baina, txistuka hasteko nahikoa adore biltzerako —txistu-hotsak entzun orduko, bat-batean trostan hasten omen zen ____ irakaslea—, barruan ziren eliztar agurgarriak. Kaperaren kanpoaldeak hantxe jarraitu zuen. Dakizuenez, hango kupula eta pinakulu tantaiaik urrun-urrunetik ikusten dira gauzez argitzen dituztenean, mendixken bestaldetik milia askotara, bidaia amaigabea doan belaontzi bat balira bezala. Antza denez, patio hau, bere belar leun eta eraikin sendoekin, bai eta kapera bera ere, eremu zingiratsu bat izan ziren behinola, eta basurdeak ibiltzen ziren hemen belar kulunkarien artean usnaka. Zaldi eta idi saldoek ekarriko zituzten harriok, lurralde urrunetatik iritsitako gurdiei tiraka, pentsatu nuen; gero, bata bestearen gainean kokatuko zituzten itzala ematen zidaten harritzar grisak, amaierarik gabeko lanaldi luzeetan; margolariak iritsiko ziren hurrena, leihoetako beirak jartzera, eta igeltseroek mende luzeak emango zituzten teilatuan, pala eta paleta eskuan hartuta oreka eta zementua jartzen. Larunbatero larruzko diruzorro batetik urrezko eta zilarrezko txanponak atera, eta langile haien ukabil zaharkituetan isuriko zituen norbaitek, garga-gardoa erosi, eta gau hartan bolo-jokoan ari zitezen. Mugarik gabeko urre- eta zilar-jario etengabe bat iritsiko zen patio ho-

netaraino, pentsatu nuen, ziurtatzeko jarraitzen zutela harriek iristen eta igeltseroek lanean, lurra berdintzen, zangak egiten eta ur gehiegia kentzen. Baina fedearen aroa zen hura, eta bapo isurtzen zen dirua, harri haiei funts sendoak emateko; eta, harriak finkatutakoan, diru gehiago isuri zen errege-erreginen eta noble handien kutxetatik, ereserkiak kantatzen eta ikasleak trebatzen zirela ziurtatzeko. Lurrak esleitu ziren, eta hamarrenak ordaindu. Eta fedearen aroa iragan, eta arrazoiarena iritsi zenean, bere horretan jarraitu zuen erre- eta zilar-jarioak; beka sortu ziren, eta katedrak diruz hornitu; baina, orduan, urrea eta zilarra ez zetozen erregearen kutxetatik, merkatari eta fabrikatzaileen golkotik baizik, zerren, haietako askok, industrian dirutza egin eta gero, lanbidea ikasia zuten unibertsitateari utzi baitzioten diru haren puska bat testamenduan, katedra, beka eta irakasle-postu gehiago sortzeko. Horren guztiaren ondorio dira liburutegi eta laborategiak, behatokiak, eta tresna eta gailu garesti eta delikatu ez osatutako ekipamendu bikainak, hantxe gorderik daudenak beirazko apaletan, mende batzuk lehenago basurdeak belar kulunkarien artean usnaka ibiltzen ziren lekuan. Patioan pasieran nenbilela, sakon askoak iruditu zitzaizkidan erre eta zilarrezko zimendu haiek, eta guztiz sendoa, garai bateko basabelarren gaineko zoladura. Atzera eta aurrera zebiltzan zerbitzariak, erretiluak buruan, eskailera batetik bestera. Kolore biziko liliak loratzen ziren leihoetako ontzietan. Gramofono baten burrunba iristen zen barruko geletatik. Ezinezkoa zen zerbaiten gainean ez hausnartzea, baina, hausnarketa edozein zela ere, etenda gelditu zen bat-batean. Erlojuak jo zuen: bazkaltzeko ordua zen.

Bitxia da eleberrigileek nola sinestarazten diguten bazkariak abagune gogoangarriak izaten direla beti, dela urliaren ateraldi barregarriatik, dela berendiaren ekintza burutsuaga-

tik. Jatekoari buruz, baina, gutxitan izaten dute esatekorik. Eleberrigileen konbentzioa da zopa, izokina eta ahatea ez aipatzea, zopa, izokina eta ahatea batere garrantzirik gabeak balira bezala, inork inoiz pururik erre edo ardorik edan ez balu bezala. Nik, hala ere, konbentzioari aurre egiteko lizentzia hartuko dut, eta bazkari hartako jakien berri emango dizuet: hasteko, mihi-arraina erretilu sakon batean zerbitzatu eta kolegioko sukaldariak prestatutako esnegainik zurienaz estalia, untxien saihetsetako orbanak ziruditen pikor arrez ziprztinduta. Eperrak iritsi ziren hurrena, baina ez dezazuela pentsa kolore marroiko txori pareka ekarri zigutenik, soil-soilik, plater batean hantxe. Eperrak, ugariak eta era askotakoak, beren osagai guztiekin zetozen: saltsak eta entsalada bixi eta gozoak, bakoitza bere txandan; patatak, txanponak bezain finak baina ez hain gogorrak; bruselazak, arrosa-begien modura atonduak, baina nahigarriagoak. Eta haragi erre eta osagarriekikoak kitatzerako, hantxe genuen berriz zerbitzari isila —eskolazaina bera, akaso, bertsio bareago batean— uhin artetik altxatzen zen azukre hutsezko postre gozo bat zekarrela, musu-zapiz apaindua. Pastela deitzea eta, ondorioz, arrozarekin eta tapiokarekin erlazionatzea iraingarri litzateke. Bitartean, ardo-kopak horiz tindatu ziren, eta gorritz; hustu ziren, eta berriz ere bete. Eta, halaxe, han joan zen pixkanaka piztuz bizkarrezurraren erdian —hortxe baitatza arima—, ez ezpainen dantzatzen zaigularik distira deritzogun argitxo elektriko gordin hori, baizik eta hartu-eman arrazionalaren gar horiaren dir-dir sotilago, sakonago eta ezkutuagoa. Han ez zegoen azkar ibili beharrik, ez txinpartatsua izan beharrik, ez norbera ez beste inor izateko beharrik ere. Denok joango gara zerura, Vandyck ondoan dugula. Bestela esanda: zeinen ederra zirudien bizitzak, zeinen gozoak haren sariek, zeinen hutsalak liskar eta arrangura orok, zeinen miresgarria adis-

kidetasunak eta gure gisakoen lagunarteak, bat leiho ondoko kuxinetan murgiltzen denean, puru eder bat pizturik.

Zori onak hautsontzi bat jarri balu eskueran, hautsontzirik izan ez eta batek hautsa leihotik bota ez balu, zirenaz bestelatsu izan balira kontuak, bati ez zitzaion egokituko, noski, buztanik gabeko katu bat ikustea. Patioa emeki zeharkatzen ari zen animalia elbarri haren bat-bateko ikuskizunak emozioen argia aldatu zidan, adimen subkontzientearen txiripa batez, norbaitek itzal bat jaurti balit bezala. Izan zitekeen, noski, Rhineko ardo bikaina hasita egotea bere hatzaparrak arintzen. Nolanahi ere, Manxeko katamotza belardiaren erdian pausatzen ikusi nuen, hura ere unibertsoaz galdezka balego bezala, zerbaiten hutsunea sumatu nuen; bazen han zerbait desberdina. Zer ote zen hutsune hori?, zer zen desberdina?, galdetu nion neure buruari, belarriak adi. Galdera horri erantzuteko, gela hartatik kanpo irudikatu behar nuen neure burua, iraganean, gerra aurreko urteetan, eta beste bazkari baten irudia ekarri begien aurrera; hemendik gertu egin zen bazkari bat: arras desberdina, ordea. Dena zen desberdina. Bien bitartean, berriketan jarraitzen zuten bazkaltiarrek —ugariak, gazteak eta sexu bateko nahiz besteakoak— ezin gusturago, jardun atsegin, aske eta jostagarrian. Berriketa hark aurrera egiten zuelarik, lehenagoko beste harekin alderatu nuen, eta, biak parekatzean, argi ikusi nuen bata bestearen ondorengoa zela, bata bestearen legezko oinordekoa. Ez zen ezer aldatua, ezer ez zen desberdina, salbuespen txiki batekin: oraingoan adi-adi entzuten nuena ez zela han esaten zena, azpian sumatzen zen murmurio edo korrontea baizik. Horixe zen, jakina; hortxe zegoen aldea! Gerra aurretik, era horretako bazkari batean, pertsona haiek hitz berberak esango zituzten, baina bestela hartuko ziren hitzok, garai hartan halako ahapeko hots ez-artikulatu baina musikal eta zirrargarri

bat erabiltzen baitzen hitzok ahoskatzean, haien balioa ere aldarazten zuena. Gai izango ote zen bat ahapeko murmurio hari hitzak jartzeko? Poeten laguntzarekin, beharbada. Liburu bat nuen ondoan; hura ireki, eta, norena izango, eta Tennysonena. Hara zer kantatzen zuen Tennysonek:

Malko eder bat jausi da lurrera
Atarian den pasio-loretik.
Badator ene usoño maitea
Badator; hargandik dut bizitza nik;
Arrosa gorriak «Horra, hurbil da»;
Zuriak intziri «Ai ez oraindik»;
Ezproi-loreak «Erne, erne, horra»;
Lirioak xuxurla «Guardia dagit».

Hori ote zen gizonek gerra aurreko bazkarietan ahapeka kantatzen zutena? Eta emakumeek?

Txori kantari bat dut nik bihotza,
Ihintzetan duelarik habia;
Sagar-arbola bat dut nik bihotza,
Fruitu joriz kargaturik guztia;
Ostadar-maskor bat dut nik bihotza,
Itsaso lañoan arraunka ari;
Haiek baino pozago gaur bihotza,
Maitea baitzait ondora etorri.

Hori ote zen emakumeek gerra aurreko bazkarietan ahapeka kantatzen zutena?

Hain zen zentzugabea jendea halakoak kantatzen irudikatzea, ahapeka bazen ere, gerra aurreko bazkarietan, ezen, barrez leherthu baintzen; nire algara haien zergatia azaltzeko, Manxeko katamotza seinالاتu nuen, barregarri samar ageri baitzen piztia

gaixoa, buztanik gabe, belardiaren erdian. Hala jaio ote zen, ala istripu batean galdu ote zuen buztana? Man uhartean ba omen da halako katu buztan-motzik, baina batek uste baino bakanaoak dira. Animalia bitxiak dira, areago xebreak ederrak baino. Harrigarritzko aldea da, gero, buztana izan ala ez; tira, badakizue zer-nolako gauzak esaten dituen batek bazkaria amaitu berritan, jendea beroki eta kapelen bila hasten den horretan.

Orduko hark, antolatzailearen abegi onari esker, arratsaldeak ondo aurrera egin arte iraun zuen. Urriko egun eder hura zimitzen hasita zegoen eta hostoak erortzen ari ziren ni nindoan hiribideko zuhaitzetatik. Ni pasatu ahala, itxiz zihoan ate oro, behin betikotasun ezti batez. Ezin konta ahala eskolazain han zebiltzan giltza sartzen ezin konta ahala sarraila ondo olioztatuetan: altxorraren etxea segurtatzen ari ziren beste gau baterako. Hiribideak bide batera ematen du —ez dut gogoan izena— eta, eskuinerantz hartuta, Fernhamera iristen da bide hori. Denbora sobera nuen, afaria ez baitzen zazpi eta erdiak arte. Gainera, afaldu gabe ere molda zitekeen bat, halako bazkari baten ondoren. Harrigarria da olerkitxo batek nolako eragina duen gure gogoan, eta nola dantzarazten dizkigun hankan bere erritmora, bidean aurrera goazela. Hitz haiek...

Malko eder bat jausi da lurrera
Atarian den pasio-loretik.
Badator ene usoño maitea...

...kantuz neuzkan odolean, Headingleyrantz lasterrean nindoala. Orduan, neurria aldatu, eta kantatu nuen, urtegiak eragindako zurrunbiloen parean:

Txori kantari bat dut nik bihotza
Ihintzetan duelarik habia
Sagar-arbola bat dut nik bihotza...

Haiek bai poetak!, oihukatu nuen, ilusentian ohi den moduan,
haiek bai poetak!

Nolabaiteko jelsiaz edo, gure garai honen kariaz, halako alde-
raketak burugabeak eta txepelak diren arren, pentsatzen jarri
nintzen ea zintzoki aipa litzakeen batek bizirik dauden bi poe-
ta Tennysonek eta Christina Rossettik beren garaian erakutsi
zuten mailakoak. Bistan da ezinezkoa dela, pentsatu nuen ur
apartsu haietara begira, horiek alderatzea. Hauxe da arrazoia
poesia hark batengan halako abandonua, halako liluramen-
dua piztu dezan: batek garai batean (gerra aurreko bazkarietan
beharbada) zuen sentipen bat goersten duela, eta, hala, aise
erreakzionatzen duela batek, zeremoniarik gabe, hura aztertze-
ko edo egungo beste sentipenen batekin alderatzeko nekerik hartu
gabe. Bizirik dauden poetek, baina, berez oraintxe sortzen ari
den eta erauzten ari zaigun sentipen bat adierazten dute. Hasie-
ra batean, bat ez da jabetzen sentipen horretaz, eta haren beldur
izaten da askotan; zorrotz aztertzen du, eta, jelsiaz eta erreze-
loz alderatzen du lehengo sentipen zahar harekin. Horra poesia
modernoarean zailtasunaren arrazoia, eta zailtasun horrexegatik
gertatzen da ezinezkoa egungo edozein poeta onaren bi lerro
baino gehiago gogoratzea. Hori zela eta —oroimenak huts egin
zidalako, alegia—, ahulduta gelditu zen nire arrazoibidea, ma-
terial faltan. Baina zergatik, jarraitu nuen, Headingleyko bidea
hartuz, zergatik utzi diogu bazkarietan ahapeka kantatzeari?
Zergatik utzi dio Alfredek kantatzeari

Badator ene usoño maitea?

Zergatik utzi dio Christinak erantzuteari

Haiek baino pozago gaur bihotza

Maitea baitzait ondora etorri?

Gerrari botako al diogu errua? 1914ko abuztuan armak tiroka hastearekin batera, gordin agertu al ziren elkarren begietan gizonen eta emakumeen aurpegiak, erromantizismoa hiltzeraino? Sekulako danbatekoa izan zen, noski (emakumeentzat bereziki, hezkuntzan-eta jarritako itxaropenak zirela eta), gure agintarien aurpegiak kanoi-suen argitan ikustea. Hain ziruditen itsusiak — alemanek, ingelesek, frantsesek—, hain ergelak. Errua edozeri, edozeini botata ere, Tennyson eta Christina Rossetti beren mai-teen etorrerari buruz halako grinaz kantatzera bultzatu zituen ilusio hura askoz urriagoa da gaur egun. Aski da irakurtzea, begiratzea, entzutea, gogoratzea. Baina zergatik «errua»? Ilusio hutsa besterik ez bazen, zergatik ez goretsi, zena zela ere, amets haiek suntsitu eta egia bere lekuan jarri zuen hondamendia? Izatez, egia... Egiaren bila nenbilela Fernhamerako desbide-ratzea hartzea ahaztu nuen lekua markatzen dute hiru puntu horiek. Izan ere, zer zen egia eta zer ilusio?, galdetu nion neure buruari. Zer zen etxe haien egia, esaterako, motel eta alaitsu ageri zirenak beren leiho gorriekin ilusentian, baina gordin, gorri eta txatxar, beren gozoki eta lokarriekin, goizeko bederatzieta? Eta zumeak eta ibaia eta ibaiertzeraino hedatzen diren lorategiak, orain lanbro artean lauso, baina urrez eta gorriz egun argitan... Zein zen haien egia?, zein haien ilusioa? Aurreztuko dizkizuet neure burutapenen jirabirak, ez bainuen inolako ondoriorik atera Headingleyrako bidean, eta eskatuko dizuet kontu egiteko laster jabetu nintzela neure bide-okertzeaz, eta atzera egin nuela Fernhamerantz.

Esana dizuedanez urriko egun bat zela, ez naiz ausartzen zuen errespetua galtzen eta literaturaren izen ona arriskuan jartzen urtaroa aldaturik, deskribatuz lorategietako hormetan zintzilikaturiko lilarik, azafrairik, tuliparik eta udaberriko beste lorerik. Egitateei lotu behar zaie literatura; zenbat eta egiazkoagoak

egitateak, orduan eta hobea literatura (hala irakatsi digute). Udazkena izaten jarraitzen zuen, beraz, eta berdin jarraitzen zuten hostoek horixkak izaten eta erortzen, lehen baino azkarxeago nahi bada, iluntzen hasita baitzegoen (zazpiak eta hogeita hiru ziren, zehazki) eta haize gozo batek jotzen baitzuen. Hala eta guztiz ere, zerbait bitxia gertatzen zen:

Txori kantari bat dut nik bihotza
Ihintzetan duelarik habia
Sagar-arbola bat dut nik bihotza
Fruitu joriz kargaturik guztia...

Beharbada Christina Rossettiren hitzei zor zitzaien, neurri batean, ameskeria zoro hura —ameskeria hutsa baitzen—: alegia, lilak dardarka zeuden lorategiko hormetan, limoi-tximeletak jira eta bira zebiltzan eta polen-hautsa zegoen airean. Haizeak jo zuen, nondik ez dakit, baina, hosto erdi haziak altxatu, eta distira zilarkara bat piztu zuen airean. Argien arteko ordua zen, koloreak biziago ageri diren ordua, moreak eta urreak leihoe-tako beiretan kiskaltzen daudenekoa, bihotz urduri baten tau-paden modura; ordu hori zeinean, arrazoiren bategatik, munduaren edertasuna, hortxe agertu eta bertan galtzera doana... (hartan, lorategirantz jo nuen, zabalik utzia baitzuen baten batek atea, arduragabeki, eta ez baitzen eskolazainik ageri inon); ordu hori zeinean munduaren edertasun galkor horrek bi alde dituen: barre-algarazkoa bata eta nahigabezkoa bestea, biak ere bihotza erdibituz. Fernhameko lorategiak hedatzen ziren nire aurrean udaberriko ilunsentian, basati eta zabal, eta, hant-hemenka axolagabeki zipriztinduak belar luzeen artean, bazen nartzisorik eta ezkila-lorerik, ez noski txukun lerrokatuak beren garai onenean ere, eta haizearen astinduak kulunkaraziak orain, sustraietatik tiraka. Eraikineko leihoak itsasontzi bateko leihoak bezala bihurritzen ziren adreilu-uhin ugarien artean,

limoitik zilarrera aldatuz zihoazelarik udaberriko hodei iheskorren azpian. Norbait zegoen hamaka batean, norbait, argi harekin, baina, denak ziren mamuak, erdi sumatuak, erdi ikusiak, belardian zehar lasterka —ez al zuen inork geldiarazi behar?—; eta, geroxeago, terrazan, arnasa hartzearren edo lorategira begiratzearren burua ateraz bezala, irudi bihurritu bat agertu zen, egundokoa baina apala, bere kopeta handi eta soineko zarpailarekin. Ez al zen jakintsu ospetsu hura, J_____ H_____ bera? Dena ageri zen goibel, baina aldi berean bizi, iluntsiak lorategira jaurtikitako estalkia erdibitu balitz bezala, izar zein ezpataz, gertakari latz baten tximistargia lehertu balitz bezala udaberriko bihotzean. Izan ere gaztetasuna...

Hantxe nuen zopa. Afaria zerbitzatzen ari ziren jangela handian. Ez zen udaberria, inondik ere, urriko ilunabar bat baizik. Denok geunden bilduta jangela handian. Prest zegoen afaria. Hantxe nuen zopa. Salda triste bat zen. Ez zuen irudimena pizteko ezertxo ere. Batek errez ikusiko zuen likido garden hartan zehar edozein marra, platerak berak irarrita eduki zezakeena. Platerak ez zuen, baina, halakorik. Leuna zen platera. Txahala ekarri ziguten hurrena, bere barazki eta patata osagarriekin; hirutasun etxetiar bat, zera iradokitzen zuena: azoka lokaztu bateko ganaduaren atzealdea, bruselaza kizkurtu eta ertzetan horitzen hasiak, eta etxeakoandreak, beren sokadun poltsekin, tratuan astelehen goizeko azokan. Ez zen arrazoirik gizakion eguneroko janariaz kexatzeko, nahikoa baitziren jakiak, eta meatzariak gutxiagorekin konformatu beharra baitzeukaten, inondik ere. Aranpasak eta arrautza-esnea iritsi ziren segidan. Eta inor kexatzen bada aranpasak, arrautza-esnetan arinduta ere, barazki zikoitz bat direla eta (fruta behintzat ez dira), zikoitz baten bihotza bezain zaintsuak eta zikoitz baten zainetatik doana bezalako likido bat dariela —laurogei urtean bere buruari

ardoa eta berotasuna ukatu ondoren, halakoak behartsuei eman gabe—, orduan horretaz kexatzen denak gogoan izan behar luke badela jenderik aranpasak ere onartzeko errukia duena. Gailetak eta gazta atera zituzten jarraian, eta ur-pitxarra hantxe ibili zen eskutik eskura, berez baitira lehor samarrak gailetak, eta gaileta peto-petoak baitziren haiek. Horixe izan zen guztia. Amaitua zen otordua. Atzerantz bultzatu zituzten denek aulkiak; ate birakariak atzera-aurrera jiratu ziren bortizki; laster, ez zen han gehiago janari-arrastorik, eta prest utzia zuten berriro jangela biharamuneko gosaritarako. Korridoreetan behera eta eskaileratan gora zebilen Ingalaterrako gazteria, kolpeka eta kantuka. Gonbidatu bati al zegokion, arrotz bati (nik ez bainuen eskubide gehiago han, Ferhnamen, egoteko, Trinityn, Somervillen, Girtonen, Newnhamen edo Christchurchen egoteko baino), esatea «Ez zegoen ona afaria», edota (Mary Seton eta biok haren egongelan ginen jada) «Ezin al genuen hementxe afaldu, guk biok bakarrik?». Izan ere, halakorik esan izan banu, kuxkuxean eta miaka ibiliko nintzen arrotzaren begietara alaitasun eta adorez betea ageri zen etxe baten kudeaketa sekretuan. Ez, batek ezin zuen halakorik esan. Solasa gain behera etorri zen pixka batean. Giza egitura den bezalakoa izanik, nahasturik dituelarik bihotza, gorputza eta garuna, eta ez edukiontzi bereizietan banatuta, nahiz eta halaxe egongo diren noski milioi bat urte barru, bapo afaltzea funtsezkoa da solasaldi on bat izateko. Batek ezin du ondo pentsatu, ondo maitatu eta ondo lo egin, ondo afaldu ez badu. Bizkarrezurreko argia ez da pizten txahalarekin eta aranpasekin. *Ziur asko* denok joango gara zerura, eta Vandyck, *espero dezagun*, hantxe aterako zaiagu harrera egitera hurrengo kantoian. Horixe da txahalak eta aranpasek elkar hartuta elikatzen duten gogo-giro badaezpadako eta kritikoa, lanegun baten amaieran. Zorionez, nire lagunak, zientzia-irakaslea izaki, bazuen armairu bat, eta botila mozkote

bat eta edalontzi txiki batzuk han gordeak (dena dela, mihi-
-arraina eta eperrak behar genituzkeen hasteko); aukera izan
genuen, beraz, suaren inguruan bildu, eta egunean zeharreko
zenbait kalte konpontzeko. Handik pare bat minutura, hantxe
genbiltzan jauzika pertsona jakin bat bertan ez denean burura
etortzen diren eta harekin elkartzean naturalki aipatzen diren
gai jakingarri eta interesgarrien artean: urlia ezkondu dela, eta
berendia, berriz ez; halakok hau uste duela, eta halakok, berriz,
bestea; baten jakinduriak uste ororen kontra egin duela hobe-
ra, eta, bestearenak, berriz, okerrera, modu harrigarrian... Eta
hortxe ibili ginen, halako hastapenetatik berez bezala sortzen
diren tankera horretako gogoetak eginez giza izaerari buruz eta
bizi garen mundu miragarriaren zerizanari buruz. Halakoak
hizpide genituela, hala ere, lotsa-lotsa eginda konturatu nintzen
bazela halako korrante bat bere gisa nagusitzen ari zena eta
den-dena bere gisako jomuga baterantz bultzatzen zuena. Han
ari zitekeen bat hizketan Espainiari edo Portugali buruz, liburu
bati edo zaldi-lasterketa bati buruz, baina ahoskatzen genituen
hitzen benetako interesa ez zetzan gaiotan, bost mende lehe-
nago teilatu garai batean ziharduten igeltsero batzuegan bai-
zik. Errege eta nobleak ageri ziren han, altxorrez betetako zaku
handiak lur azpian husten. Bizi-bizirik neukan eszena hura
gogoan, eta hantxe kokatzen zitzaidan behi argalen, merkatu
lokaztuaren, barazki zimelen eta bihotz zaintsuko agure zaha-
rren beste eszena haren ondoan. Bi irudiok, loturarik gabeak
eta zentzugabeak izanagatik, behin eta berriro etortzen zitzaiz-
kidan burura, elkarrekin borrokan, eta beren mende ninduka-
ten erabat. Berriketa hura guztiz desitxuratuta geldituko ez
bazen, gogoan nerabilena azaleratzea izango nuen onena, hala,
zoria lagun, bertan zimeldu eta hauts bihur zedin, errege hila-
ren burua bezala, harako Windsorren hilkutxa ireki zuten har-
tan. Igeltseroek mintzatu nintzaion Seton andereñoari, laburki,

nola jardun zuten urterik urte kaperako teilatuan, eta errege-erregina eta nobleez, nola ekartzen zituzten lepo gainean beren urre eta zilarrezko zakuak, hantxe lurtean husteko; gero, lagunari azaldu nion gure garaiko handiki bikainak, etorri, eta nola jarri zituzten txekeak eta bonoak beste batzuek lingoteak eta urre koskor zakarrak jarri zituzten lekuan. Horixe guztia dago kolegio hauen azpian, esan nuen; baina kolegio hau, orain gauden kolegio hau, zer dago hemengo adreilu prestuen eta lorategiko belar zaindu gabe eta basatien azpian? Zer indar ezkutatzen da afaritan erabili dugun zeramika apainduragabearen atzean, eta (gelditzeko betarik gabe irten zitzaidan ahotik) txahalaren, arrautza-esnearen eta aranpasen atzean?

Tira, ekin zion Mary Setonek, 1860. urte inguruan —Zuk ezagutzen duzu-eta istorioa, esan zidan errezitaldiaz aspertuta edo— gela batzuk alokatu zituzten. Batzordeak eratu zituzten. Gutun-azalak bidali zituzten. Zirkularrak idatzi zituzten. Bilerak egin zituzten, gutunak irakurri zituzten, halakok halako kopurua agindu du, ____ jaunak, berriz, txakur txikirik ere ez. *Saturday Review* oso zakarra izan da. Nola bilduko dugu bulegotarako dirua? Antolatuko al dugu zozketa bat? Neska polit bat jar genezake lehenbiziko lerroan. Begira dezagun John Stuart Millek zer dioen gaiari buruz. Baten batek ____ko zuzendaria konbentzitu al dezake eskutitz bat argitaratu dezan? Lor ote genezake ____ andreak sinatzea? Lady ____ kanpoan da. Itxura batean, gauzak horrela egiten ziren duela hirurogei urte. Eginahalak eta bi egin zituzten, eta denbora piloa eskaini zioten asmo hari. Borroka luze baten ondoren, eta oztopo latzak gainditu eta gero, azkenean lortu zuten hogeita hamar mila libera

biltzea¹. Horrenbestez, bistan denez, guk ezin dugu izan ardo-rik, eperrik eta buru gainean erretiluak daramatzaten zerbitzari horietakorik, esan zuen. Ezin dugu izan besaulkirik, eta gela bat bakoitzarentzat. «Horrenbestez —esan zuen libururen batetik harturik aipua—, aurreragorako utzi beharko ditugu luxuak»².

Gogora ekarririk nola aritu ziren emakume haiek guztiak urterik urte lanean, bi mila libera biltzeko neke handiz, eta nola beltzak eta gorriak ikusi zituzten hogeita hamar mila libera biltzeko denen artean, suminak hartzen gaitu geure sexuaren txirotasun gaitzesgarriaren aurrean. Zertan ibili ziren gure amak, guri batere ondasunik ez uzteko? Sudurra hautseztatzen? Erakusleihenetan ikusmiran? Beren burua erakusten Monte-carloko eguzkitan? Argazki batzuk ageri ziren tximinia gaineko apalean. Maryren ama —argazkikoa bera bazen, behintzat— alfer hutsa izango zen agian bere denbora librean (hamahiru seme-alaba izan zituen, elizako ministro batekin), baina, hala izan bazen, bizimodu kaskarin eta lotsagaldu hark bere atseginen arrasto gutxi utzi zituen haren begitartean. Pertsona arrunt-arrunta zen; amona zahar bat, papar-orratz handi batez lotutako xal eskoziar batean bilduta. Zumezko besaulki batean eserita ageri zen, ur-txakur bat kamerara begira jarri nahian, argia piztu bezain laster txakurra mugituko dela ziur dakienaren aurpegiera jostari eta, aldi berean, atezuarekin. Negozio-munduan ibili balitz; zeta artifizialen fabrikatzaile bat

1. «Esan digutenez, hogeita hamar mila libera eskatu beharko genituzke, gutxienez. [...] Ez da hari egundoko kopuru handia, kontuan izanik gisa honetako kolegio bakarra egongo dela Britainia Handirako, Irlandarako eta kolonietarako, eta kontuan izanik zeinen erraza den mutilen eskoletarako dirutza galantak biltzea. Dena dela, kontuan izanik zeinen gutxik nahi duten emakumeak hezteak, ez dago gaizki». Lady Stephen, *Emily Davies and Girton College*.

2. Ahal zituzten sos guzti-guztiak aurreztu zituzten eraikuntza-lanerako, eta geroagorako utzi behar izan zuten luxu oro. R. Strachey, *The Cause*.

edo burtsako handiki bat izan balitz; berrehun edo hirurehun mila libera utzi balizkio Fernhami, aukera izango genuen gaur gauean hementxe biok lasai egoteko, arkeologiaz, botanikaz, antropologiaz, fisikaz, atomoaren izaeraz, matematikaz, astronomiaz, erlatibitateaz nahiz geografiaz berriketan. Seton andreak eta haren amak eta haren amaren amak dirua irabazteko arte aparta ikasi balute eta, haien aitek eta aitonek haien aurretik egin zuten moduan, beren dirua eman balute beren sexurako egokiak ziren laguntza, beka, katedra eta sariak diruz hornitzeko, arras modu txukunean afalduko genuen han goian guk biok bakarrik, txoriren bat eta botila bat ardo; eta etorkizunera begiratuko genuen, neurritz gaineko konfiantzarik gabe, eskuzabaltasunez hornitutako lanbideetako baten babespean emandako bizialdi atsegin eta ohoragarri bat irudikatuz. Aukera izango genuen esploratzeko zein idazteko; burua galtzeko munduko toki agurgarrien jiran; gogoetatsu begira jartzeko Partenoi-ko mailaditik; edo goizeko hamarretan bulegora joan eta lau eta erdietarako aise asko etxeratzeko, poesia pixka bat idaztera. Baina, Seton andrea eta hura bezalakoak negozio-munduan murgildu balira hamabost urterekin, ez zen existituko —eta horixe zen arrazoibide haren oztopo nagusia— Maryrik. Maryk zer zerritson horri guztiari?, galdetu nuen. Gortina artetik, urriko gau bare eta atsegina ikusten zen, eta pare bat izar zuhaitz horitzen hasien artean kateatuak. Prest al zegoen Mary uko egiteko berari zegokion puskari eta hango aire garbiagatik eta hango opil gozoengatik etengabe goresten zituen Eskoziako jolas eta borroken oroitzapenei (familia zorionsua izan baitzen berea, handia izanagatik), Fernhamek berrogeita hamar mila libera inguru eskuratu zitzan istant batean? Izan ere, kolegioak diruz hornitzeak familiaren suntsiketa zekarren berekin, dirutza bat egitea eta hamahiru seme-alaba haztea eramanezina baita edozein gizakirentzat. Azter ditzagun datuak, esan genuen. Lehenik eta

behin, haurra jaio arteko bederatziz hilabeteak ditugu. Haurra jaiotzen da orduan, eta bularra ematen pasatzen dira aurreneko hiru-lau hilabeteak. Gero, gutxienez bost urte eman behar dira haurrarekin, jolasten. Antza denez, ezin dira haurrak bakarrik utzi kalean. Errusian basatien moduan noraezean ikusi izan dituen jendeak dioenez, ez da, ez, batere ikuskizun atsegina. Era berean, bat eta bost urte bitarteko adinean taxutzen omen da gure izaera. Baldin eta Seton andrea, esan nuen, dirua irabazten aritu balitz, zer-nolakako oroitzapenak izango zenituen jolas eta borrokei buruz? Zer jakingo zenuen Eskoziari buruz, eta hango aire garbiari, opil gozoei eta gainerako guztiari buruz? Alferrik da halako galderak egitea, ordea, kasu horretan mundura sortua ere ez baitzinen izango. Bestalde, Seton andreak eta haren amak eta haren amaren amak lehenago ondasun handiak bildu, eta ondasun horiek kolegioaren eta liburutegiaren zimenduen azpian jarri balituzte zer gertatuko zen galdetzea ere alferrik da; batetik, dirurik irabaztea ezinezkoa zelako haientzat eta, bestetik, posible izan balitz, legeak ukatu egiten zielako berek irabazitako diruaren jabe izatea. Azken berrogeita zortzi urteetako kontua da Seton andreak bere diru propioa eduki ahal izatea. Izan ere, aurreko mende guztietan, senarra izango zen diruaren jabea, eta horrek izango zuen eraginik noski Seton andrea eta haren amak burtsatik urruti mantentzeko garaian. Irabazten ditudan sos guztiak —pentsatuko zuten— kendu egingo dizkirate, eta senarrak erabakitako moduan erabiliko dira, beka bat edo katedra bat diruz hornitzeko, agian, Balliolen nahiz Kingsen; horrenbestez, dirua irabazteak, ahalko banu ere, ez dit interes handirik pizten. Hobe halakoak senarraren esku uztea.

Nolanahi ere, errua ur-txakurrari begira zegoen amona zaharrena izan zein ez, argi zegoen, arrazoi bat edo beste tarteko, oso gaizki kudeatu zituztela gure amek beren egitekoak. Ezin

zen txakur txiki bat ere gorde «luxuetarako», eper eta ardota-rako, eskolazain eta belarguneetarako, liburu eta purutarako, liburutegi eta denbora-pasatarako. Lur soiletik horma soilak eraiki, horra zer egin zezaketen gehienez.

Beraz, leiho ondoan aritu ginen berriketan, milaka eta milaka lagunek gauero egiten duten moduan, gure azpian hedatzen zen hiri ospetsuko dorre eta kupuletara begira. Guztiz ederra zen ikuspegia, guztiz misteriotsua, udazkeneko ilargitan. Haurri zaharrak zuri-zuri eta ohoragarri ageri ziren. Han behean bildutako liburu guztiak etortzen zitzaizkion bati gogora; eta egurrez estalitako hormetatik zintzilik zeuden antzinako agintari eta pertsonaien koadroak; espaloian globo eta ilargi-erdi bitxiak marrazten zituzten beirateak; idazkun, oroitarri eta monumentuak; iturriak eta belarra; patio lasaietara ematen zuten gela lasaiak. Eta, barkatuko didazue burutazioa, baina burura etorri zitzaizkidan, halaber, miresgarritzko kea eta zurruta eta besaulki sakon eta alfonbra bigunak, eta gizalegea, jendetasuna eta duintasuna, luxuaren, intimitatearen eta erosotasunaren eskutik etorriak. Geure amek, hogeita hamar mila libera elkartzeko ere arazoak zituzten ama haiek, Saint Andrews elizako ministro batekin hamahiru seme-alaba izan zituzten geure ama haiek, ez ziguten, gero, ontasun haien guztien gisako ezer utzi.

Neure ostatura itzuli nintzen, beraz, eta, kale ilunetan barrena nindoalarik, hau eta beste ibili nuen gogoan, lanegun baten amaieran ohi den moduan. Eta hausnarrean ibili nintzen jakin nahirik Seton andreak zergatik ez zuen dirurik guri uzteko; eta zer-nolako eragina duen pobrezia gure gogoan; eta zer-nolako eragina duen aberastasunak gure gogoan; eta burura etorri zitzaizkidan goizean ikusi nituen agure bitxi haiek, lepo inguruan zeramatzaten larruzko motots haiekin; eta gogoratu

nintzen nola haietako bati txistu jotzean hura lasterka hasten zen; eta kaperako organoaren burrunban pentsatu nuen, eta liburutegiko ate itxietan; eta pentsatu nuen zeinen desatsegina den kanpoan utzia izatea; eta pentsatu nuen beharbada okerragoa dela barruan itxita egotea; eta, hantxe hausnarrean nindoala sexu baten segurtasun eta oparotasunaz eta bestea-
ren pobrezia eta segurtasun-gabeziak eta tradizioak eta haren gabeziak idazlearen gogoan duen eraginaz, azkenik pentsatu nuen bazela garaia egunaren azal zimurtua eta haren argudio, irudipen, amorr eta barre guztiak bildu, eta hesi-bazterrera botatzeko. Mila izar ari ziren zeruko handitasun mugagabea zeharkatzen. Bakarrik sentitzen zen bat, hantxe, gizarte igargaitzaren erdian. Gizaki guztiak lotan zeuden: etzanda, horizontal, mutu. Ez zen arimarik mugitzen Oxbridgeko kaleetan. Hoteleko atea ere hantxe ireki zen, esku ikusezin batek ukituta bezala; morroirik ere ez neukan han zain, oherako argia pizteko. Hain zen berandu.

Bi

Eszenatokia —zatozte nirekin, arren— aldatua zen. Hostoek erortzen jarraitzen zuten, baina Londresen orain, ez Oxbridgen. Irudika ezazue gela bat, beste mila gela bezalakoa, eta leiho bat, kapelu, kamioi eta autoen gainetik beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez. Oxbridgen bazkaldu eta afaldu eta gero, itxura batean bisita egin beharra zegoen British Museumera, zorritzarrez. Batek baztertu egin behar ditu sentipen haien alderdi pertsonal eta ustekabeko guztiak, haien fluido purua ateratzeko: egiaren esentzia-olioa. Izan ere, Oxbridgerako bisitak eta hango bazkari eta afariak galdera mordoa piztu zidaten. Zergatik edaten zuten gizonak ardoa eta emakumeek ura? Zergatik zen sexu bat hain oparoa eta bestea hain pobrea? Zer-nolako eragina du pobreziak literaturan? Zer baldintza behar dira artelanak sortzeko? Galdera horiek halako beste mila iradokitzen zituzten. Batek erantzunak behar zituen, ordea, ez galderak; eta erantzunik aurkitzekotan aurreiritzirik gabeko jakintsuengana jo beharra zegoen, ahozko liskarren eta gorputzaren nahasmenen gainetik goratu, eta beren arrazoibide eta ikerketen emaitzak British Museumen gordetako liburuetan eman dituzten jakintsuengana, hain zuzen ere. Izan ere, egia British Museumeko apaletan aurkitzerik ez badago, non ote da egia?, galdetu nion neure buruari koadernoia eta arkatza hartuta.

Koadernoaz eta arkatzaz hornituta, bada, neure buruan fidaturik eta jakin-minak jota, egiaren bila abiatu nintzen. Ateri zegoen, baina, hala ere, goibel. Museoaren inguruko kaleetan,

zabalik zeuden lurrazpiko ikaztegiak, eta hantxe amiltzen ziren etengabe zaku-zaparradak; lau gurpildun zalgurdiak espaloi ertzean gelditu, eta sokaz lotutako kutxak uzten zituzten lurrian, haien barruan bildurik zegoela, jo dezagun, fortuna edo babes bila edo neguan Bloomsburyko ostatu-etxeetan aurkitzekoa den beste edozein onura desiragarriren bila etorritako suitzar nahiz italiar familiaren baten arropa guztia. Gizon ahots-zakarrak han zebiltzan kalean gora kalean behera, landarez betetako beren eskorgekin. Batzuk oihuka zeuden; beste batzuk, kantuan. Londres fabrika bat bezalakoa zen. Makina bat bezalakoa. Atzera-aurrera ginderabiltzan, bere azalera leunean marrazkiren bat osatzeko. British Museuma fabrikaren beste atal bat zen. Ate birakariak ireki, eta hantxe zegoen bat, kupula erraldoi haren azpian, izen ospetsuz osatutako zerrenda batek inguratutako kopeta burusoil erraldoi hartan sortutako pentsamendu bat balitz bezala. Eskatzeko mahaira joan, fitxa bat hartu, katalogoko liburuak ireki, eta bost puntu horiek bost minutuko txundidura, harridura eta sinetsi ezina adierazten dute. Ba al duzue arrastorik emakumeei buruzko zenbat liburu idazten diren urte baten buruan? Ba al duzue arrastorik horietako zenbat diren gizonek idatziak? Konturatzen al zarete beharbada unibertsoan animaliarik ikertuena zaretela? Hantxe nintzen ni, koaderno eta arkatza eskuan, goiz guztia irakurtzen emateko asmoz, goiza bukatzerako neure koadernora egia ekartzea lortuko nuelakoan. Baina elefante saldo baten parekoa beharko nuke izan, eta armiarma oste baten parekoa, pentsatu nuen neure artean, bizialdirik luzeena eta begirik gehien omen duten animaliak ekarrita etsi-etsian gogora, eginkizun hari heltzeko. Altzairuzko atzaparrak eta letoizko mokoa behar nituzkeen oskol hartan barneratzeko. Nola lortuko nuen paper pilo hartan txertatutako egia aleak aurkitzea?, galdetu nion neure buruari, eta, etsipenak jota, han hasi nintzen goitik behera arakatzen

izenburu zerrenda luzea. Liburuen izenek ere ematen zidaten zer pentsatua. Sexua eta haren zerizana gai interesgarriak dira noski mediku zein biologoentzat, baina harrigarri eta azaltzeko zail egiten zitzaidan ikustea sexuak —emakumeak, alegia— berdin erakartzen zituela saiakeragile adeitsuak, eleberrigile iaioak, mutil gazte lizentziadunak, ikasketarik gabeko gizonak eta, antza, emakume ez izatea beste titulurik ez duten gizonak. Liburu haietako batzuk axalekoak eta barregarriak ziren, itxura batean; beste asko, aldiz, serioak eta profetikoak, moralistak eta aholku-emaileak. Aski zen izenburuak irakurtzea ezin esan ahala maisu eta apaiz irudikatzeko, beren mintzaleku eta pulpitueta igota, gai honi buruzko mintzaldietarako eman ohi den ordubeteko tarte luza gainditzen duten parrastadak botatzen. Fenomeno arras bitxia zen hori, eta, dirudienez —G letra kontsultatzera jo nuen—, gizonezkoei estu-estuki lotua. Emakumeek ez dute gizonen buruzko libururik idazten. Arindu ederra hartu nuen hori ikusita, zeren, aurrena gizonen emakumeen buruz idatzitako guztia irakurri behar banu, eta emakumeek gizonen buruz idatzitako guztia hurrena, ehun urtetik behin loratzen den aloe landarea birritan loratuko baitzen ni idazten hasterako. Beraz, dozena bat liburu zeharo modu arbitrarioan aukeratu eta gero, eskaera-orriak metalezko erretiluan utzi, eta nire txokoan itxaron nuen, egiaren esentzia-olioaren bila zebiltzan beste lagun batzuek inguratuta.

Zeri zor ote zitzaion desberdintasun bitxi hura?, galdetu nion neure buruari, britainiar zergapekoek beste zeregin batzuetarako ordaindutako orrien atzealdean gurdi-gurpilak marrazten nituelarik. Katalogo hark iradokitzen zuenaren arabera behintzat, zergatik dira emakumeak askoz interesgarriagoak gizonentzat, gizonak emakumeentzat baino? Gertakari txit bitxia iruditu zitzaidan hura, eta han ekin nion beren denbora emakumeen

buruzko liburuak idazten ematen duten gizonen bizitzak imajinatzeari, ea idazleok zaharrak ala gazteak ote ziren, ezkonduak ala ezkongabeak, sudur-gorriak ala konkordunak. Nolanahi ere, pixka bat lausengarria ere bada batek halako arreta pizten duela jakitea, non eta arreta hori ez datorren ezindu eta gaixoengandik soilik. Hausnarrean jarraitu nuen, harik eta, nik eskatutako liburu-oldea iritsi, eta nire pentsamendu arin haiek etenda gelditu ziren arte. Orduantxe hasi ziren komeriak. Oxbridgen ikerketa egiten trebatua izan den ikasleak badu noski metodoren bat, distrakzio oro alde batera utzi eta, artzainak ardiak arditegira nola, dagokion erantzuneraino gidatzeko bere galdera. Ondoan neukan ikaslea, adibidez, han ari zen zientzia-eskuliburu batetik ardura handiz kopiatu eta kopiatu, eta ziur nago esentzia-harriko ale puruak ateratzen zituela hamar minututik behin edo. Horixe adierazten zuten, behintzat, haren poz-kirrinkek. Baina, zoritxarrez, batek ez badu izan unibertsitete-ikasketarik, galdera bere arkatzerantz abiatu beharrean, itsumustuan aldentzen zaio, ehiza-txakur saldo batengandik ihesi doan artalde izutuaren modura. Irakasleak, maisuak, soziologoak, apaizak, eleberrigileak, saiakeragileak, kazetariak, emakume ez izatea beste titulurik ez duten gizonak ibiliak ziren nire galdera errazaren atzetik —alegia, zergatik diren pobreak emakume batzuk—, harik eta, galdera hori beste berrogeita hamar galdera bihurtu, eta berrogeita hamar galderok tarrapataka ur-lasterraren erdira jauzi egin, eta urak eraman zituen arte. Oharrez zirriborratuak neuzkan koadernoko orri guztiak. Nire orduko gogo-giroa zein zen ikus dezazuen, irakurri egingo dizkizuet ohar haietako batzuk. EMAKUMEAK ETA POBREZIA zuten izenburutzat, letra larriz, eta, haren azpian, honelatsuko zerrenda bat nuen, oso-osorik emakumeei buruz:

Erdi Aroko egoera
Fiji uharteetako ohiturak

Jainkosa gisa gurtuak
Moralki ahulagoak
Idealismoa
Ardura handiagoa
Polinesiako biztanleak, pubertaro-adina
Erakarmena
Sakrifizio gisa eskainiak
Burmuinaren tamaina txikia
Subkontziente sakonagoa
Ile gutxiago gorputzean
Gutxiagotasun mental, moral eta fisikoa
Haurrenganako maitasuna
Bizitza luzeagoa
Gihar ahulagoak
Bihotzaldien indarra
Zoro-haizeak
Goi-mailako heziketa
Shakespeareren iritzia
Lord Birkenheaden iritzia
Inge deanaren iritzia
La Bruyèreren iritzia
Johnson doktorearen iritzia
Browning jaunaren iritzia

Hona iritsita, arnasa hartu, eta hauxe erantsi nuen orriaren ertzean: Samuel Butlerrek zergatik dio «Gizon jakintsuek ez dute inoiz esaten zer iritzi duten emakumeei buruz»? Gizon jakintsuek, antza, ez dute beste hizpiderik. Guztiz tamalgarria da, ordea, jarraitu nuen, bizkarra aulkian atzera bota eta han goiko kupula erraldoira begira, pentsamendu soil baina ordurako estutu samar bat nintzela, gizon jakintsuek hain iritzi desberdinek izatea emakumeei buruz. Hona hemen Popek zer dioen:

Emakume gehienek ez dute batere nortasunik.

Eta hona hemen La Bruyèrek zer dioen:

Emakumeak muturrekoak dira: gizonak baino hobek
edo haiek baino okerragoak...

Kontraesan nabarmena, garai bereko behatzaile zorrotz haien artekoa. Emakumeak gai al dira ikasteko? Napoleonen ustez, ezinezkoa zen emakumeek ezer ikastea. Johnson doktoreak kontrakoa pentsatzen zuen¹. Ba al dute arimarik ala ez? Basati batzuek diote ezetz, ez dutela arimarik. Beste batzuek, aitzitik, izaki erdi jainkotiarizat dituzte, eta, gurtu egiten dituzte horregatik². Zenbait jakintsuren arabera, arinagoak dira burmuin aldetik; beste batzuen iritziz, berriz, sakonagoa da haien kontzientzia. Goethek ohoratu egiten zituen; Mussolinik mespretxatu egiten ditu. Edonora begiratuta ere, gizonak bazuten iritziren bat emakumeei buruz, guztiak ere desberdinak. Ezinezkoa zen ondorio garbirik ateratzea, pentsatu nuen aldameneko irakurleari inbidiaz begiratuta: hantxe ari zen, laburpen txukun-txukunak egiten, A edo B edo C bat jarrita goiburuan; nire koadernoak, aldiz, gudu-zelai bat zen zirriborro kontraesankorrek hartua. Penagarria zen, aztoragarria zen, iraingarria zen. Egiak irrist egin zidan hatzen artean; azken tantaraino ihes egin ere.

Neure artean egin nuen ezin nintzela inolaz ere etxera itzuli esanez emakumeek gorputzean ile gutxiago dutela gizonak

1. «Gizonak badakite jai dutela emakumeekin lehiatuz gero, eta emakumerik ahulen eta ez-jakinenak aukeratzen dituzte, horregatik. Hala pentsatuko ez balute, ez litzaielako axolako bere adina jakitea haiek». [...] Sexu ahularekiko begirunez eta zintzo jokatzearren, aitortu beharra daukat, aurrerago izan genuen elkarrizketa batean onartu zidala serio ari zela hitz haiek esan zituenean». Boswell, *The Journal of a Tour to the Hebrides*.

2. «Antzinako germaniarrek uste zuten emakumeek halako izaera sakratu bat zutela eta, ondorioz, haiengana jotzen zuten kontsultak egitera, orakuluak balira bezala». Frazer, *Golden Bough*.

baino, eta polinesiarrak bederatzi urterekin iristen direla pubertarora... ala hemeretzi ziren? Nahasmen haren erdian, nire idazkera ere ulertezina zitzaidan ordurako. Ezin nuen, ez, horretara mugatu emakumeei eta literaturari buruzko ikerketari nik egindako ekarpena. Lotsagarri samarra zen, goiz guztia lanean eman, eta ez izatea ezer sendoago edo errespetagarriagorik erakusteko. Eta E-ren (labur beharrez, hala deitzen hasia bainintzen emakumeari) iraganeko egia aurkitzeko gai ez banintzen, zertarako saiatu etorkizuneko E-rekin? Denboragaltze hutsa iruditu zitzaidan espezializazio-eremutat emakumeak eta emakumeek edozein alorretan (politikan, haurrengan, soldatetan, moralean) duten eragina ikergai duten gizonetako aditu haiek guztiak kontsultatzen ibiltzea, oso ugariak eta eskolatuak izanagatik gizonok. Batek lasai asko utz litzake haien liburuak, ireki ere egin gabe.

Nagiak eta etsipenak jota hausnarrean nenbilela, baina, marrazki bat zirriboratu nuen oharkabean, aldameneko laguna bezala ondorioren bat idazten aritu beharrean. Aurpegi bat marraztu nuen, irudi bat: Von X irakaslearen aurpegia eta irudia, *The Mental, Moral, and Physical Inferiority of the Female Sex* izeneko lan mardularen idazketan murgilduta. Nire marrazkian ez zen erakargarri agertzen emakumeentzat. Gorpuzkera sendoa zuen eta masailezur indartsuak eta, hori orekatzeko, txiki-txikiak begiak eta gorri-gorria aurpegia. Idatzi ahala zomorro gaizto bat akabatzen ariko balitz bezala, papera lumaz ziztarazten zion zirrara baten lilurapean ari zela ematen zuen, baina, zomorroa akabatuta ere ezin pozik gelditu, eta zomorroak akabatzen jarraitu behar, bai baitzen oraindik amorrúa eta sumina pizten zizkion zer bait. Emaztea ote zen arrazoa?, pentsatu nuen neure marrazkiari begira. Maiteminduta ote zegoen emaztea zalditeriako ofizial batez? Gizon lerden eta

dotore bat ote zen zalditeriako ofizial hori, astrakanez jantzia? Freuden teoria erabiliz galde genezake ea txikitan, sehaskan zela, neska polit batek barre egin ote zion isekaz. Sehaskan ere, pentsatu nuen, ez baitzen polit horietakoa izango gure irakaslea. Arrazoiak arrazoi, amorruez beterik eta ezin zatarrago ageri zen nire marrazkian, emakumeen gutxiagotasun mental, moral eta fisikoari buruzko bere liburutzarra idazten ari zela. Alferrick galdutako goiz bat amaitzeko modu nagia zen irudiak marraztea. Dena dela, nagitasun horretantxe azaleratzen dira, geure ametsetan, ezkutuan dauden egiak. Koadernora begiratu, eta, psikoanaliaren mailara jasotzerik merezi ez duen oinarri-oinarrizko ariketa psikologiko batek erakutsi zidanez, amorruez marraztuta zegoen irakasle amorratuaren zirriborroa. Amorruak harrapatu zidan arkatza, ni ametsetan nengoela. Amorruak zer egiten zuen han, baina? Jakin-mina, nahasmena, josteta, asperdura... emozio horiek guztiak identifikatu eta izendatu nituen, goizean zehar sortu ahala. Amorruea, suge beltz hori, zelatan ote zegoen haien artean? Marrazkiak baietz zioen. Eta hantxe eraman ninduen, zalantza-izpirik gabe, nigan deabru hori piztu zuen liburura, esaldira: irakasleak emakumeen gutxiagotasun mental, moral eta fisikoari buruz egindako baieztapenera, hain zuzen ere. Jauzi egin zidan bihotzak. Kiskaltzen nituen masailak. Gorri-gorri jarri nintzen, amorrubizian. Ez zen harritzekoa; bai, ordea, ergel samarra. Korapiloa aurrez egindako gorbata daraman eta hamabost egunean bizarra egin ez duen gizontto bat baino gutxiago zarela entzutea ez da, noski, gauza atsegina, pentsatu nuen ondoan nuen ikasleari begira. Batek bere haize txoroak ditu. Giza izaera izango da hori, pentsatu nuen, eta han hasi nintzen gurdi-gurpilak eta biribilak marrazten irakasle amorratuaren aurpegiaren gainean, harik eta, giza itxura eta esanahi guztia galduta, sugarrak hartuta kiskaltzen dagoen zuhaixka baten tankera hartu zuen arte.

Hampstead Heatheko tontorrean kiskaltzen zegoen ipurterre bat besterik ez zen irakaslea orain. Laster zen argitua eta baretua neure amorrua, baina jakin-minak hantxe jarraitzen zuen. Nola azaldu irakasleen amorrua? Zergatik zeuden amorratuta? Izan ere, liburu haiek utzitako arrastoa aztertzerakoan, beti nabari zen halako su bat. Era askotara agertzen zen su hori: satira gisa, sentimendu gisa, jakin-min gisa, gaitzespen gisa. Baina bazen askotan beste elementu bat tartean, berehala identifikatzekoa ez zena. Amorru deitu nion nik. Era askotako beste emozio batzuekin nahastutako amorru gorde bat zen, baina. Eta, haren ondorio bitxiei erreparaturik, amorru mozorrotu eta konplexu bat zen, ez amorru simple eta nabari bat.

Arrazoa edozein dela ere, liburu haietako bakar batek ere ez dit balio nire helburuetarako, pentsatu nuen mahai gaineko piloari begira. Ez dit balio zientziaren ikuspegitik, nahiz eta gizakiaren ikuspegitik gauza jakingarri, interesgarri, aspergarri ugari eta Fiji uharteetako biztanleen ohitura eta datu bitxi askoak eskaini. Emozioaren argi gorritan idatzita zeuden, ez egiaren argi zuritan. Eskatzeko mahaira leheneratu beharko nituen liburuak, beraz, abaraska erraldoiko beren gelaxketara itzuliak izan zitezten. Goiz guztia lanean jardun eta gero garbi atera nuen bakarra amorruren kontua izan zen. Irakasleak —zaku berean sartu nituen guztiak— amorratuta zeuden. Zergatik, baina?, galdetu nion neure buruari liburuak itzulitakoan; zergatik?, errepikatu nuen, kolomadiaren azpian zutik, usoz eta historiaurreko kanoez inguratuta. Eta, buruan galdera hori nerabilela, bazkaltzeko leku baten bila abiatu nintzen. Zein ote da oraingoz amorru deituko diodan zer horren benetako zerizana? Horra hor igarkizun bat British Museum inguruko jatetxe txiki batean zerbitzatua izan arte iraun zidana. Nire aurreko bazkaltiarren batek arratsaldeko egunkariaren eguerdiko edizioa

utzia zuen aulki batean, eta, bazkaria zerbitzatzeko zain, lerro-buruak irakurtzeari eman nintzaion arreta handirik gabe. Letra handiko lerro batek orri guztia hartzen zuen alderik alde. Norbaitek emaitza bikaina lortu zuen Hego Afrikan. Lerro meheago batzuek ziotenez, Genevan zen sir Austen Chamberlain. Soto batean, harakin-aizkora bat aurkitu zuten, giza ile batzuk zeuzkana. ____ epaile jauna emakumeen lotsagabekieriaz mintzatu zen Dibortzio Auzitegian. Albiste gehiago ere bazetozen, egunkariko orriak zipriztinduz. Kalifornian, emakume aktore bat, mendi-tontor batetik beheratzean, airean zintzilik gelditu zen. Eguraldi lainotsua omen zetorren. Geure planetara etorritako bisitaririk iheskorrenak ere, pentsatu nuen, egunkari hura aurkituz gero argi ikusiko luke, adibide gutxi haiek irakurrita, patriarkatuaren mende dagoela Ingalaterra. Bere senean dagoen edonork ikusiko luke irakaslearen nagusitasun erabatekoa. Harenak ziren boterea, dirua eta eragina. Hura zen egunkariaren jabea, zuzendaria eta zuzendariordea. Hura zen Atzerri ministroa eta epailea. Hura zen cricket-jokalaria; eta harenak, lasterketa-zaldiak eta yateak. Hura zen akziodunei ehuneko berrehun ordaintzen dien enpresako zuzendaria. Hark ematen zituen milioiak berak zuzendutako ongintza-elkarte eta kolegioentzat. Hura izan zen emakume aktorea airean zintzilikatu zuena. Hark erabakiko du harakin-aizkora aurkitutako ileak gizaki batenak diren ala ez eta hura izango da hiltzailea errugabetu edo kondenatuko, urkatu edo libre utziko duena. Lainoa ez beste guztia haren kontrolpean zegoen, itxura batean. Eta, hala eta guztiz ere, amorratuta zegoen. Amorratuta zegoela honengatik jakin nuen: emakumeei buruz idatzi zuena irakurtzean, ez nuen irakaslearen hitzetan pentsatu, irakaslearengan baizik. Gogo barez argudiatzen duen argudiatzaileak argudioan baino ez du pentsatzen, eta irakurlea orobat beharturik gertatzen da argudioan pentsatzera. Emakumeei buruz gogo barez idatzi

balu, proba ukaezinak erabili balitu bere arrazoibidea frogatzeko, eta erakutsi ez balu jaidura zantzurik emaitza jakin batera eta ez beste batera iristeko, bat ez zen amorratuko. Batek besterik gabe onartuko zituen gauzak, ilarra berdea eta kanarioa horria dela onartzen duen modu berean. Hala izan bedi, esango nuen. Haren amorruek amorrarazi ninduen, ordea. Eta, hala ere, egin nuen neure artean, egunkariko orriak pasatuz, zentzugabea zen hain gizon boteretsua amorratuta egotea. Ala amorruek ote da boterearen zerbitzura dagoen iratxo eskurakoa, nolabait ere?, galdetu nion neure buruari. Aberats jendea, adibidez, amorratuta egoten da maiz, behartsuek ondasunak lapurtu nahi dizkieten errezeloz. Irakasleak —edo patriarkak, izen zehatzagoa ematearren— arrazoi beragatik egon litezke amorratuta neurri batean, baina badute amorratuta egoteko beste arrazoi bat, ez hain nabarmena. Izan zitekeen batere «amorratuta» ez egotea, haietako asko gizon eredugarri, miresgarri eta leialak baitziren beren bizitza pribatuko harremanetan. Litekeena da emakumeen gutxiagotasuna hainbesteko indarrez azpimarratu zuenean, irakaslea ez egotea kezkatuta emakumeen gutxiagotasunarekin, berearekin baizik. Horixe zen hain gar handiz babesten ari zena, altxor ezin preziatuagoa baitzen berarentzat. Sexu biantzat da bizitza —eta begira gelditu nintzaien, nolako nekez urratzen zuten bidea, elkarren kontrako leihan— borroka latz, gogor eta etengabe bat. Erraldoi baten ausardi eta kemena eskatzen du. Ororen gainetik, ilusioz eginak garenez, beharbada, geure buruan konfiantza izatea eskatzen digu. Konfiantza hori gabe, sehaskako haurrak bezalakoak gara. Eta zein ote nolakotasun zehazgaitz baina, aldi berean, ezin preziatuago hori sortzeko biderik azkarrena? Bada, besteak norbera baino gutxiago direla pentsatzea. Besteen aldean batek berezko nagusitasun bat duela sentitzea —izan liteke aberastasuna, gizarte-maila, sudur zuzen

bat zein aitonaren erretratu bat, Romneyk egina—, giza irudimenaren baliabide patetikoek ez baitute mugarik. Horregatik da hain garrantzitsua, konkistatu eta agindu behar duen patriarkarentzat, sentitzea jendetza handi bat — gizadiaren erdia, alegia— bera baino gutxiago dela berez. Hori izango da haren boterearen iturri nagusietako bat, ziur asko. Baina eraman dezagun hausnarketa hau bizitza errealerara, pentsatu nuen. Horregatik sumatzen ote ditu batek halako buruhauste psikologikoak eguneroko bizitzaren ertzetan? Horregatik gelditu nintzen zur eta lur lehengo egunean, noiz eta Z-k, gizonik gizatiarren eta umilenak, Rebecca Westen liburu bat hartu eta, hango pasarte bat irakurritz, bota zuenean: «Feminista lotsagabea! Ez du, bada, esaten gizonak esnobak dira!»? Asalduzko hitz niretzat hain harrigarri haiek —beste sexuari buruz adierazpen ziurrenik egiazko nahiz ez losintxariak egite hutsak bihurtzen al zuen feminista lotsagabea West andereñoa?— ez ziren harrokeria zauritu baten deiadar soila, bere buruan sinesteko eskubide urratuagatik protesta ere baziren. Gizonaren berezko neurria bikoizteko ahalmen magiko eta liluragarria duten ispiluak izan dira emakumeak menderik mende. Ahalmen hori gabe, aintzira eta oihan izaten jarraituko luke munduak, eta ezezagun litzaizkiguke gerretako loriak. Hortxe jarraituko genuke oreinen siluetak zirriborratzen ardi-hezurren kondarretan, eta suharriak aldatzen ardi-larruen edo geure gustu baldarrak aukeratutako apaingarrien truk. Super-gizakiak eta Patuaren Hatzak ez ziren inoiz existituko. Tsarrak eta kaisarrak ez zuten sekula koroarik jantziko edo galduko. Gizarte zibilizatueta duten erabilera gorabehera, funtsezkoak dira ispiluak ekintza bortitz eta heroiko orotarako. Horregatik nabarmentzen dute hainbeste emakumeen gutxiagotasuna Napoleonek eta Mussolinik: emakumeak gutxiago ez balira handiago agertzeari utziko lioketelako berek. Horrek azaltzen du

neurri batean emakumeak zergatik diren hain beharrezkoak gizonentzat. Eta azaltzen du, halaber, emakumeen kritikek zenbateraino aztoratzen dituzten gizonak; emakumeek zergatik ezin dieten gizonen esan halako liburua txarra dela, halako koa-droa kaskarra, edo dena delakoa, askoz ere min eta amorru handiagoa eragin gabe kritika hori gizon batek eginez gero eragingo lukeena baino. Emakumeak egia esaten hasiz gero, txikiagotu egiten baita ispiluko irudia, eta urritu, gizonen bizitzarako egokitasuna. Nola jarraituko dute gizonek jendea epaitzen, indigenak zibilizatzen, legeak egiten, liburuak idazten, dotore janzten eta parrastadak botatzen oturuntzetan, baldin eta ez badute, gosalorduan eta afalorduan, beren burua bikoizturik ikusten ispiluan? Halaxe jardun nuen hausnarrean, ogia papurtu, ka-feari eragin eta tarteka-marteka kaleko jendeari begiratzen nio-la. Ispiluak eskaintzen duen ikuspegiak berebiziko garrantzia du, bizitasuna indartzen baitu, eta nerbio-sistema suspertzen. Hura gabe, bertan hilko da gizona, kokainaz gabetutako droga-zalea bezalaxe. Ilusio horrek sorginduta joaten dira lanera kallean dabiltzan pertsonen erdiak, pentsatu nuen leihotik kanpora begira. Ilusio horren argi gozotan janzten dituzte kapelu eta berokiak goizero. Konfiantzaz hasten dute eguna, adoretzu, sentituz Smith andereñoarenean desiratzen daudela berak han ager daitezen tea hartzeko orduan. Horregatik hitz egiten dute halako konfiantzaz, halako segurtasunez, eta horrek ondorio sakonak ditu bizitza publikoan eta albo-ohar bitxi askoak eragiten ditu pentsamendu pribatuan.

Beste sexuaren psikologiaren gai arriskutsu eta liluragarria — espero dudana ikergai hartuko duzuela urtean bostehun libera dituzuenean— eta hari buruzko ekarpenok etenda gelditu ziren ordaintzeko unea iritsita. Guztira, bost shilling eta bederratzi penny. Hamar shillingeko billetea eman nion zerbitzariari,

eta diru xehe bila joan zen. Hamar shillingeko beste billete bat nuen diru-zorroan; horri erreparatu nion, txundituta naukalako nire diru-zorroak hamar shillingeko billeteak automatikoki sortzeko duen abildadeak. Ireki, eta hortxe daude hamar shillingak. Gizarteak oilaskoa eta kafea, ohea eta ostatua ematen dizkit, haren izen bera izate hutsagatik izeba batek utzi zizkidan paper puska batzuen kopuru zehatz baten truke.

Nire izeba, Mary Beton, zalditik erorita hil zen, Mumbain paseotxo bat egitera atera zen batean. Herentziaren albistea gauze jaso nuen, emakumeei boto-eskubidea emateko legea onartzen ari ziren une bertsuan. Notario baten gutuna iritsi zen nire postontzira, eta hura irekitzean jakin nuen urtean bostehun libera utzi zizkidala betiko. Bietatik —botoa eta dirua—, aitortu beharra daukat askoz ere garrantzitsuagoa iruditu zitzaidala dirua. Ordura arte, egunkarietan lantxoak nola edo hala inguratuz ateratzen nuen bizimodua, asto-erakusketen, ezkontzen eta halakoen berri emanez. Gutun-azalak idazten ere irabaziak nituen libera batzuk, bai eta amona zaharrei irakurriz, lore artifizialak eginez eta alfabetoa irakatsiz haurtzaindegi bateko haur txikiei. Horiexek ziren 1918 aurretik emakumeek baimenduta zeuzkaten lanbide nagusiak. Azaldu beharrik ez dago lan horiek zeinen gogorrek diren, ezagutuko duzue-eta halakoetan jardundako emakumerik; era berean, azaldu beharrik ez dago zeinen zaila den lanean irabazitako dirutik bizitzea, zeuek ere saiatuko zineten eta. Bi horiek baino oinaze latzagoa iruditzen zait, hala ere, egun haiek nigan ereindako beldurraren eta mingostasunaren pozoia. Hasteko, batek nahi ez dituen lanak egiten ibili beharra zegoen beti, esklaboen modura ibili ere, hau eta beste lausengatzen, ez beti ezinbestean, nahiz eta beharrezkoa zirudien eta gauza gehiegi zegoen jokoan; bestalde, hor zegoen dohain bat, txikitxoa baina guztiz preziatua haren jabearentzat, ezkutuan

gordetzeak sekulako oinazea eragiten duena, zimelduz zihoana, eta harekin batera neu eta neure arima. Udaberriko loreak herdoildu eta zuhaitzen bihotza karraskatzen duen ugerra bihurtu zen hura. Dena dela, nioen bezala, hil egin zen nire izeba, eta, hamar shillingeko billete bat aldatzen dudan bakoitzean, herdoil eta uger horren puskatxo bat desagertzen da eta badoaz beldurra eta mingostasuna. Izan ere, pentsatu nuen txanponak diru-zorroan sartu eta egun haietako mingostasuna gogoratuz, harritzekoa da aldartea zenbateraino aldatzen digun diru-sarrerera finkoa izateak. Munduan ez dago neure bostehun liberak kenduko dizkidan indarrik. Niretzat dira betiko janaria, aterpea eta arropa. Eta horrekin ez dira lana eta nekea soilik amaitzen, gorrotoa eta mingostasuna ere bai. Ez dut gizonik gorrotatu beharrik; ezin dit minik eman. Ez dut gizonik losintxatu beharrik; ez du ezer niri eskaintzeko. Ia oharkabean, beste jarrera bat hartuz joan nintzen gizadiaren beste erdiarekiko. Ez zeukan zentzurik klase edo sexu jakin bati botatzea errua, bere osotasunean. Jende-multzo handiek ez dute inoiz erantzukizunik izaten beren ekintzen gainean. Beren kontrolpean ez dauden senei jarraitzen diete. Haiek ere, patriarkek eta irakasleek ere, arazo ugari izaten dituzte, eta oztopo latzak gainditu behar izaten dituzte. Haien heziketa nirea bezain akastuna izan da, zenbait alorretan. Niri bezainbesteko huts handiak eragin dizkie. Egia da haiek dirua eta boterea dutela, baina, ordainetan, hor daramate bularrean arrano bat, putre bat, gibela erauzi eta birrikak mokokatuko dizkiena, sekula eta betiko: jabetzaren grina, besteen lur eta ondasunak nahi izatera bultzatzen dituen garra; mugak eta banderak, gerraontziak eta gas pozoitsuak asmatzera, eta beren bizia eta beren haurrena eskaintzera eramaten dituen. Zoazte paseoan Admiralty Archera (monumentu horretara iritsia nintzen) edo trofeo eta kanoiei eskainitako beste edozein etorbidetara, eta hausnar egizue han ospatzen den loria

motaz. Ikusi, bestela, udaberriko eguzkitan burtsako agentea eta abokatu aparta eraikinean sartzen, zertarako eta diru gehiago eta gehiago irabazteko, nahiz eta gauza jakina den nahikoa direla urtean bostehun libera eguzkitan ederki bizitzeko. Garratza behar du halako grinak izateak, egin nuen neure artean. Bizitzako baldintzen ondorio dira, zibilizazio-gabeziaren fruitu, pentsatu nuen, Cambridgeko dukearen estatuari begira, buruan zeraman hiru puntako kapeluko lumei bereziki, lumok inoiz gutxitan jasoko zuten arreta biziaz. Eta, oztopo horiez konturatzean, beldurra eta mingostasuna erruki eta tolerantzia bihurtuz joan ziren; eta pare bat urteren buruan, desagertuak ziren biak, eta arindurik handiena iritsi zen: gauzetan diren horretan pentsatzeko askatasuna. Eraikin hori, adibidez, gus-tukoa dut ala ez? Koadro hori polita da ala ez? Liburu hori ona ala txarra iruditzen zait? Izebaren herentziak zeru zabala utzi zidan agerian, eta zeru zabal horren ikusmira eskaini, Miltonek sekula eta betiko agur gitea gomendatzen zidan jaun itzaltsua-ren iruditzarraren orde.

Gogoeta eta pentsamendu haietan nengoela, etxerantz itzuli nintzen ibai-bazterretik. Kaleko argiak pizten hasiak ziren, eta egundoko aldaketa gertatua zen Londresen goizaz geroztik. Ematen zuen makinatza hark, egun guztian lanean jardun eta gero, zerbait kilikagarri eta polit-politaren metro batzuk egin zituela gure laguntzarekin: begi gorri dirdiratsuko oihal gartsu bat, orro egitean arnas beroa botatzen zuen munstro lehoikara bat. Haizeak ere bandera bat bezala haizatua zirudien, etxeak astindu eta oholesiak inarrostean.

Nire kalekkan, ordea, etxeko giroa zen nagusi. Margolaria eskaileratik behera zetorren; haurtzaina etxera bidean zihoan, gurditxoari bultzaka, haurrei afaria emateko; ikatz-saltzailea

zaku hutsak tolesten eta pilatzen ari zen, eta barazki-dendako andrea, berriz, eguneko irabaziak zenbatzen, eskuak eskularru gorritan bilduta. Baina hain nindukan bereganatua nire bizkar utzi zenuten arazoak, ezinezkoa baitzitzaidan ohiko irudi haiek ikusi, eta neure gai nagusiarekin ez lotzea. Pentsatu nuen orain askoz ere zailagoa dela, mende bat atzera baino, lanbide horietatik garrantzitsuena eta beharrezkoena zein den erabakitzea. Zer da hobea, ikatz-saltzaile izatea, ala haurtzain? Zortzi seme-alaba hazitako garbitzaileak probetxu gutxiago al dakarkio munduari, ehun mila libera irabazi dituen abokatuak baino? Alferrik da halako galderak egitea, ezin baititu inork erantzun. Garbitzaileen eta abokatuen balio erlatiboa hamarkada batetik bestera handitu edo txikitzeaz gain, oraindik ere ez dugu haien egungo balioa neurtzeko bitartekorik. Ergel samarra izan nintzen emakumeei buruzko arrazoibide honen eta haren «proba ukaezinak» eskatuta irakasleari. Batek zehazterik balu ere dohain jakin batek une jakin batean duen balioa, aldatuz doaz balio horiek, eta, hemendik ehun urtera, guztiz bestelakoak izango dira, ziurrenik. Gainera, ehun urte barru, pentsatu nuen atarira iritsita, emakumeak ez dira gehiago sexu babestua izango. Logikoki, iraganean galaraziak izan zituzten jarduera eta jardun guztietan parte hartuko dute. Haurtzainak ikatza banatuko du. Dendako andreak lokomotorea gidatuko du. Desagertu egingo dira, bestalde, emakumeak sexu babestua ziren garaian bildutako datuetan oinarritutako suposizio guztiak; emakumeak, apaizak eta lorazainak luzarago bizi direlako ustea, adibidez (soldadu-talde bat kalean behera pasatu zen orduantxe). Babes hori kendu, esfortzu eta jarduera berdinak eginarazi eta soldadu nahiz marinela, lokomotore-gidari nahiz kaiko langile bihurtuz gero, emakumeak ez al dira askoz gazteago hiltzen hasiko gizonak baino, harik eta egunen batean gizon batek esango duen arte «Emakume bat ikusi dut gaur», garai ba-

tean «Hegazkin bat ikusi dut gaur» esaten zen moduan? Edozer gerta daiteke emakume izateak langintza babestua izateari uzten dionean, pentsatu nuen atea irekitzearekin batera. Baina horrek guztiak zer ikusteko du nire hitzaldiarekin, emakumeekin eta literaturarekin?, pentsatu nuen etxeko ataria zeharkatzean.

HIRU

Etsigarri zitzaidan baieztapen garrantzitsurik gabe, datu egiazko-rik gabe etxeratzea. Emakumeak pobreagoak dira gizonak baino honengatik edo horrengatik. Hobe zen, beharbada, egia bilatze-ari utzi, eta iritzi-olde bat jasotzea batek buruan, laba bezain beroa eta ontziak garbitzeko ura bezain margula. Hobe zen gortinak ixtea, distrakzio oro baztertzea, argia piztea, ikerketa mugatzea eta, iritziak ez baizik egitateak jasotzen dituen aldetik, historiala-riarengana jotzea, emakumeak nola bizi ziren galdetzeko, baina ez menderik mende, baizik eta Elizabeth erreginaren garaiko Ingalaterran, esate baterako.

Betiko misterioa baita emakumeek lerrorik ere ez idatzi izana orduko literatura bikain hartan, kontuan izanik gizonen erdiak behintzat gai zirela, itxura batean, olerkiak eta sonetoak idazteko. Zer baldintzatan bizi ziren emakumeak?, galdetu nion neure buruari. Literatura —irudimenezko idazlanak alegia— ez baita harri-koskorak bezala erortzen lurrera, zientzian gerta litekeen moduan; armiarma-sare bat bezalako da literatura, bizitzari lotua lau ertzetatik, oso arinki bada ere. Lotura hori hautemanezina da askotan; Shakespeareren antzezlanek, adibidez, beren baitatik esekiak dirudite. Baina armiarma-saretik tira egin, ertz batetik zintzilikatu eta erditik urratuz gero, konturatzen gara sareok ez direla izate gorpuzgabe batzuek airean ehundutako egitura batzuk, giza sufrimenduaren emaitza baizik, eta osasuna, dirua, bizi garen etxea eta halako gauza txit materialei loturik datoz.

Historiako liburuen apalera jo nuen, beraz, eta azken-azkene-tako bat hartu nuen: Trevelyan irakaslearen *History of England*. Berriro ere «Emakumeak, haien egoera» sarrera bilatu nuen, eta han adierazitako orrialdera jo nuen. «Emaztea jipoitzea —irakurri nuen— gizonen eskubide zilegia zen, eta lotsarik gabe jokatzeko zuten hala goi-mailako klaseek nola behekoek. [...] Era berean —jarraitzen zuen historialariak—, gurasoek aukeratutako gizonarekin ezkontzeari uko egiten zion alaba ondorio larriak jasatera arriskatzen zen: giltzapetu, jipoitu edo arrastaka erabiliko zuten, iritzi publikoan inolako zalapartarik eragin gabe. Ezkontza ez zen bihotzari zegokion kontu bat, familien diru-goseari zegokiona baizik, goi-mailako klase “gizabidetsuetan” bereziki. [...] Ezkon-hitza ezkontideetako bat nahiz biak oraindik sehaskan zeudela ematen zen askotan, eta haurtzainaren ardurapean egoteari utzi bezain laster egin ohi zen ezkontza». Hori zen 1470eko egoera, Chaucerren garaitik denbora gutxira. Emakumeen egoerari buruzko hurrengo erreferentzia berrehun urte geroago aurkitzen dugu, Stuartarren garaian. «Salbuespen izaten jarraitzen zuen goi-mailako eta klase ertaineko emakumeek beren senarra aukeratu ahal izateak; emakumeari senarra esleitu bezain laster, jaun eta jabe bihurtzen zen gizona, legeek eta ohiturek agintzen zuten neurrian behintzat. Nolanahi ere —adierazi zuen Trevelyan irakasleak— ez Shakespeareren emakumeei ez XVII. mendeko oroitzapen-liburuetakoei (Verneytarreni eta Hutchinsontarrei buruzko liburuetan agertzen zirenei, esaterako), ez zitzaion izaera eta nortasunik falta». Izan ere, Kleopatra oso bere kasako emakumea izango zen, noski; bestalde, pentsatzekoa da lady Macbethen bere asmo eta gogo propioak izango zituela, eta, azkenik, Rosalind neska eder-ederra izango zela ondoriozta dezakegu. Trevelyan irakasleak egia biribila besterik ez dio azpimarratzen duelarik Shakespeareren emakumeei ez zitzaie

falta izaerarik ez nortasunik. Historialari izan gabe, batek harago jo, eta esan lezake emakumeek itsasargien modura eman dutela argia poeta guztien lan guztietan, mundua mundu denetik. Hortxe ditugu Klitemnestra, Antígona, Kleopatra, lady Macbeth, Fedra, Kresida, Rosalind, Desdemona eta Malfiko dukesa, antzerkigileen artean, eta Millamant, Clarissa, Becky Sharp, Anna Karenina, Emma Bovary eta Guermantes andrea, prosalarien artean. Oldeka datozkit izenak gogora eta esango nuke haiei ere ez zitzaieला falta «izaerarik eta nortasunik». Izan ere, emakumeak gizonen literaturan baino existitu ez balira, batek pentsatuko luke pertsona txit garrantzitsuak izan zirela, gisa askotakoak, heroikoak eta zakurrak, eskuzabalak eta zekenak, guztizko ederrak eta ezin zatarragoak, gizonak beste eta, zenbaiten iritziz, are gehiago ere¹. Horiek, baina, literaturako emakumeak dira. Errealitatean, Trevelyan irakasleak azpimarratzen duenez, giltzapetu, jipoitu eta arrastaka erabiltzen zituzten.

Nahasketa bitxi samarra ateratzen da hortik. Guztizko garrantzia du emakumeak irudimenean, baina hutsaren parekoa da praktikan. Nonahi agertzen zaigu poesian, lehen orritik azkenerraino; historian, aldiz, ez dago haren arrastorik. Errege eta

1. «Gertakari bitxia eta ia ulertezina da, gaurdaino ere, Atenaren hirian, emakumeak, Ekialdeko odaliska eta esklaboen modura giltzapean edukitzen zituzten hirian, maila goreneko pertsonaia femeninoak sortu izana antzerkian: hor ditugu Klitemnestra eta Kasandra, Atosa eta Antígona, Fedra eta Medea, eta Eurípides «misoginoaren» antzezlan sortan nabarmentzen diren gain-erako heroi femenino guztiak. Bizitza errealean emakume agurgarriek kalean ia agertzerik izan ez eta, halere, eszenatoki gainean emakumeak gizonen parean edo gainetik zeuden mundu haren paradoxak, baina, ez du inoiz gogobetzeko azalpenik jaso. Gaur egungo tragedietan ere antzeko nagusitasuna aurkitzen dugu. Nolanahi ere, nahikoa da Shakespeareren obraren azaleko azterketa bat egitea (bai eta Websterrena ere, baina ez, aldiz, Marlowerena edo Jonsonena) ikusteko emakumeen ekimen eta nagusitasun horrek berean jarraitzen duela, Rosalindetik lady Macbetherraino. Gauza bera gertatzen da Racinerekin: haren sei tragediak emakume-izena dute; eta Racineren zein pertsonaia maskulino alderatu genezake Hermione eta Andromakarekin, Berenize eta Roxanarekin, Fedra eta Ataliarekin? Eta berdin Ibsenen antzezlanen kasuan ere: zein gizon pareka liteke Solveig eta Norarekin, Heda eta Hilda Wangel edota Rebecca Westekin?». F. L. Lucas, *Tragedy*, 114.-115. or.

konkistatzaileen bizitzetan gailentzen zaigu literaturan; errealitatean, ordea, gurasoek hatzean eraztuna jarrarazi zioten edozein mutikoren esklaboa zen. Emakumeen ezpainenatik atera dira literaturako hitzik inspiratuenetako batzuk, gogoeta sakonenetako batzuk; bizitza errealean, berriz, gutxik zekiten irakurtzen eta idazten, eta senarren jabetzakoak ziren.

Munstro arraro askoa irudikatzen zuen batek aurrena historia-lariak eta hurrena poetak irakurrita: zizare arrano-hegaldun bat; bizitzaren eta edertasunaren espirtua, sukalde batean gantza xehatzen. Munstro horiek, baina, irudimenerako jostagarriak izanagatik, ez dira existitzen errealtatean. Emakumeei bizitza emateko, aldi berean poetikoki eta prosaikoki irudikatu behar ditu batek, errealtateko datuak eskainiz —Martin andreaz ari garela, hogeita hamasei urte dituela, eta soineko urdin bat, kapela beltz bat eta oinetako marroiak daramatzala soinean—, baina literatura ere ahaztu gabe —ontzi bat bezalakoa dela emakumea, harengana doazelarik era guztietako espirtu eta indarrak, dirdir etengabea—. Hala ere, metodo hori isabeldar emakumeei aplikatzeko garaian, argiteriaren zati batek huts egiten digu, eta oztopo bihurtzen zaigu egitateen urritasuna. Batek ez du haiei buruzko datu zehatz, egiazko eta funtsezkorik. Historiak gutxi-gutxitan aipatzen ditu. Trevelyan irakaslearengana itzuli nintzen, beraz, harentzat historia zer zen jakiteko. Haren liburuko kapituluaren izenburuetan aurkitu nuen erantzuna:

«Jaurerriko auzitegia eta landa zabaleko nekazaritza ... Zis-tertarrak eta artzaintza ... Gurutzadak ... Unibertsitatea ... Komunen Ganbera ... Ehun Urteko Gerra ... Arrosen Gerrak ... Errenazimentuko jakitsuak ... Monasterioen desegitea ... Nekazaritza- eta erlijio-liskarrak ... Ingalaterraren itsasoko boterearen jatorria ... Armada ...», eta abar. Tarteka aipatzen da

emakume bakanen bat, Elizabethen bat, Maryren bat, erregina edo dama handiren bat. Beren burmuinak eta beren nortasuna besterik ez zuten klase ertaineko emakumeentzat, baina, guztiz ezinezkoa zen parte hartzea, multzo gisa harturik, historialariek iraganaz duten ikuspegia osatzen duten gertakizun handi haietakoren batean. Pasadizo-bildumetan ere ez dugu emakumerik aurkituko. Aubreyk ez du ia emakumerik aipatzen. Emakumeek ez dute inoiz idazten beren bizitzari buruz, eta oso gutxik dute egunkaririk; haiek idatzitako eskutitz urri batzuk ditugu, gehienez ere. Ez ziguten utzi haien lana epaitu ahal izateko antzezlan edo poemarik. Batek nahi duena, pentsatu nuen — eta zergatik ez du Newnham edo Girtoneko ikasle buruargiren batek biltzen informazio hori?— informazio-multzo handi bat da: zer adinetan ezkontzen ziren, zenbat seme-alaba izaten zituzten, nolakoa zen haien etxea, ba ote zuten gelarik berentzat, berek prestatzen ote zuten janaria, ohikoa ote zen zerbitzaria izatea. Datu horiek guztiak hor nonbait egongo dira gordeak, parroketako erregistro eta kontabilitate-liburuetan; eta isabeldar emakume arrunten bizimodua hortik zehar sakabanaturik ibiliko da noski. Informazio hori guztia bildu, eta liburu bat idatziko ahal du baten batek! Nire aldetik ausartegia litzateke, pentsatu nuen han ez zeuden liburuen bila nenbilela apalen artean, kolegio ospetsu haietako ikasleei historia berridazteko eskatzea, nahiz eta aitortu beharra daukadan maiz bitxi, itxuragabe eta lerratu samarra dela, dagoen-dagoenean, historia hori. Baina zergatik ez erantsi gehigarri bat historia horri, eta izen sotilen bat eman, jakina, emakumeak han ager daitezen, itxuroso izateari utzi gabe? Batek erdi sumatu egiten baititu askotan, handikien bizitzetan, bigarren maila batean zokoratuta, begi-keinu, barre txiki edota agian malkotzat hartu uste izan dudana ezkutatu. Azken batean, badugu biografia nahikoa Jane Austeni buruz; ez da premiarik berriro aztertzen aritzeko ea

zer eragin izan zuten Joanna Baillieren tragediek Edgar Allan Poeren poesian; niri dagokidanez, berdin litzaidake ehun urtez itxiko balituzte bisitariarentzat Mary Russell Mitforden etxea eta gordelekua. Baina negargarria iruditzen zait, jarraitu nuen apaletegietan miaka berriro, ez izatea batere informaziorik XVIII. mende aurretiko emakumeei buruz. Ez dut gogoan orduko inolako eredurik, ikuspegi honetatik eta hartatik aztertzeko. Hementxe naukazue galdezka ea isabeldar garaiko emakumeek zergatik ez zuten idazten poesiari, ez dakidalarik zer-nolako heziketa jasotzen zuten, idazten ikasten ote zuten, egongelarik ote zuten berentzat, hogeita bat urteak bete aurretik zenbaterik zuten haurrik; alegia, eta laburbilduz, zer egiten zuten goizeko zortzietatik iluntzeko zortziak bitartean. Dirurik ez zuten, hortaz ez dago zalantzarik. Trevelyan irakaslearen arabera, gazte-gazterik ezkontzen ziren, hamabost-hamasei urterekin, berek nahi izan zein ez. Guztiz harrigarria izango zen, egoera hartan egonik, haietako batek ez nondik eta ez handik Shakespeareren antzezlanak idaztea, ondorioztatu nuen; eta jada hila den, baina, oker ez banago, gotzain izan zen agure haren hitzak etorri zitzaizkidan gogora: ezinezkoa zela atzoko, gaurko nahiz biharko emakume batentzat Shakespeareren talentua izatea. Horri buruz idatzi zuen egunkarietan. Era berean, informazio eske beregana jo zuen emakume bati esan zion katuak ez direla joaten berez zerura, nahiz eta nolabaiteko arima, izan, baduten. Zenbat gogoeta eta hausnarketa aurrezten zizkiguten gizon zahar haiek! Zenbat egiten zuten atzera ezjakintasunaren mugek haiek gerturatu orduko! Katuak ez dira joaten zerura. Emakumeak ez dira gai Shakespeareren antzezlanak idazteko.

Nolanahi ere, ezin nuen gogotik kendu, apaletan zeuden Shakespeareren lanei begira nengoela, gotzainak arrazoi zuela puntu batean behintzat: Shakespeareren garaiko emakume ba-

tentzat, guztiz, zeharo eta erabat ezinezkoa izango zela Shakespeareren antzezlanak idaztea. Datuak eskuratzea hain nekeza denez gero, imajinatu dezagun zer gertatuko zen Shakespearek dohain aparteko arreba bat izan balu; Judith izenekoa, esate baterako. Shakespeare bera eskolan ibiliko zen ziurrenik —haren amak ondasun batzuk eskuratuak zituen oinordetzan— eta han, latina ez ezik —Ovidio, Virgilio eta Horazio—, gramatika eta logika ere ikasiko zituen. Dakigunez, mutiko basati samarra zen: untxiak ehizatzen zituen; oreinen bat ere eraitsiko zuen inoiz, eta auzoko emakume batekin ezkondu zen, berak nahi baino puskaz lehenago; emazteak haurra eman zion, berez zegokiona baino azkarxeago. Abentura horrek Londresera eramán zuen, fortuna bila. Antzerkia gustukoa izan, antza, eta antzezleen sarrerán zaldiak zainduz hasi zuen bere bidea. Laster, lana lortu zuen antzerkian; antzele arrakastatsu bihurtu, eta unibertsoaren erdian bizitzen hasi zen: mundu guztia ezagutu zuen, mundu guztiarekin adiskidetu zen, taula gainean jardun zuen, kaleetan probatu zuen bere grazia, eta erreginarean jauregiraino ere iritsi zen. Bitartean, haren arreba dohain ederez jantzia etxean irudikatzen dugu. Neba bezain abenturazale eta irudimentsua zen, eta hark bezainbesteko gogoá zuen mundua ezagutzeko. Ez zioten eman eskolarik, ordea. Ez zuen aukerarik izan gramatika eta logika ikasteko, are gutxiago Horazio eta Virgilio irakurtzeko. Liburu bat hartzen zuen noizean behin, nebarena beharbada, eta orrialde gutxi batzuk irakurtzen zituen. Baina, gurasoak etorri, eta galtzerdi batzuk josteko agintzen zioten, edo lapikoaz arduratzeko, liburu eta paperekin ameskizunetan galdu gabe. Zorrozki hitz egingo zioten baina aldi berean samurki, emakumeen bizi-baldintzak ezagutzen zituen eta alaba maite zuen jende zentzuduna baitziren. Gainera, litekeena da aitaren kuttuna izatea alaba. Judithek, beharbada, orri batzuk zirriborratuko zituen ezkutuan, sagarrak gordetzeko ganbaran,

baina erne ibiliko zen beti, haiek ondo gorde edo erretzeko. Hala ere, handik denbora gutxira, artean neska koskorra zela, alaba auzoko artile-saltzaile baten semearekin ezkontzeko tratua egin zuten gurasoek. Ezkontza hori gorrotagarri zitzaiola oihukatu zuen Judithek, eta aitak astindu ederra eman zion horregatik. Hortik aurrera, utzi egin zion errietan egiteari alabari, eta, horren orde, ez sufriarazteko erregutu zion, eta ezkontza horren kontura ez lotsarazteko, mesedez. Perla-kate bat eta gonazpiko polit batzuk agindu zizkion aitak, begiak malkoz beterik. Nolaz desobedituko zion? Nolaz urratuko zion aitari bihotza? Bere dohainaren indarra izan zen horretara bultzatu zuena. Bere gauzak fardeltxo batean bildu, soka batez lagunduta leihotik jaitsi, eta Londreserako bidea hartu zuen udako gau batean. Hamazazpi urteak bete gabea zen oraindik. Landare-hesiko txori kantariak ez zuten berak baino gehiago sentitzen musika. Nebak bezala, dohain berezia zuen gure Judithek hitzen doinua atzemateko. Eta, hark bezala, antzerkia maite zuen. Antzezleen sarreran kokatzen zen egunero, antzerkia egin nahi zuela esanez. Gizonek barre egin zioten aurpegira. Antzerkiko zuzendari lodikote mihi-luzeak algaraka erantzun zion. Zerbait esan zuen orroka txakur txikiek dantzatzeari eta emakumeek antzerkia egiteari buruz, eta gehitu zuen ezinezkoa zela emakumeak antzezle izatea. Aditzera eman zuen... tira, imajinatu dezakezue zer. Ezinezko zitzaion ogibide horretan trebatzea. Izango al zuen behintzat taberna batean afaltzerik edo kaleetan noraezean ibiltzerik gauerdian? Judithek literaturarako dohaina zuen, ordea, eta irrikatan zegoen gizonen eta emakumeen bizitzak xurgatu eta haien ohiturak ikasteko. Azkenean —gazte-gaztea baitzen, eta Shakespeare poetaren antz harrigarria baitzuen, haren begi gris eta bekain makotuekin—, azkenean, Nick Green antzezle-zuzendaria errukitu egin zitzaion. Handik denbora gutxira Judith haurdun zegoen Greenen haurraz

eta, hala —nork neur dezake emakume baten gorputzean harapatu eta kateatutako poeta-bihotzaren sua eta bortxa?—, bere buruaz beste egin zuen neguko gau batean. Bidegurutze batean lurperatuta datza, gaur egun autobus-geltoki bat dagoen lekuan, Elephant and Castle parean.

Gutxi gorabehera, horixe izango zen, nire ustez, Shakespeare-ren garaiko emakume bati gertatuko zitzaiona, haren talentua izanez gero. Niri dagokidanez, bat nator gotzain zenarekin, gotzaina baldin bazen behintzat: pentsaezina da Shakespeare-ren garaiko emakume batek Shakespeare-ren talentua izatea. Shakespeare-rena bezalako talentu bat ez baita jende langile, hezigabe eta zerbitzariaren artean sortzen. Ez zen sortu Ingalaterran, saxoien edo britoiaren artean. Ez da sortzen egungo langile-klaseen artean. Nolaz sortuko zen, beraz, Trevelyan irakasleak dioskunez haurtzainaren gonapetik atera orduko, gurasoek eta lege eta ohituren indarrak horretara behartuta, lanean hasten ziren emakumeen artean? Haatik, izango zen noski nolabaiteko talenturik emakumeen artean, langile-klaseen artean izango zen bezalaxe. Noizean behin, azaleratzen da Emily Brontë bat edo Robert Burns bat, eta izan badirela frogatzen digu, nahiz eta ez utzi arrastorik paperean. Dena dela, batek irakurtzen duelarik uretan itotako sorgin bati buruz, deabruak hartutako emakume bati buruz, belarrak saltzen dituen emakume jakintsu bati buruz edo are ama bat zuen gizon txit gailen bati buruz, iruditzen zait hortxe gorderik egon litekeela, ahanzirik, idazle alferrik galdu bat, poeta zapuztu bat, Jane Austen mutu eta ezezagun bat, Emily Brontë bat, hantxe mortuetan lasterka burmuinak urtzen, bideetan alderrai, bere dohainak eragiten zion oinazeak burua zeharo nahastuta. Eta ausartuko nintzateke esatera poema sinatu gabe asko eta asko idatzi zituen Izengabe hura emakumea zela. Uste dut Edward Fitzgeralddek

esan zuela emakumea zela baladak eta herri-kantak sortu zituen, bere haurrak urrumatzeko nahiz denbora pasatzeko iruten ari zela edota neguko gau luzeetan.

Hori egia izan liteke, edo gezurra; nork daki? Baina egia dena da —niri hala iruditu zitzaidan, behintzat, Shakespeareren arrebari buruz asmatu nuen istorioa berrikusi nuenean—, XVI. mendean dohain handi batekin jaiotako edozein emakumek burua galdu, buruaz beste egin edo herritik kanpoko etxe bakarti batean bukatuko zituela bere egunak, erdi azti, erdi sorgin, beldurra piztuz eta denen iseken jomuga bihurtuta. Izan ere, ez dago psikologian aditua izan beharrik zuzen jakiteko ezen, neskak hain buruz ederki jantzi bat bere dohainak poesiara bideratzen saiatuz gero, trabak eta oztopoak besterik ez zuela aurkituko, eta, bere sen kontraesankorrek nahigabetu eta erdibiturik, osasuna eta burua galduko zituela. Neska batentzat ezinezkoa izango zen Londresera joatea, artisten sarreran kokatzea eta antzezle-zuzendarienganaino iristea, bortizkeria eta herstura latzak jasan gabe, irrazionalak, nahi bada —kastitatea, izan ere, zenbait gizartek guk ez dakigun arrazoiengatik asmatutako fetix bat izan liteke-eta—, baina ezin baztertuzkoak, hala ere. Orain bezala, orduan ere, kastitateak garrantzi sakratua zuen emakumeen bizitzan, eta hain errotuta dago haien nerbio eta senetan, ezen egundoko adorea behar baita hura askatu eta argitara ateratzeko. XVI. mendeko Londresen emakumezko poeta eta antzerkigile batek bizimodu librea bizitzea lortuz gero, hiltzerainoko estutasun eta erabaki-ezina eragingo zizkion egoera horrek. Bizirik ateraz gero, hitz bihurritu eta itxuragabeak baino ez zituen idatziko, bere irudimen makur eta gaixoaren kariaz. Eta sinatu gabe argitaratuko ziren noski haren lanak, pentsatu nuen emakumeen batere antzezlanik ez zuen apalera begira. Babes hori bilatuko zuen, ziurrenik. XIX. mendera ar-

teraino emakumeak anonimotasunera bultzatzen zituen kasti-
tatearen aztarrenak ziren horiek. Currer Bell, George Eliot eta
George Sand, barne-liskarren biktimak hirurak ere haien idaz-
kiek erakusten dutenez, beren nortasuna ezkutatzen saiatu zi-
ren gizon-izenak erabiliz, alferrik saiatu ere. Men egiten zioten,
horrela, beste sexuak inposatua ez izanagatik gogotik bultzatzen
zuen konbentzioari (emakumearen loriarik handiena zeresan-
ik ez ematea zela esan zuen Periklesek, zeresan handia eman
zuen gizona berau): publikotasuna gorrotagarria dela emaku-
meengan. Anonimotasuna odolean daramate emakumeek. Ez
nabarmentzeko nahiak bizi ditu oraindik. Gaurko egunean ere
ez dira gizonak bezainbeste kezkatzen beren osparen osasunaz
eta, oro har, lasai pasa daitezke hilarri edo seinale baten ondo-
tik, Alfek, Bertek eta Chasek emakume eder bat edo are txakur
bat ikustean, *Ce chien est à moi* xuxurlarazten dien senari men-
egiten dioten moduan beren izena han idatzia uzteko nahi men-
deraezin bat sentitu gabe. Eta, jakina, ez du zertan txakur bat
izan, pentsatu nuen, Parliament Square, Sieges Allee eta beste
etorbide batzuk gogora ekarrita; izan daiteke lur-zati bat edo ile
kizkurreko gizaseme beltzaran bat. Horixe da emakume izatea-
ren abantaila handienetako bat: bat lasai pasa daitekeela neska-
txa beltz eder baten ondolik hura andere ingelesa bihurtzeko
jaidurarik sentitu gabe.

Emakume hura, beraz, poesiarako dohain handiekin jaioa XVI.
mendean, ez zen zoriontsua, eta beti zebilen borrokan bere
buruarekin. Haren bizitzako gorabehera guztiak, haren senek,
galarazi egiten zioten batek burmuinean duena askatzeko beha-
rrezkoa den gogo-girora iristea. Zein ote da, baina, sorkuntza-
rako gogo-girorik aproposena?, galdetu nion neure buruari. Ba
ote dago asmatzerik zein ote den jardun bitxi hori bultzatzen eta
errazten duen gogo-giroa? Shakespeareren tragediak jasotzen

dituen liburukia ireki nuen. Zein zen Shakespeareren gogo-giroa, esate baterako, *Lear* eta *Antony and Cleopatra* idatzi zituenean? Poesiarako inoiz izan den gogo-girorik aproposena, inondik ere. Shakespearek, baina, ez zuen inoiz ezer esan bere gogo-giroari buruz. «Bertso-lerrorik sekula ezabatu ez» zuela da dakigun bakarra, txiripaz jakin ere. Egia esan, XVIII. mendera arte artistek ez zuten ezer esan beren gogo-giroari buruz. Lehenbizikoa Rousseau izan zen, ausaz. Nolanahi ere, XIX. menderako, zeharo garatuta zegoen auto-kontzientzia, eta ohi-tura handia zegoen letra-gizonek beren gogoetak aitorten eta autobiografiatan jasotzeko. Idatzi ziren haien biografiak ere, eta, hil ondoren, argitara eman haien gutunak. Beraz, nahiz eta ez dakigun zer egoera bizi zuen Shakespearek *Lear* idatzi zuenean, badakigu Carlylek zer egoera bizi zuen *French Revolution* idatzi zuenean; Flaubertek zer egoera bizi zuen *Madame Bovary* idatzi zuenean, edota zer egoera bizi zuen Keatsek, poesia idazteari ekin ziolarik, heriotza hurbilaren eta munduaren ezaxolaren aurrean.

Aitorpenez eta auto-analisiz osatutako literatura moderno oparo hartatik ondorioztatzen denez, jeinu baten mailako lan bat idaztea egundoko balentria zaila zen. Idazleak dena du kontra idazten ari dena oso-osorik atera dakion gogotik. Baldintza materialak ere kontra izaten ditu: zaunka egiten dute txakurrak; bere egitekoen artetik aterarazten dute bat; dirua irabazi beharra dago; pattaldu egiten da osasuna. Zailtasun horiek gutxi ez eta, munduaren ezaxola nabaria gehitzen zaio horri guztiari. Munduak ez dio inori eskatzen poemak, eleberriak eta historiak idazteko; ez du halakorik behar. Bost axola zaio Flaubertek hitz egokia aurkitzen duen edo Carlylek datu hau edo beste egiaztatzen duen xehetasun handiz. Eta, jakina, ez du ezer ordaintzen nahi ez duen horren truke. Horregatik, idazleak —

Keats, Flaubert, Carlyle— era guztietako distrakzio eta etsimen-
duak jasaten ditu, gaztaroko sormen-urteetan bereziki. Mada-
rikazio bat, lantu-oihu bat sortzen da analisi- eta aitorpen-liburu
horietatik. «Poeta bikainak, miserian hilak»: horixe da haien
kantuaren zama. Egoera horretatik ganorazko zerbait sortzea
mirari hutsa da eta, gainera, ziurrenik ez da inoiz libururik argi-
taratu, inolako murrizketa eta ebakirik gabe, hura hasiera batean
pentsatu zen bezalaxe.

Askoz ere handiagoak dira, baina, zailtasun horiek guztiak
emakumeen kasuan, pentsatu nuen apal hutsetara begira. Le-
henik eta behin, XIX. mende hasiera arte, pentsaezina zen
emakume batek gela bat izatea beretzat, are gutxiago zaratarik
gabeko gela lasai bat, haren gurasoak txit aberatsak edo oso
nobleak ez baziren behintzat. Zuen diru apurra aitaren boron-
date onari lotuta zegoenez, eta arropa erosteko baino iristen
ez zitzaionez, debekatuak zituen pobreak izanagatik Keatsen,
Tennysonen nahiz Carlyleren esku zeuden aringarriak: oinezko
txango bat, bidaia bat Frantziara edota bizitoki beregain bat,
bere kaxkarrean gizonok senideen eskakizun eta nagusikeriatik
babesten zituena. Ikaragarriak ziren eragozpide material haiek;
are latzagoak, ordea, eragozpide ez-materialak. Munduaren
ezaxola, Keatsentzat, Flaubertentzat eta talentu handiko beste
gizon batzuentzat hain eramangaitza, emakumeen kasuan, ez
zen ezaxola, etsaitasuna baizik. Munduak ez zien esaten «Idatzi,
nahi baduzu, niri bost», gizonei esaten zien bezala. Munduak
barre-algaraka esaten zien «Idatzi? Zertarako nahi duzu zuk
idatzi?». Newnhameko eta Girtoneko psikologoak lagungarri
izan dakizkiguke hemen, pentsatu nuen, apaleko tarte hutse-
tara begiratzu berriro ere. Izan ere, esango nuke badela garaia
artistaren asmoak etengabe zapuzten ibiltzeak haren aldartean
zer-nolako eragina duen neurtzeko, esne-enpresa bat esne

arruntak eta esne bereziak arratoien gorputzean duten eragina neurtzen ikusi dudak bezala. Bi arratoi sartu zituzten ondoz ondoko kaiola banatan: arratoietako bat iheskorra, lotsatia eta txikia zen; bestea, distiratsua, ausarta eta handia. Zerez elikatuko ditugu, baina, emakumezko artistak?, galdetu nion neure buruari, aranpasa eta arrautza-esnezko afari hura gogora ekarri, nonbait. Galdera horri erantzuteko, arratsaldeko egunkaria zabaldu eta lord Birkenheaden hitzak irakurri besterik ez nuen... Baina, tira, ez dut nekerik hartuko lord Birkenheadek emakumeek idatzitakoari buruz duen iritzia transkribatzeko, eta Inge deanak dioenari ere ez diot helduko. Harley kaleko espezialistak iratzar ditzala, nahi badu, Harley kaleko oihartzunak bere zalapartarekin; niri ez zait buruko ilerik harrotuko. Oscar Browning jaunaren hitzak bai, hona ekarriko ditut, pertsonaia garrantzitsua izan zelako Cambridgen bere garaian, eta Girtoneko eta Newnhameko ikasleei azterketak egiteaz arduratzen zelako. Oscar Browning jaunak ohitura zuen zera esateko: «Era guztietako azterketak zuzendu eta gero, eta jarritako notak gorabehera, emakumerik onena gizonik txarrenaren azpitik zegoen intelektualki». Hori esanda, bere geletara itzuli zen Browning jauna —orain datorrenak maitagarri egiten du geure begietara eta halako itzal eta gorpuzkera sendo bat ematen dio—, eta ukui-luetako morroi bat aurkitu zuen han, sofan etzanda. «Hezurdura hutsa zen mutikoa, bere masail olibakara barrenduekin eta bere horts beltzeekin; gorputz-adarrak ozta-ozta mugitzeko gai zela ematen zuen... “Arthur da —esan zuen Browning jaunak—, mutiko goxo eta buru ernea”». Bi irudiok elkar osatzen dutela iruditu izan zait beti. Eta, zorionez, biografien aro honetan, bi irudiok elkar osatzen dutenez maiz, gizon gailenen iritziak interpretatzeko garaian, haien hitzak ez ezik, baditugu haien egintzak ere.

Dena dela, gaur egun hori egiteko aukera badago ere, jende garrantzitsuaren ahotik halako iritziak entzutea ikaragarria izango zen, noski, duela berrogeita hamar urte. Demagun aita batek, bere asmorik onenekin, ez duela nahi alabak etxetik alde egitea, idazle, margolari edo ikertzaile izateko. «Ikusi duzu Oscar Browning jaunak zer dioen», esango zion; Oscar Browning jaunak ez zen, baina, bakarra: bazen *Saturday Review*; bazen Greg jaunak, «emakumeen funtsa gizon batek mantentzea eta hura zerbitzatzea» dela esan zuena irmoki; bazen iritzi maskulinoen multzo ikaragarri bat emakumeengandik kontu intelektualik ezin espero zitekeela zioena. Aitak iritziok ahoz gora irakurri ezean ere, bere kasa irakur zitzakeen edozein neskatok, eta irakurketa horiek, XIX. mendean ere, zeharo zapuztuko zuten neska haien bizitasuna, eta eragin sakona izango zuten haien lanean. Etengabe entzungo zuten «ezin duzu hau egin», «ez zara gai beste hori egiteko», eta halakoei aurre egiten eta halakoak ukatzen ibili beharko zuten behin eta berriro. Germen horrek dagoeneko ez du noski eragin handirik eleberrigileentzat, izan baita merezimendu handiko emakumezko eleberrigilerik. Baina mingarria izaten jarraitzen du margolarien kasuan; eta musikarien kasuan ere esango nuke eraginkorra dela oraindik, eta guztiz pozoitsua. Gaur egungo emakumezko musikagileak Shakespeareren garaiko emakumezko antzezleen egoera berean daude. Nick Greenek, adibidez, pentsatu nuen Shakespeareren arrebari buruz asmatu nuen istorioa gogora ekarriz, txakur dantzariekin parekatu zituen emakume antzerkigileak. Johnsonek esaldi bera erabili zuen berrehun urte geroago, emakumezko sermolariez ari zela. Eta hona hemen, esan nuen, musikari buruzko liburu bat zabalduz, musika idazten saiatzen diren emakumeei buruz Jainkoaren urte honetan, 1928an, esan diren hitzak: «Germaine Tailleferre andereñoari dagokionez, Johnson doktoreak emakume sermolari bati buruz esandakoak

errepikatu besterik ezin dugu egin, musikara ekarrita orain-goan. “Jauna, musika egiten duen emakumea, atzeko hanken gainean dabilen txakurra bezalakoa da. Ez da taxuz ari, baina hartaraino iristea ere harrigarria gertatzen da”². Bete-betean errepikatzen da historia.

Horrenbestez ondorioztatu nuen, Oscar Browning jaunaren biografia itxi eta gainerako liburuak alde batera utzita, gauza nabarmena dela XIX. mendean ere emakumeak ez zituztela adoretzen artistak izan zitezten. Aitzitik, erdeinua, egurra, errietak eta erretolikak besterik ez zuten jasotzen. Honi aurre egiten eta hura ukatzen ibili beharrak, azkenerako, adimena zapuztu eta bizitasuna akituko zien. Hona iritsita, emakumeen mugimenduan berebiziko eragina izan duen konplexu interesgarri bezain ilun batekin egiten dugu topo berriro ere: gizona erabat errotua duten nahi bat, alegia, ez hainbeste emakumeak beren azpitik egon daitezen, berak emakumeen gainetik egoteko baizik. Nahi horrek arteen gailurrera eramaten ditu gizonak, baina, hori nahikoa izan ez eta, politikarako bidea moztzen diete gizonak emakumeei, nahiz berentzako arriskua hutsala izan, eta emakumeen eskakizunak guztiz apal eta leialak. Lady Bessboroughek berak ere, gogoratu nuen, politikarako zuen grina biziari amore eman, eta haxe idatzi behar izan zion lord Granville Leveson-Gowerri: «[...] politika-kontuetan darabil dan bortizkeria gorabehera, eta gaiari buruz luze jardun izan dudari arren, bat nator zurekin diozularik emakumeok ez dugula gai serio horretan inolako zereginik, non ez den (eskatzen badigute) gure iritzia ematea». Hala, inork oztoporik jarriko ez dion gai txit garrantzitsu batera bideratuko du bere grina gure emakumeak: lord Granvillek Komunen Ganberan egindako

2. Cecil Gray, *A Survey of Contemporary Music*, 246. or.

irekiera-hitzaldira. Bai ikuskizun bitxia, egin nuen neure artean. Gizonek emakumeen burujabetzeari jarritako oztopoen historia interesgarriagoa izango da, beharbada, askatasun eta burujabetza horren kontakizuna bera baino. Gaiari buruzko adibideak bildu eta handik teoria bat ondorioztatuko balu, liburu dibertigarri askoa idatz lezake Girton edo Newnhameko ikasle gazteren batek, baina eskularru lodiak jantzi eta urre sendoko barrekin babestu beharko luke bere burua.

Dena dela, pentsatu nuen lady Bessboroughen liburua ixtean, orain dibertigarri zaigunak guztiz serio hartzekoa behar zuen garai batean. Batek orain *Kukurruku* izeneko koaderno batean jasotzen dituen iritzi horiek, udako gauetan entzule aparten aurrean irakurtzeko, ziurta diezazueket malko ugari eragin zituztela garai batean. Zeuen amona eta birramonen arteko askok negar handiak egingo zituzten. Florence Nightingale deiadarka egoten zen bere oinazean³. Gainera, zeuentzat, zeuen kolegio eta egongelekin —ala logela-egongelak dira bakarrik?—, erraza da esatea jenio batek ez liekeela halako iritziei jaramonik egin behar, eta berari buruzko iritzien gaintetik egon beharko lukeela talentuak. Baina, zoritxarrez, talentua duten gizonak eta emakumeak dira berei buruz esaten denaz gehien kezkatzen direnak. Gogora dezagun Keats. Gogora ditzagun bere hilarrian grabatu arazi zituen hitzak. Pentsa dezagun Tennysonengan; pentsa dezagun... Tira! Ez naiz luzatuko berei buruz esaten denaz gehiegi arduratzea artistek berezkoa dutela erakusten digun egitate ukaezin eta tamalgarriarekin. Inoren iritziez neurrigabe kezkatu diren gizon hondoratuez gainezka dago literatura.

3. Ikus *Cassandra*, Florence Nightingale; R. Stracheyk argitaratua *The Causen*.

Haien minberatasun hori bi aldiz da zorigaiztokoa, pentsatu nuen, hasierako neure galderara itzulita: Zein da sormen-lanak egiteko gogo-girorik aproposena? Izan ere, barruan daukan obra osorik eta guztiz askatzeko lan erraldoia egingo badu, gori-gori egon behar du artistaren gogoak, Shakespearerena bezalaxe, pentsatu nuen *Antony and Cleopatran* zabalik zegoen liburuari begira. Ezin du izan inolako oztoporik, ez iraungi gabeko gorputz arrotzik.

Izan ere, Shakespeareren gogo-giroari buruz ezertxo ere ez daki-gula badiogu ere, hori esatearekin batera ari gara zerbait esaten Shakespeareren gogo-giroari buruz. Donnerri, Ben Jonsoni edo Miltoni buruz ez bezala, Shakespeareri buruz hain gutxi bada-kigu, izan daiteke Shakespearek ezkutatu egiten dizkigulako bere gorroto, aiherkunde eta ezinikusiak. Ez gaitu geldiaraz-ten idazlea gogora dakarkigun inolako “agerkundek”. Protesta egiteko, predikatzeke, irainak salatzeke, kontuak kitatzeko eta mundua norbere gaitz eta arranguren lekuko bihurtzeko nahi oro kiskali eta guztiz iraungi ziren Shakespeareren kasuan. Horregatik isurtzen zaio poesia aske eta oztoporik gabe. Historian inor izan bada gai bere obra bete-betean eta oso-osorik aditze-ra emateko, Shakespeare izan da gizaki hori. Oztoporik gabeko arima goririk izan bada inoiz, pentsatu nuen berriro ere apala-tegira begiratuz, Shakespearerena izan da arima hori.

LAU

XVI. mendean gogo-giro horretako emakumerik aurkitzea ezinezkoa zen, noski. Batek aski du isabeldar hilarriak ekartzea gogora, eta hango haur haiek guztiak belauniko otoitz egiten, eta haur haien heriotza goiztiarrak, eta haurron etxe ilun-estuak, konturatzeko orduko emakume batentzat ezinezkoa zela poesia idaztea. Izatekotan, batek espero zezakeena zen handik denbora puska batera, dama handi batek, bere nolabaiteko askatasun eta erosotasuna aprobetxatuta, zerbait argitaratzea bere izenean, munstrotzat hartua izateko arriskuarekin. Gizonak ez dira esnobak, ez noski, jarraitu nuen Rebecca West andereñoaren «feminismo porrokatua» saihestuz; baina, oro har, adeitasunez hartzen dituzte kondesa baten saiakera poetikoak. Batek esperoko luke dama tituludun bat gehiago adoretuko zutela garai bereko Austen andereño edo Brontë andereño artean ezezagun batzuk baino. Era berean da espero izatekoa gogoa aztoratzea dama hari beldurra, gorrotoa eta gisako emozio arrotzek, eta aztoramen horren arrastoak agertzea haren poemetan. Hona hemen lady Winchilsea, esate baterako, pentsatu nuen haren poema-liburua apaletik hartuta. 1661. urtean jaio zen, noblea zen jaiotzaz eta ezkontzaz, ez zuen haurrik, eta poesia idatzi zuen; haren poesia-liburua zabaldu besterik ez dago gure idazleari emakumeen egoerak sortzen zion sumindura sumatzeko:

Zeinen gauden jausi; jausi, ergelen arau okerrez,
Eta Naturaren baino haboro Hezkuntzarenez;
Gogoaren aurrerapen oroz gogor gabetuak,
Eta lelo izateko berariaz xedatuak;
Eta inor baldin bada gailentzen besteetatik,

Irudimen beroagoz, asmo bikainen atzetik,
Hain da indartsu agertzen hor alderdi aurkaria,
Aurrera-ustea makal, beldurra da nabaria.

Argi dago haren gogoak ez duela lortu «eragozpen oro irau-
gitzea eta gori-gori bihurtzea», gorroto eta arrangurek azto-
ratzen eta xaxatzen baitute. Bi alderditan banatzen du gizadia.
«Alderdi aurkaria» osatzen dute gizonak, eta beldurra eta go-
rrotoa die, boterea dutelako berak egin nahi duena galarazteko;
idaztea, alegia.

Ondikotz! emakume bat idazlumari heldua,
Halako izaki haizez puztutzat da juzgatuko,
Ezein bertutek ez baitu akatsa ezabatuko.
Ez omen da hori, antza, sexuz dagokigun zera;
Haziera ona, moda, dantza, jolasak, janzkera,
Horra zer behar dugun guk jomuga eta irrika;
Idatz, irakur zein pentsa, gauzez hastea galdeka,
Guri edertasun-kalte, eta denbora akitze,
Eta geure bikaintasun-bidean oztopo jartze.
Morrontzazko etxe baten ardura motz alaena,
Hori omen gure dohain eta zeregin gailena.

Bere burua idaztera akuilatzeke, pentsatzen du idazten duen
horrek ez duela inoiz argia ikusiko, eta kantu goibel honekin
baretzen du gogoia:

Lagun bakanentzat kanta, eta heure tristurentzat,
Ereinotz arte gozora ez hintzen noski sortua;
Bira aski ilun hire itzalak, eta han hi laketua.

Argi dago, hala ere, bere gogoia gorroto eta beldur hartatik as-
katzea lortu, eta mingostasunez eta erresuminez bete izan ez
balu, indar handiz kiskaliko zuela haren barneko suak. Noizean

behin, poesia hutsezko hitzak ezpaineratzen zaizkio:

Ezta margultzen den zetaz berregina,
Ilaunki, arrosa antzeraezina.

Murry jaunak arrazoiz txalotu zituen hitzok, eta Popek beste hauek gogoratu eta bereganatu omen zituen:

Horra liliñoak hartu garun erkinari gaina;
Mintxuriak jotzen gaitu aditez haren urrina.

Zer zorigaitz handia hain ondo idazten zekien emakume bat, naturara eta gogoetara emandako emakume bat, amorratuta eta mingostuta bizitzera kondenatuta egotea. Baina nola ez zen, bada, horrela sentituko?, galdetu nuen jendearen iseka eta barrreak, hipokriten losintxak eta poeta profesionalen eszeptizismoa imajinatuz. Mendira joango zen ihesi, han gela batean itxi, eta lasai idazteko, senar txit maitagarria eta ezkon-bizitza bikaina izanagatik, mingostasunak, eta beharbada kezkek ere, barrena urratzen ziotela. Halakoak uste hutsak dira, ordea, zeren, lady Winchilsearen inguruko datuen bila hasiz gero, bat konturatzen baita ezer gutxi dakigula hari buruz. Malenkonia latza sufritu zuen, eta neurri batean iristen gara sufrikario hura ulertzera, malenkoniak jota zegoenean idazten zituenak irakurrita:

Ene neurtitzok gaitzetsiz, eta jardun hau juzgatuz
Zorakeria funsgabe edo handiustezko huts:

Hala kritikatzan zioten jarduna zer izango, eta, batek dakiela behintzat, inori kalte egin gabe, zelaietan alderrai, ametsetan ibiltzea besterik ez:

Ene eskuak laket du ezohiko marrazkigintza,
Saihesturik bide arrunt, jakin ororen lorratza,
Ezta margultzen den zetaz berregina,
Ilaunki, arrosa antzeraezina.

Ohitura eta zaletasun horiek izanik, ezin espero, noski, iseka besterik; eta, antza denez, Popek edo Gayk hitz garratzak zuzendu zizkioten, «literaturarako grinak jotako mari-maistra»tzat joz. Berak ere iraindu omen zuen Gay, haren lepotik barre eginez, hauxe esan baitzuen haren *Trivia* hizpide harturik: «berezkoagoa zuen zalgurdiaren aurrean joatea, zalgurdian eserita baino». Horiek guztiak «badaezpadako txutxu-mutxuak» besterik ez dira, «batere interesik gabekoak», Murry jaunaren iritziz. Azken horretan, ezin Murryrekin bat etorri, ordea, funtsik gabeko txutxu-mutxu haietako gehiago nahi baintuzke nik, irudi bat osatzeko zelaietan alderrai ibiltzea eta ezohiko gauzetan pentsatzea maite zuen andre malenkoniatsu hari buruz, «morrontzazko etxe baten ardura motz alaena» hain ausarki eta burugabeki mespretxatu zuen andere hari buruz. Lauso bilakatu zen, ordea, gure idazlea, Murry jaunaren iritziz, eta belar gaiztoz inguratuta eta sastrakaz josia gelditu zen haren talentua, bere fintasun eta dotorezia erakutsi ezinik. Lady Winchilsearen liburua apalategira itzuli, eta beste dama handi bat aukeratu nuen: Lambek maite izan zuen Newcastleko Margaret dukesa kaskarin ameslaria, Winchilsearen garai berekoa baina hura baino zaharragoa. Guztiz desberdinak ziren biak, baina antzekoak ere bai: biak ziren nobleak, biak haur-gabeak, eta biek zituzten senar ezin hobeak. Poesiarako grina bizia zuten biek ala biek, eta arrazoi berberak itsusten eta desitxuratzen zituzten haien idazkiak. Dukesaren liburua ireki, eta sumin bera aurkitzen du batek: «Saguzarrak edo Hontzak bezala bizi, Abereek bezala lan egin, eta Zizareak bezala hiltzen dira emakumeak...». Margaret ere irits zitekeen poeta izatera; gaur egun, jardun horrek guztiak lortuko zuen noski gurpilen bat jiraraztea. Baina, garai hartan, zerk hesitu, otzandu eta zibiliza zezakeen, giza erabilerarako, adimen basati, eskuzabal eta hezigabe hura? Borborka irteten zitzaion adimen hori, zarra-

pastaka, inork sekula irakurtzen ez dituen orrietan izoztutako erritmo eta prosazko, poesia eta filosofiako uholdeetan. Baten batek mikroskopio bat jarri behar ziokeen eskutan. Izarrei begiratzen eta zientifikoki arrazoitzen irakatsi behar zioketen. Bakardadean eta askatasunean zorroztu zuen adimena. Ez zen inor arduratu Margaretez. Ez zion inork ezer irakatsi. Irakasleak losintxaka ibiltzen zitzaizkion. Gortean, txistu jotzen zioten. Sir Egerton Brydges kexatu egin zen haren zakartasunaz, hura ez zelako jokamolde egokia «Gortean hazitako goi-mailako emakume batentzat». Azkenean, Welbeckeko etxean itxi zen, bakar-bakarrik.

Zer bakardade eta gatazka latzak dakarzkigun gogora Margaret Cavendishengan pentsatze hutsak!, lorategiko arrosa eta krabelinen artean kalabazin erraldoi bat hedatu, eta hiltzeraino ito balitu bezala loreok. Zer galera izugarria «heziketa onena jaso duten emakumeak dira burua ongien jantzita daukatenak» idatzi zuen emakume hura denbora txorakeriak idazten galtzen ibiltzea eta ilunpean eta eromenean murgilduz joatea pixkanaka, azkenean kalera irteten zenean jendea haren zalgurdiaren inguruan pilatzeraino! Esan beharrik ez dago neskatila bizkorrak beldurtzeko mamarroa bihurtu zutela dukesa eroa. Hona hemen, gogoratu nuen, dukesaren liburua alde batera utzi, eta Dorothy Osborneren eskutitz-bilduma zabalduz, Dorothyk zer idatzi zion Templeri, dukesaren liburu berria zela eta: «Emakume gaixoa ez dago bere senean: ez zaio, bada, gauza barregarriagorik otu liburu bat idaztea baino; bertsotan, gainera! Bi astean begirik bilduko ez banu ere, ez zitzaidan halakorik bururatuko!».

Era oneko emakume zentzudunek libururik idatzi ezin zuteenez, Dorothy, neska sentibera eta malenkoniatsua, eta dukesa-

ren guztiz bestelako aiurrikoa, hitz-erdirik idatzi gabe gelditu zen. Eskutitzak ez ziren aintzat hartzen. Emakumeek eskutitzak idatz zitzaketen, ohean gaixorik zeukaten aitaren ondoan eserita. Idatz zitzaketen sutondoan ere, gizonak berriketan zeudela, haiei enbarazu egin gabe. Dorothyren eskutitz-bildumako orriak pasatu ahala, pentsatu nuen neska hezigabe eta bakarti hark dohain aparta zuela esaldiak taxutzeko eta eszenak asmatzeko. Entzun dezagun:

Bazkalondoa berriketan egoten gara harik eta B jaunaren gaia ateratzen den arte. Orduan, jaiki, eta alde egiten dut. Ordurik beroenak irakurtzen edo lanean ematen ditugu, eta, arratsaldeko seiak-zazpiak aldera, pasieran irteten naiz etxe ondoko zelai batzuetara. Han, behiak eta ardiak zaintzen ibiltzen diren neska talde handi bat egoten da itzalpean eserita, baladak kantatzen. Haiengana hurbildu, eta liburuetan aurkitu izan ditudan garai bateko artzainen ahots eta edertasunekin alderatzen ditut haienak, eta alde itzela sumatzen dut bien artean; hala ere, sinetsiez adazue diodanean haiek bezain tolesgabeak direla hauek. Haiekin hitz egitean konturatzen naiz ez dutela ezer behar, munduko pertsona zorionsuenak izateko, badirela jakitea besterik. Berriketan gaudela, baten batek ingurura begiratzen du, artasoroan sartu berri zaion behia zertan dabilen ikusteko, eta korrika abiatzen dira bat-batean denak, oinetan hegalak balituzte bezala. Haiek bezain arina izan ez, eta atzean gelditzen naiz ni, eta, ganadua etxeratzen ikusten ditudanean, neuk ere etxera joateko ordua dudala pentsatzen dut. Afaldutakoan, lorategira joaten naiz, eta han gertutik pasatzen den erreka baten ertzean esertzen naiz, nirekin zaudela amets egitera...

Batek zin egingo zuen bazituela, bai, idazle izateko beharrezko osagaiak. Baina «bi astean begirik bilduko ez banu ere, ez zitzaidan halakorik bururatuko!» horrekin batek ederki uler dezake zer-nolako giroa zegoen idazten zuten emakumeen aurka, idazteko halako trebezia zuen emakume batek ere uste baitzuen liburu bat idaztea txorakeria galanta zela eta norbait burutik eginda zegoela adierazten zuela. Eta hala gatoz, jarraitu nuen apalera itzulita Dorothy Osborneren eskutitz-liburu laburra, Behn andra.

Behn andrearekin kantoi garrantzitsu bat hartuko dugu gure bidean. Atzean utziko ditugu, irakurlerik eta kritikarik gabe beren atsegin hutserako idatzi zuten dama handi eta bakarti haiek, beren lorategietan itxita beren orriekin. Hirira etorri, eta kaleko jende arruntarekin nahastuko gara. Klase ertaineko emakumea zen Behn andrea, eta herri xumearen bertute guztiak zituen: umorea, bizitasuna eta kemena; eta, senarraren heriotzak eta bestelako zoritzarreko abentura batzuek behartuta, bere adimena erabili behar izan zuen bizibidea ateratzeko. Gizonen baldintza beretan lan egin behar izan zuen. Eta, gogor lan eginez, lortu zuen bizitzeko adina irabaztea. Lorpen horren garrantzia handiagoa da Behn andreak idatzitako edozer baino, «Mila martiri ditut nik eginak» edota «Hara, garaitzan bikain maitasuna» itzelak barne, hortxe hasten baita gogoaren askatasuna edo, hobe esanda, denborarekin, gogoak nahi duena idazteko askatasuna eskuratzeko aukera. Aphra Behnen lorpenaz geroztik, gurasoengana joan zitezkeen neska gazteak, esanez: «Ez didazue zertan dirurik eman nire gastuetarako; neuk irabaz dezaket idatziz». «Bai, noski, Aphra Behnen bizimodua biziz. Lehenago hil!» izango zen urte askoan jasoko zuten erantzuna, atearen danbateko batekin batera. Interes sakoneko gai hori — gizonen emakumeen kastitateari ematen dioten balioa eta ho-

rrek emakumeen heziketan duen eragina— eztabaidagai ageri zaigu hemen, eta liburu baterako gai interesgarria eskaintzen digu, Girton edo Newnhameko ikasleren batek gaiari heldu nahiko balio ere. Lady Dudley ager liteke azalean, diaman- tez apainduta, eltxoz jositako Eskoziako mortu batean. Haren emaztearen heriotza zela-eta lehengoan *The Times*ek zekarre- nez, «gustu landuko eta gaitasun handiko gizona zen lord Du- dley, eskuzabala eta borondate onekoa, baina despota hutsa ere bai gogoak ematen zionean». Emaztea galaz jantzita joatea nahi zuen beti, Highlandetako ehiza-pabiloi mundutik galduenetan ere; bitxi ederrez estali ohi zuen», eta abar; «nahi zuen gutzia ematen zion, erantzukizunik txikiena izan ezik». Halako ba- tean, bihotzekoa izan zuen lord Dudleyk, eta, ordutik aurrera, senarra zaintzeaz eta haren lurrak gobernatzeaz arduratu zen emaztea, ederki arduratu ere. Despotismo apetatsu hori existitzen zen XIX. mendean ere.

Itzul gaitezen harira, ordea. Aphra Behnek erakutsi zuen ba- zela modua idatziz dirua irabazteko, ezaugarri atsegin batzuk baztertearen truke bazen ere; eta, pixkanaka-pixkanaka, idaz- tea eromenaren edo buruko nahasmenen adierazgarri izateari utzi, eta garrantzi praktiko handiko jarduna bihurtuz joan zen. Baten senarra hil zitekeen edo hondamendi batek jo zezakeen familia bat-batean. XVIII. mendeak aurrera egin ahala, ehunka emakume hasi ziren dirutxo bat biltzen beren gastuetarako edo beren familiei aurrera egiten laguntzeko, itzulpenak eginez edota dagoeneko testuliburuetan ere aurkitzen ez diren baina Charing Cross Road kaleko antigoaleko dendetan oraindik salgai dauden eleberri kaskar ugari haiek idazten. XVIII. men- de amaieran emakumeen artean hedatu zen jarduera intelek- tual jori-joriak —solasaldiak, bilerak, Shakespeareri buruzko saiakerak idaztea, klasikoak itzultzea— oinarri sendo bat zuen

azpian: emakumeek dirua irabaz zezaketela idatziz. Ordaindu ezean kaskarin dirudiena duintzeko ahalmena du diruak. Batzuek jarraituko zuten emakume haiei iseka eginez, «literaturarako grinak jotako mari-maistra»tzat joz, baina ukaezina zen gai zirela diru-zorroan dirua sartzeko. Hala, XVIII. mende amaiera aldean, aldaketa sakon bat gertatu zen, historia berridazten ariko banintz xehetasun handiagoz deskribatuko nukeena, aldaketa hura garrantzitsuagoa iruditzen baitzait gurtzadak edo Arrosen Gerrak baino.

Idazteari ekin zioten, bada, klase ertaineko emakumeek. Izan ere, *Harrotasuna eta aurrejuzkuak*, *Middlemarchek*, *Villettek* eta *Wuthering Heightsek* baliorik badute, nik ordubeteko hitzaldi batean azaldu dezakedana baino are balio handiagoa izan zuen emakumeak idazteari lotu izana; emakumeak, oro har, eta ez beren orri eta losintxariez inguratuta beren landetxeetan itxitako emakume aristokrata bakartiak soilik. Aitzindari haiek gabe, Jane Austenek, Brontë ahizpek eta George Eliotek ez zuten idazteko aukera gehiagorik izango Shakespearek Marlowerik gabe, Marlowek Chaucerrik gabe eta Chaucerrek hizkuntzaren basatasun berezkoa otzandu eta bidea urratu zuten poeta ahaztu haiek gabe izango zutena baino. Maisulanak ez baitira haurgintza bakarti eta bakanak, urte luzetako gogoeta partekatuen emaitza baizik, jende asko eta askoren pentsamenduaren emaitza: masaren esperientzia baita, azken batean, ahots bakan baten atzean dagoena. Jane Austenek hileta-korua jarri beharko zuen Fanny Burneyren hilobian, eta George Eliotek omenaldia eskaini beharko zion Eliza Carterren —goizean goiz esnatu, eta greziera ikasteko, oheburukoan kanpaitxo bat eseki zuen amona zahar kementsuaren— itzal sendoari. Aphra Behnen hilobian —eskandaluzkoa izanagatik, Westminsterko abadian dago, oso modu egokian— loreak utzi beharko lituzkete emakume

guztiek batera, hura izan baitzen beren iritzia aditzera emateko eskubidea irabazi zuena emakumeentzat. Izen txarra eta kuttunkerietarako joera izan zituen emakume hari esker esan diezazueket gaur, guztiz burugabe agertu gabe, irabaz ditza-zuela urtean bostehun libera zeuen burua erabiliz.

XIX. mende hasierara iritsi nintzen horrela, eta oso-osorik emakumeen idazlanei eskainitako zenbait apal aurkitu nituen, lehenbiziko aldiz. Begiak liburu haietan jarri, eta baztertu ezin-neko galdera bat piztu zitzaidan: ea zergatik ziren denak, salbuespen gutxi-gutxi batzuk kenduta, eleberriak. Poesiarako joera dugu berez. «Poesiaren buruzagi gorena emakume bat zen». Hala Frantzian nola Ingalaterran, lehenago agertu ziren emakumezko olerkariak emakumezko eleberrigileak baino. Gainera, pentsatu nuen lau izen ospetsuei begira, zertan datoz bat George Eliot eta Emily Brontë? Ez al da egia Charlotte Brontëk ez zuela Jane Austen inondik ere ulertu? Haietako bakar batek haurrik izan ez zuelako datu ziurrenik aipagarria kenduta, nekez topatuko genuke lau pertsonaia desberdinagorik gela berean elkarrekin; hainbestera, ezen tentatuta egon naizen haien arteko bilkura eta elkarrizketa bat asmatzeko. Nolanahi ere, indar bitxi batek idaztera bultzatu zituen laurak, eleberriak idaztera. Klase ertainean jaioak izateak izan ote zuten zerikusirik horrekin?, galdetu nion neure buruari; eta, Emily Davies andereñoak geroxeago ederki frogatu zuen bezala, XIX. mende hasierako klase ertaineko familiek egongela bakarra izateak izan ote zuten zerikusirik horrekin? Emakume batek, idazte-kotan, etxeko egongelan idatzi beharko zuen, eta, Nightingale andereñoak sutuki salatu zuenez —«emakumeek inoiz ez dute ordu erdirik [...] berentzat har dezaketarik»—, beti izaten zen zerbait bere egitekoen artean aterarazten zuena. Hala ere, baldintza haietan errazago izango zen prosa eta eleberriak

idaztea, poesia edo antzerkia idaztea baino: kontzentrazio guxtiago eskatzen zuen. Jane Austenek horrelaxe idatzi zuen bere azken-azken egunera arte. «Hori guztia egitea nola lortzen zuen —diosku Austenen ilobak izebari buruzko memoria-liburuan— guztiz txundigarria da, ez baitzuen estudiorik hantxe lasai egoteko, eta lanik gehiena egongelan egingo zuen, noski, era guztietako etenaldiak jasanez. Kontu handiz ibiltzen zen, zerbitzariak, bisitariak edo bere familiaz kanpoko beste inork susma ez zezan zertan zebilen»¹, eta ezkutatu edo xukapaper baten azpian gordetzen zituen bere eskuizkribuak. Bestalde, XIX. mende hasierako emakume baten literatura-trebakuntza murrizta honetaraxe laburbil daiteke: pertsonaien jokabideari kontu egitera eta emozioak aztertzerara. Menderik mende egongelan jasotako eraginek taxutu zuten emakumeen sentiberatasuna: besteen sentipenak gogoan iltzatuta gelditzen zitzaizkien han, eta harreman pertsonalak garatzen ikusten zituzten beren begien aurrean. Horregatik, klase ertaineko emakume bat idazten hasten zenean, eleberriak idazten zituen berez bezala, nahiz eta garbi egon hemen aipatu ditugun lau idazle ospetsuetariko bi ez zirela berez eleberrigileak. Emily Brontëk antzezlan poetikoak idatzi behar zituzkeen; George Elioti gainezka egiten zion adimen ikaragarria historiara edo biografiara bideratu beharko zatekeen, sorkuntzarako joera agortutakoan. Eleberriak idatzi zituzten, ordea; eleberri on askoak, pentsatu nuen *Harrotasuna eta aurrejuzkua* apaletik hartuta. Harropuztu edo beste sexua iraindu gabe, *Harrotasuna eta aurrejuzkua* liburu ona dela esan dezake batek; hura idazten harrapatua izanez gero lotsaraziko ez gintuena, behintzat. Jane Austen, baina, poztu egiten zen inor gelara sartu aurretik atearen kurrinka entzun, eta eskuizkribua garaiz ezkutatu ahal izateaz.

1. *Memoir of Jane Austen*, haren iloba James Edward Austen-Leighek idatzia.

Harrotasuna eta aurrejuzkua idazten aritzeari zerbait lotsagarri aurkitzen baitzion, eta, egin nuen neure artean, eleberri hobea izango ote zen *Harrotasuna eta aurrejuzkua*, Jane Austenek bere eskuizkribua ezkutatzen ibiltzeko beharrik sentitu ez balu? Pare bat orri irakurri nituen, baina han ez nuen aurkitu Austenen bizi-baldintzek haren lana ezertan kaltetu zutela adierazten zuen arrastorik. Beharbada horixe zen miraririk handiena: emakume batek, 1800. urte inguruan, gorroto, mingostasun, beldur, protesta eta erretolika gabe idaztea. Horrelaxe idatzi zuen Shakespearek, pentsatu nuen, *Antony and Cleopatra*-ri begira, eta Shakespeare eta Jane Austen parekatzen badira, izango da, noski, bien gogoek eragozpen oro iraungi zutelako; arrazoi horregatik ez dugu ezagutzen Jane Austen, eta ez dugu ezagutzen Shakespeare, eta arrazoi horregatik ageri zaigu Jane Austen berak idatzitako hitz bakoitzean, Shakespearearekin gertatzen den bezalaxe. Bere egoerak zerbaitetan sufriarazi bazion, inposatzen zion bizimodu estuagatik izan zen. Emakume bat ezin zen bakarrik irten. Ez zen inoiz bidaian joan, ez zen inoiz Londresko autobus batera igo edo jatetxe batera bakarrik joan. Baina izan liteke Jane Austenek berezkoa izatea ez zuenik nahi ez izatea. Haren dohainak eta haren bizi-baldintzek bat egin zuten bete-betean. Baina ez dakit nik Charlotte Brontëren kasuan ere hala izan ote zen, egin nuen neure artean, *Jane Eyre* zabaldu, eta *Harrotasuna eta aurrejuzkuaren* ondoan jarritz.

Hamabigarren kapituluari ireki nuen liburua, eta esaldi batek jo zidan arreta: «Kritikatu nazala nahi duenak». Zer dela-eta nahiko zuten, bada, Charlotte Brontë kritikatu?, galdetu nion neure buruari. Eta irakurri nuen Jane Eyrek nola zuen etxegainera igotzeko ohitura eta nola egoten zen urrutira begira, zelaietatik harago, Fairfax andrea marmelada egiten zuen bitartean. Hantxe egoten zen ametsetan; horixe zen kritikatzeko ziotena:

Muga hura gaindituko zuen ikusteko ahalmen bat izatea amesten nuen, mundu zalapartatsura iristeko, haien entzutea banuen ere sekula ikusi gabeak nituen herri eta eskualde bizietara iristeko gai izango zena: nuena baino esperientzia praktiko handiagoa nahi nuen; hartu-eman gehiago izan nahi nituen neure tankerako jendearekin, inguruan nituenez bestelako pertsona motak ezagutu nahi nituen. Estimatu handitan nituen Fairfax andrearen gauza onak eta Adeleren gauza onak, baina susmoa nuen bazirela bestelako ontasun batzuk, ontasun biziago batzuk, eta sinesten nuen horri eutsi nahi nion nik.

Nork kritikatzeko nau? Askok, zalantzarik gabe, eta kontentagaitz esango didate. Baina ezin nuen bestela jokatu, berezkoa nuen egonezin hura eta batzuetan mina emateraino astintzen zidan barrena. [...]

Alferrik da esatea gizakiek pozik egon beharko luketela lasai bizita: beharrezkoa dute ekintza, eta, ez badute, sortu egiten dute. Milioika lagun daude nirea baino halabehar bareago batera kondenatuta, eta milioika lagun matxinatzen dira isil-isilik beren patruaren aurka. Inork ez daki zenbat matxinada egosten ari diren lurra jendeztatzen duten bizidun-masen artean. Emakumeak lasai-lasaiak direla pentsatzen du jendeak normalean, baina emakumeek gizonak bezalaxe sentitzen dute: beren gaitasunak lantzeko beharra daukate, eta esparru bat behar dute beren ekimenetarako, beren nebek bezalaxe; sufritu egiten dute muga hertsiegien barruan, gelditasun handiegi batean itxita, gizonak sufrituko luketen moduantxe; eta hurko pribilegia-

tuen ikuspegi estuaren seinale da inork pentsatzea emakumeek nahikoa dutela pastelak egin, galtzetak josi, pianoa jo eta eskuzorroak brodatzearekin. Ohi-turak agintzen diena baino gehiago egiten edo ikasten saiatzeagatik emakumeei iseka egiten eta emakumeak gaitzesten ibiltzeak jokamolde berekoa erakusten du. Orduan bezala, bakar-bakarrik nengoenetan, Grace Poolen algarak entzuten nituen ez gutxitan [...].

Bai eten xelebrea, pentsatu nuen, txundigarria baitzen Grace Poolekin topo egitea bat-batean, horrek hautsi egiten baitzuen kontakizunaren haria. Batek esan lezake, jarraitu nuen *Harrotasuna eta aurrejuzkuaren* ondoan uzten nuela liburua, orri haiek idatzi zituenak talentu gehiago zuela Jane Austenek baino; baina orri haiek berriro irakurri, eta, bat-bateko eten hura, hango sumindura antzematean, bat konturatzen da gure idazleak ez duela inoiz lortuko bere talentua guztiz eta oso-osorik aditze-ra ematea. Itxuragabetuta eta bihurrituta geldituko dira haren liburuak. Itsumustuan idatziko du, patxadaz idaztea dagokionean. Txorakeriak idatziko ditu, zentzuz idaztea dagokionean. Bere buruaz idatziko du, bere pertsonaiez idaztea dagokionean. Gerran dago bere patuarekin. Nola ez zen, bada, gazterik hilko, etsipenak jota eta zapuztuta?

Unetxo batez ezin izan nuen burutazio bat baztertu: zer gertatuko zen baldin eta Charlotte Brontëk urtean, demagun, hirurehun libera izan balitu? Mila eta bostehun liberatan saldu zituen burugabe horrek bere eleberrien eskubideak! Zer gertatuko zen gehiago jakin balu mundu zalapartatsuaz, eta bizitzaz betetako herri eta eskualdeez; esperientzia praktiko handiagoa izan balu eta hartu-eman gehiago bere kidekoekin, eta era askotako pertsonaiak ezagutu balitu? Hatza zaurian sartzen du hitz ho-

riekin, ez eleberrigile gisa dituen gabeziei dagokienez bakarrik, baizik eta bere garaiko emakumeek zituzten gabeziei dagokienez ere. Inork baino hobeto zekien bere talenturako zeinen ona izango zen, urruneko zelaien kontenplazio bakartira emana egon beharrean, esperientziak, hartu-emanak eta bidaiak bizitzeko aukera eman baliote. Ez zioten halakorik eman, orde; ukatu egin zizkioten; eta onartu beharra daukagu eleberri on haiek guztiak —*Villette*, *Emma*, *Wuthering Heights*, *Middlemarch*— elizgizon errespetagarri baten etxean sar zitekeenaz bestelako bizi-esperientziarik ez zuten emakumeek idatzi zituztela, etxe errespetagarri hartako egongelan, *Wuthering Heights* edo *Jane Eyre* idazteko aldiro orri gutxi batzuk baino erosterik ez zuten emakume pobreek idatzi ere. Egia da haietako batek, George Eliotek, lortu zuela ihes egitea, txuriak eta beltzak ikusi eta gero, baina Saint John's Woodeko etxalde baztertu batean bukatu zuen. Hantxe finkatu zen, munduaren gaitzespenaren itzalpean, eta idatzi zuen: «Argi gera dadila ez dudala inoiz gonbidatuko gonbidapenik eskatu ez didanik». Gizon ezkondu batekin bekatuan bizi izanik, ez al zuen, bada, Smith andrea-
ren edo bisitan zihoakionaren kastitatea lohituko? Batek men egin behar die konbentzio sozialei, «gutziz urrundu egin behar du mundu deritzon horretatik». Garai berean, Europako beste muturrean, gizon gazte bat ijito batekin edo dama handi batekin bizi zen askatasun osoz; gerretara joanez; liburuak idazteko garaian hain baliagarri izango zitzaion giza bizitzaren esperientzia zabala bilduz, inolako trabarik eta zentsurarik gabe. Eta, neure artean egin nuen, Tolstoi priore-etxean itxita bizi balitz, «mundu deritzon horretatik gutziz urrunduta»ko emakume ezkondu batekin, ez dut uste, egoera hartatik irakaspen moral hezigarririk aterata ere, *Gerra eta bakea* idatziko zuenik.

Baina gehixeago sakondu genezake, beharbada, eleberrigintza-
ren gaian eta sexuak eleberrigileengan dituen ondorioetan. Ba-
tek begiak itxi, eta eleberrian pentsatzen badu, oro har, ispiluan
ageri zaigun bizitzaren nolabaiteko tankera hartuko dio, bere
sinplifikazio eta itxuragabetze guztiakin. Gogoan forma baten
arrastoa uzten digun egitura bat da, inondik ere: noiz karratuz
osatua, noiz pagoda-formakoa, noiz hegal eta arkuduna, noiz
sendoa, trinkoa eta gangaduna, Konstantinopoliseko Santa So-
fiaren katedrala bezala. Forma horrek, pentsatu nuen, eleberri
ospetsu batzuk gogora ekarriz, egoki zaion sentipen-molde bat
pizten dio bati. Emozio hori, baina, nahastu egiten da beste
batzuekin, «forma» ez baita harrien arteko erlaziotik sortzen,
gizakien arteko erlaziotik baizik. Hori dela eta, era guztietako
sentipen antagoniko eta oposatuak pizten dizkigute eleberriek.
Bizitza gatazkan sartzen da bizitza ez den zerbaitekin: horre-
gatik da hain zaila eleberrien gainean adostasunik lortzea, eta
horregatik dute hainbesteko eragina gugan gure aurreiritzi
pertronalek. Batetik, sentitzen dugu Zuk —John heroiak— bizi
egin behar duzula, etsipen beltzean hondoratuko bainaiz bes-
tela. Bestalde, ordea, hil egin behar duzu, hala eskatzen baitu
liburuaren formak. Bizitza gatazkan sartzen da bizitza ez den
zerbaitekin. Baina, hein batean, bizitza izan badenez, halakotzat
hartzen dugu. Gorrotagarrien zaizkidan gizon horietakoa da Ja-
mes, dio batek. Nahaste-borraste burugabea da hau, ezingo nuke
inoiz halakorik sentitu. Egitura horrek guztiak, edozein eleberri
ospetsutan pentsatuz gero argi gelditzen denez, konplexutasun
ikaragarria du, era askotako iritzi eta sentipenez osatuta baitago.
Harrigarria da, hala ere, pare bat urte igarota hala osatutako li-
buru batek zutik irautea oraindik, edo esanahi bera izatea irakur-
le ingeles nahiz errusiar edo txinatarrentzat. Noizean behin, or-
dea, ederki asko irauten dute zutik. Eta biziraupen-kasu bakan
horiek (*Gerra eta bakea* nuen buruan) ahalbidetzen dituen

zintzotasun deritzon zerbait da, nahiz eta horrek zerikusirik ez izan fakturak ordaintzearekin edo larrialdi batean zintzo jokatzarekin. Eleberrigilearen kasuan, eskaintzen diguna egia delako ustea da zintzotasuna. Batek sentitzen du ez zuela inoiz pentsatuko hori hala izan zitekeenik, edo inoiz ezagutu duenik hala jokatzeko duen jenderik. Baina sinetsarazi egiten digu baietz, egia dela. Irakurri ahala, argi-kontra jartzen ditu batek esaldi guztiak, eszena guztiak, zeren, harrigarria bada ere, itxura batean, naturak barne-argi bat eman baitigu eleberrigilearen zintzotasuna edo zintzotasun-eza juzgatzeko. Edo izango da, beharbada, naturak, bere aldarerik irrazionalean, artista handiek egiaztatzen duten aieru moduko bat marraztu digula gogoaren hormetan tinta ikusezinez; ikusgarri bihurtzeko talentuaren argitan jarri beharreko zirriborro bat, alegia. Argi horretan jarri eta bizitzara sortzen ikusten duenean, liluratuta dio batek: Horixe da-eta beti sentitu, jakin eta desiratu dudana! Eta irrika-sukarrak harrapatzen du bat orduan, eta halako erreberentzia batez ixten du liburua, zerbait oso preziatua balitz bezala, bizi den artean nora itzuli eskaintzen dion babesleku bat balitz bezala, eta apalategira itzultzen du, pentsatu nuen, *Gerra eta bakea* hartu eta bere lekura itzuliz. Baina, bestalde, batek hartu, eta probatzen dituen esaldi kaskar horiek beren kolore bizi eta keinu lerdenekin erantzun bizkor eta goseti bat eragiten badiote baina gero bertan gelditzen badira, zerbaitek garatzea galaraziko balie bezala, edo, zirriborro margul bat zoko batean eta orban zikin bat beste nonbait besterik ematen ez badute argitara, ezer guztiz eta osorik erakutsi gabe, orduan, etsipenez hasperen egin, eta batek dio: Beste porrot bat. Eleberri honek huts egiten du zerbaitetan.

Izan ere, eleberri gehienek huts egiten dute zerbaitetan. Iru-dimena herren agertzen da eginkizun itzelaren azpian. Begi-

rada lainotu egiten da, eta ez du asmatzen egia eta gezurra bereizten, pott eginda gelditzen da hainbeste gaitasunaldi berean erabiltzeko ahalegin ikaragarriari eutsi ezinik. Idazlearen sexuak zer-nolako eragina ote du, ordea, horretan guztian?, galdetu nion neure buruari, *Jane Eyre*ri eta beste liburuei begira. Emakumearen sexuak oztopatzen al du emakumezko eleberrigileen zintzotasuna, idazlearen bizkarrezurtzat daukadan zintzotasuna, alegia? *Jane Eyre*tik aipatu ditudan pasarteek argi erakusten dutenez, amorruek eragotzi egiten du Charlotte Brontëk eleberrigile gisa izan zezakeen zintzotasuna. Bere debozio guztia jarria zuen kontakizuna alde batera utzi zuen, arrangura pertsonal batez arduratzeko. Gogoratzen du nola ukatu zizkionten zegozkion esperientzia eta bizipenak, eta parrokia-etxe batean itxita bizitzera kondenatu zutela, egun guztian galtzetak konpontzen, berak nahi zuena munduan barrena libre ibiltzea izan arren. Suminak bere bidetik atera zuen Charlotteren irudimena, eta gu jabetu egiten gara horretaz. Amorruek ez zen, baina, irudimenari tira egin, eta Charlotte bere bidetik irtenarazten zuen eragin bakarra. Baziren beste eragin batzuk: ezjakintasuna, esate baterako. Rochesterren erretratua ilunpean marraztu zuen, eta beldurraren eragina sumatzen dugu han, etengabe sumatzen ditugu, halaber, zapalkuntzaren emaitza den garratzasun bat, Charlotteren grinaren azpian borborka dagoen pairamen gorde bat, eta gorroto bat, haren liburuak, bikainak izanagatik, minaren astinduez uzkurrazten dituenak.

Eta, bat datozenez eleberririk bizitza errearekin, bizitza errealekoak dira hein batean haien baloreak. Dena dela, agerikoa denez, maiz emakumeen baloreak ez datoz bat beste sexuak finkatutako baloreekin, eta normala da hori. Baina balore maskulino horiek dira nagusitzen direnak. Argi eta garbi hitz eginenez, futbola eta kirola «garrantzitsuak» dira; moda jarraitzea

eta arropa erostea, aldiz, «azaleko» zereginak. Balore horiek bizitzatik literaturara eramaten dira, ezinbestean. Honako hau liburu garrantzitsu bat da, dio kritikariak, gerraz diharduelako. Beste hori, berriz, eskasa da egongela batean bildutako emakumeen sentipenez ari delako. Gudu-zelai bateko eszena bat askoz garrantzitsuagoa da denda bateko eszena bat baino: balorazio desberdin hori nonahi ageri zaigu, are modu sotilagoetan. Hala, XIX. mende hasierako eleberrien egitura osoa, emakumeen kasuan, lerro zuzenetik aldendutako gogo batek eraikia zen, lerro horretatik aldendu eta, kanpo-agintari batenganako begirunez, bere ikuspegi argia aldatzera behartutako gogo batek alegia. Batek aski du aspaldi ahaztutako eleberri zaharren orriak pasatzea eta idazlearen ahotsa entzutea, konturatzeko kritika latzak jasotzen zituela idazleak, eta erasotzeko esaten zituela gauza batzuk, eta adiskidetzeko beste batzuk. Onartzen zuen «emakume bat besterik ez» zela, edo aldarrikatzen zuen bazela «gizonak adina». Bere jiteak agintzen zion moduan jasotzen zituen kritikak: lotsaz eta otzantasunez, edo amorratuta eta ernegatuta. Berdin dio batera edo bestera jotzen zuen, kontua da bere gaiak kanpotiko zerbaitetan zuela gogo. Eta liburua erori egiten zaigu esku artetik, akats bat baitu muinean. Gogora ekarri nituen orduan, baratze bateko sagar mokokatua nola, Londresko bigarren eskuko liburu-dendetan barreiatuta dauden emakumeen eleberri guztiak. Muinean zuten akatsak ustelarazi zituen. Emakume idazleek aldatu egin zituzten beren baloreak men egiteko besteen iritziei.

Ezinezko izango zitzairen, jakina, ezkerretarantz edo eskuinetarantz ez amore ematea. Sekulako talentua, sekulako zintzotasuna beharko zituzten gizarte zeharo patriarkal hartan kritika haiei aurre egin eta, men egin gabe, berek ikusten zutenari eusteko. Jane Austenek bakarrik lortu zuen hori, eta Emily Bron-

tëk. Beste luma bat ezartzen du horrek, finena beharbada, haien kapeletan. Emakumeek idazten duten bezala idatzi zuten, ez gizonek idazten duten bezala. Garai hartan eleberriak idazten zituzten milaka emakumeetatik, berek bakarrik eman zioten bizkarra betiereko pedagogoaren aholku eta aginduei: idatz ezazu hau, pentsa ezazu honela. Haiek bakarrik egin zioten entzungor, noiz marmarka, noiz nagusikeriaz, noiz kexati, noiz harriduraz, noiz amorratuta, noiz paternalismoz, emakumeak bakean utzi ez, eta, maistra zorrotz baten modura, estu hartzen dituen, edo, sir Egerton Brydgesek bezala, finak izateko agintzen dien ahots tematiari. Sexuaren kritika poesiaren kritikan txertatzen du ahots horrek²; eta, onak izan nahi badute, eta sari distiratsuak irabazi, gizonezkoek egokitzen dituzten mugen barruan kokatzeko aholkatzen die: «emakumezko eleberrigileak bikaintasunera iritsiko badira, beren sexuaren mugak onartzeko ausardia izan beharko lukete»³. Horrek ederki laburbiltzen du guztia, eta, esaten badizuet esaldi hori ez zela idatzi 1828ko abuztuan, 1928ko abuztuan baizik, pentsatzen dut bat etorriko zaretela nirekin eta, gaur egun esaldi hark txit xarmangarria badirudi ere, onartuko duzue oso hedatuta dagoen iritzia islatzen duela —ez naiz aintzira zahar horietako urak nahasten hasiko orain, patuak oinetaraino ekarri didana aipatzera mugatuko naiz—, orain baino askoz zabalduago eta indartsuago zegoena duela mende bat. 1828an, irau handia behar zuen neska batek hainbeste gaitzespen, irain eta sari-promesari bizkarra emateko. Ekintzaile amorratua izan

2. «Helburu metafisiko bat du, eta obsesio arriskutsua da hori, emakume batentzat bereziki, emakumeek nekez baitute gizonek erretorikari dioten maitasun osasuntsurik. Harrigarria gertatzen da emakumeen gabezia hori, beste alor batzuetan askoz primitibo eta materialistagoak direnez gero». *New Criterion*, 1928ko ekaina.

3. «Baldin eta, kritikari honek bezala, uste baduzue emakumezko eleberrigileek, bikaintasunera iritsiko badira, beren sexuaren mugak onartzeko ausardia izan beharko lukete[la] (Jane Austenek erakutsi digu dotorezia handiz egin daitekeela keinu hori...)». *Life and Letters*, 1928ko abuztua.

behar zuen batek bere buruari esateko: Ez, literatura ere ezin erosiko dute, bada! Denei irekita dago literatura. Ez dizut onartuko, eskolazain jaun txit gorena zarela ere, belargunetik bota nazazun! Itxi itzazue zuen liburutegiak, nahi baduzue, baina ez duzue hesirik, ez sarraila ez krisketik, neure gogoaren askatasuna giltzapean ixteko.

Etsipenak eta kritikak emakume haien idazkeran zuten eragina edozein zela ere —eta esango nuke ez zela makala izan—, horrek gutxi axola zuen beren gogoetak paperera eramateko garaian gainditu beharreko beste zailtasunaren aldean (XIX. mende hasierako eleberrigileekin jarraitzen nuen): ez zutela inolako tradiziorik beren aurretik, edo zutena hain zela laburra eta partziala ezin baitzuten erabili. Izan ere, geure amen bidez pentsatzen dugu emakumeok. Alferrrik da gizonezko idazle handiengana jotzea laguntza bila, nahiz eta plazeragatik nahi beste jo dezakegun haiengana. Lambek, Brownek, Thackerayk, Newmanek, Sterneke, Dickensek, De Quincey —eta gainerako guztiek— ez diote inoiz lagundu emakume bati, nahiz eta emakumeek trikimailurik ikasi haiengandik inoiz, eta beren xedeetarako egokitu. Gizonen gogoaren pisua, erritmoa eta neurria desberdinegiak zaizkie emakumeei, handik ezer gano-razkorik ateratzeko. Tximinoa urrunegi dago zuhurra izateko. Litekeena da emakumea idazten hasi, eta berehala konturatzea ez zuela beretzako moduko esamolderik. Thackeray, Dickens eta Balzacen tankerako eleberrigile handi guztiek prosa natural bat erabili dute, arina baina ez utzia, adierazkorra baina ez moñoñoa, beren ñabardurez jantzia baina ondare kolektiboa baztertu gabe. Garaian ohikoa zen esaldi-moldean oinarritu ziren. XIX. mende hasierako ohiko esaldi-moldea honelatsukoa izango zen: «Haien obren handigoa argudio sendoa zen, ez bertan gelditzeko, aurrera jarraitzeko baizik. Inon ez zuten poztasun

eta gogobetetasun handiagorik aurkitzen beren artearen lan-
gintzan eta egiaren eta edertasunaren sorkuntza mugagabea
baino. Arrakastak jarduna bultzatzen du; eta ohiturak arrakasta
dakar». Esaldi maskulinoa da hori; Johnson, Gibbon eta gai-
nerakoak irudika ditzakegu esaldi horren atzean, baina dese-
gokia zen emakumeentzat. Charlotte Brontë, prosarako dohain
bikainak izanagatik, estropezu egin, eta erori egiten zen arma
trauskil hura eskuan hartuta. George Eliotek astakeria latzak
egin zituen esaldi-molde harekin. Jane Austenek esaldiari be-
giratu, barre egin, eta esaldi-molde natural eta taxuzko bat as-
matu zuen, berari egoki zitzaion moduan, eta hari lotu zitzaion
betiko. Era horretan, literaturarako Charlotte Brontëk baino
talentu gutxiago izan arren, hark baino askoz ere gauza gehiago
adieraztea lortu zuen. Eta askatasuna eta adierazkortasun betea
guztiz funtsezkoak direnez artean, tradizio baten gabeziak eta
hain tresna urri eta desegokiak izateak pisu nabarmena izan-
go zuen noski emakumeen idazkuntzan. Gainera, liburuak ez
dira egiten esaldiak elkarren ondoan josiz, irudia zilegi bazait,
esaldiak arku eta gangen moduan eraikiz baizik. Forma hori
ere gizonek sortua da, beren xede eta beharrei erantzuteko. Ez
dago arrazoirik pentsatzeko epikaren edo antzerki poetikoaren
moldea hobeto egokituko zaiela emakumeei, esaldia egokitzen
zaien baino. Literaturako molde zahar guztiak, baina, erabat
errotuta eta finkatuta zeuden emakumeak idazten hasterako.
Eleberria zen emakumeen eskuetan moldagarri izateko bezain
gaztea zen molde bakarra, eta horregatik ekin zioten, ziurrenik,
eleberriak idazteari. Dena dela, nork esango luke oraindik «ele-
berria» dela (komatxo artean jarri dut, hitz desegokia iruditzen
zaidala azpimarratzeko), nork esango luke forma guztien ar-
teko moldagarriena dela emakumeek erabiltzeko egokiena?
Emakumeek besoak nahi bezala erabiltzeko askatasuna dute-
nean, eleberriei nahi duten forma ematen ikusiko ditugu, za-

lantzarik gabe; eta orduan baliabide berriren bat asmatuko dute, ez bertsotan ezinbestean, barruan duten poesia azaleratzeko. Poesia esparru ukatua baitute oraindik. Eta pentsatzen jarri nintzen gaur egungo emakume batek nola idatziko lukeen bost ekitaldiko tragedia poetiko bat: bertsotan idatziko luke?; ez al luke prosa erabiliko?

Galdera zailak dira horiek, inondik ere, eta gorderik ageri zaizkigu etorkizuneko argi-itzaletan. Hortxe utziko ditut, bada, besterik ez bada neure gaitik aldendu, eta urratu gabeko basoetarantz bultzatzen nautelako, neure bidea galdu, eta basapiztiek irentsiko ninduketen basoetarantz. Nik ez dut gai ezin ilunago hori, literaturaren etorkizuna, aipatu nahi, eta zuek ere ziur ezetz. Hori dela eta, unetxo batez baino ez diot helduko gaiari, zuek denok ohartarazteko etorkizun horretan emakumeei dagokienez baldintza fisikoek izango duten eragin handiaz. Liburuak gorputzera egokitu behar du nolabait ere, eta esango nuke emakumeen liburuek laburragoak, trinkoagoak, izan behar luketela gizonenak baino; ordu luzeko irakurraldi jarraitu eta etenik gabeak behar ez izateko moduan taxutu behar lirateke. Beti izango baita bat bere egitekoen artetik aterarazten duen zerbait. Antza denez, burmuina elikatzen duten nerbioak ez dira berdinak gizonengan eta emakumeengan, eta ahalik eta ongien eta gogorren lan egitea nahi badugu, gehien komeni zaien formula aurkitu beharko diegu: ikusi beharko dugu monjeek duela ehunka urte finkatutako ikastorduak egokiak diren haientzat; nola tartekatuta behar diren lana eta atsedena, kontuan izanik atsedena ez dela egonean egotea, beste zerbait egitea bai-zik, baina beste zerbait desberdina; eta erabaki beharko da, halaber, zer behar lukeen izan desberdintasun horrek. Hori guztia aztertu eta argitu beharko dugu, zerikusia baitu *emakumea eta literatura* gaiarekin. Dena dela, jarraitu nuen liburutegira

itzuliz, non aurkituko dut nik emakume batek emakumeen psikologiari buruz idatzitako ikerketa landu eta sakon hori? Futbolean jokatzeko ezgaitasunak medikuntzan aritzeko ezgaituko baditu...

Zorionez, nire gogoetek beste bide bat hartu zuten orduan.

BOST

Iritsi nintzen, azkenean, hainbeste dibagazioren ondoren, bizirik dauden emakumezko nahiz gizonezko idazleek idatzitako liburuen apaletara, dagoeneko paretsua baita batzuek eta besteek idatzitako liburu kopurua. Edo, bete-betean horrela ez bada, eta oraindik gizonek jario handiagoa badute, egia da, hainbestean, emakumeek egun ez dituztela eleberriak bakarrik idazten. Hortxe ditugu Jane Harrisonek greziar arkeologiari buruz idatzitako liburuak, eta Vernon Leek estetikari buruz nahiz Gertrude Bellek Pertsuari buruz idatzitakoak. Era guztietako gaietarako buruzko liburuak ditugu orain, belaunaldi bat lehenago emakume batek inolaz ere jorratuko ez zituenak. Badiugu poemak, antzezlanak eta kritikak, historiak eta biografiak, bidaia-liburuak eta ikerketa eta erudizioko liburuak; eta are filosofia-liburu bakan batzuk eta zientzia eta ekonomiari buruzko liburu zenbait. Eta, eleberriak gailentzen diren arren, eleberriak ere aldatu egin dira beste tankera bateko liburuekin izandako erlazioari esker. Litekeena da betiko joanak izatea idazkera femeninoaren berezko soiltasuna, literatura horren garai epikoa. Irakurketak eta kritikak esparru zabalagoa eta zorroztasun handiagoa eman ote dieten emakumeei. Autobiografiarako joerak berea eman ote duen jada. Hasita ote dagoen emakumea idazkuntza arte gisa erabiltzen, eta ez autoadierazpenerako tresna gisa. Eleberri berri hauetan aurkiko dugu galdera horietako askoren erantzunak.

Eleberri haietako bat hartu nuen, ausaz, apaleko ertz batetik: Mary Carmichaelen *Life's Adventure*, edo antzeko izenburu bat, aurtengo urrian bertan argitaratua. Carmichaelen lehen

liburua izateko itxura du, egin nuen neure artean, baina bilduma luze samar bateko azken liburukia balitz bezala irakurri behar du batek; alegia, orain arte gainbegiratzen aritu naizen liburu horien guztien —lady Winchilsearen poemak, Aphra Behnen antzezlanak eta lau eleberrigile handien eleberriak— jarraipena balitz bezala. Aurreko beste liburu batzuen jarraipena baitira liburuak, guk ohitura izanagatik bereizita epaitzeko. Hura ere —gure emakume ezezaguna— orain arte aztergai izan ditudan emakume haien guztien ondorengotzat hartu beharko nuke, eta ikusi zein ezaugarri eta muga jaso dituen oinordetzan haiengandik. Hasperen eginez, beraz, eleberriak askotan sorgarriak baitira, bizigarriak baino gehiago, eta lozorro sakonean murgilarazten baitute bat, burdin ferrarekin iratzarri beharrean, koaderno eta arkatza hartu, eta hantxe ekin nion Mary Carmichaelen lehen eleberria, *Life's Adventure*, irakurtzeari.

Hasteko, goitik behera ikuskatu nuen orria. Esaldiei neurria hartuko diet aurrena, esan nion neure buruari, gogoa begi urdin eta marroiz eta Chloeren eta Rogerren artean egon daitezkeen hartu-eman bezalakoak betetzen hasi aurretik. Izango da horretarako astirik, idazleak eskuan darabilena idazluma edo pika-txoia ote den erabakitakoan. Pare bat esaldi ahoskatu nituen, eta berehala jabetu nintzen bazela zerbait huts egiten zuena. Esaldien irristatze leuna etenda gelditzen zen: bazen urratu bat han, harramazka bat hemen; bere zuzia begietara zuzentzen zidan hitz solte bat han-hemenka. Egilea «askatzen» ari zen, antzinako antzezlanetan esan ohi den moduan. Surik hartuko ez duen pospoloari sua ematen ari zaion pertsona bat bezalakoa da, pentsatu nuen. Jane Austenen esaldi-moldea zergatik ez da egokia zuretzat?, galdetu nion, aurrean banu bezala. Den-denak baztertu behar al ditugu, Emma eta Woodhouse jauna hilda daudelako? Pena da, gero, hala izatea, esan nuen

hasperen batean, Jane Austenek jauzi egiten baitu melodiaz melodia, Mozart kantuz kantu ibiltzen zen moduan; esku artean neukan testua irakurtzea, ordea, itsaso zabalean txalupa txiki batean egotea bezalakoa zen, orain ur-azalean, orain ur azpian. Zerbaiten beldurra adieraz lezake hango zakartasun eta arnasesuak: «sentimental» deitua izateko beldurra, beharbada; edo izan liteke, idazkera femeninoa oso moñoñoa dela esaten denez, gehiegizko arantzaz janztea erabakitzea gure idazleak. Eszena bat osoa arretaz irakurri arte, ordea, ezin jakin idazleak orriotan aurkezten diguna bera den, ala beste norbait. Bizipoza ez digu zapuzten, behintzat, pentsatu nuen, arreta handiagoz irakurriz. Datu gehitxo pilatzen ditu, hala ere, eta erdia ere ezin izango ditu erabili tamaina honetako liburu batean (*Jane Eyre*-ren erdia inguru zen liburua). Nolanahi ere, modu batera edo bestera lortu zuen gu denok —Roger, Chloe, Olivia, Tony eta Bigham jauna— kanoa batean sartzea, ibaian gora. Egon pixka batean, esan nuen, aulkian atzerantz botata, kontu hau guztia arreta handiagoz aztertu beharko dut aurrera egin aurretik.

Ia ziur nago, egin nuen neure artean, ziria sartzen ari zaigula Mary Carmichael. Errusiar mendian bezala sentitzen bainaiz; batek bagoiak beherantz egingo duela uste izan eta, bat-batean, gorantz abiatzen denean bezala. Espero dugun hurrenkera bihurritzen ari da Mary. Esaldia hautsi zuen aurrena; hurrenkera hausten ari da orain. Primeran: biak ala biak egiteko eskubide guztia du Maryk, baldin eta, gauzak hauste aldera ez, baizik eta zerbait sortzearen jokatzeko badu hala. Bi aukeretatik idazle horrena zein den ezin jakin, ordea, harik eta egoera bati nola aurre egiten dion ikusten dudana arte. Askatasun guztia emango diot nahi duen egoera aukeratzeko, esan nion neure buruari, pota eta lapiko zaharrekin osatzea dauka nahi badu, baina sinetsarazi egin beharko dit berak sinetsi egiten duela egoera ba-

ten aurrean dagoela, eta, hori egindakoan, aurre egin beharko dio egoera horri: jauzi egin beharko du. Eta Maryk bere idazle-lana betez gero nik neure irakurle-lana beteko nuela erabakita, orria pasatu, eta zera irakurri nuen... Barkatuko didazue eten zakar hau. Ez da ba gizonik egongo aretoan? Zin egiten didazue gortina gorri horren atzean ez dagoela sir Charles Bironen irudia ezkutatuta? Ziurtatzen al didazue hemen bildutako denak emakumeak garela? Hala bada, hona hemen irakurri nituen hurrengo hitzak: «Chloek gogoko zuen Olivia...». Ez zaitezte ikaratu. Ez zaitezte lotsagorritu. Hementxe, geure artean gaudela, onar dezagun halakoak gertatzen direla tarteka, batzuetan emakumeek gogoko izaten dituztela beste emakume batzuk.

«Chloek gogoko zuen Olivia», irakurri nuen, eta sekulako aldaketa iruditu zitzaidan. Chloek Olivia gogoko zuen lehenbiziko aldiz literaturaren historian, beharbada. Kleopatrak ez zuen Oktavia gogoko, eta *Antony and Cleopatra* guztiz bestelakoa izango zen hala gertatu balitz! Hala izanik, pentsatu nuen, gogoia *Life's Adventure*tik zertxobait urrunduz, soildu egiten da kontu guztia, eta zentzugabeki konbentzionala bihurtzen dela esatera ere ausartuko nintzateke. Kleopatrak Oktaviarekiko zuen sentipen bakarra jelsia zen. Ni baino altuagoa ote da? Nola orrazten du ilea? Antzezlanak ez zuen noski askoz gehiagorik beharko. Baina askoz interesgarriagoa izango zen bi emakumeen arteko erlazioa korapilatsuagoa izan balitz. Emakumeen arteko erlazioak, pentsatu nuen, literaturako emakumeen galeria oparoa gogora ekarriz, sinpleegiak izaten dira: alde batera uzten dira gauza asko eta asko, azaltzen saiatu ere egin gabe. Eta han hasi nintzen nire irakurraldietan bi emakumezko elkarren laguntzat aurkezturik datozen kasuen bila. Bada horretarako saio bat *Diana of the Crossways*en. Racineren liburuetan eta greziar tragedietan ere lagun minak

agertzen dira, noski. Ama-alabak ere aurkitzen ditugu tarteka. Baina ia salbuespenik gabe gizonetik erlazioan agertzen dira emakumeak beti. Bitxia zen jabetzea nola, Jane Austenen garaira arte, literaturako emakume gailen guztiak gizonen begietan ez ezik, haiekiko erlazioan baino ez diren agertzen, ikusirik halakoek puska txiki-txiki bat baino ez dutela hartzen emakumeen bizitzan eta gizon batek ezer gutxi jakin dezakeela horri buruz, sexuak sudur gainean jartzen dizkion betaurreko beltz edo arrosen atzetik begiratzen duelarik. Horri zor zaio beharbada literaturako emakumeen izaera berezia: ederretan ederrenak eta zatarretan zatarrenak dira, jainkosa zerutiarrak edo deabruaren pareko izaki doilorrak... Halaxe ikusten dituzte haien maitaleek, beren maitasunaren neurriaren, beren zorion edo zoritxarraren arabera. Gauzak ez dira horrela XIX. mendeko eleberrietan, jakina. Testu horietan askoz toles eta ñabardura gehiago dituzte emakumeek, eta konplexuagoak dira. Emakumeei buruz idazteko nahia izan zen gizonak drama poetikoak baztertzerantz bultzatu zituena, beren bortitzean ez baitziren batere egokiak emakumeentzat, eta, hala, eleberria asmatu zuten, ontzi egokiagoa zelakoan. Hala eta guztiz ere, oraindik ere nabarmen-nabarmena da, Prousten testuetan bertan ere, zeinen ezagutza mugatu eta partziala duten gizonen emakumeei buruz, eta emakumeek gizonen buruz.

Era berean, jarraitu nuen liburura itzulita, gero eta argiago dago emakumeek, gizonen bezalaxe, badituztela bestelako interesak etxeko kontuen gaineko arduraren betierekoaz gainera. «Chloek gogoko zuen Olivia. Laborategi berean lan egiten zuten biek...». Irakurtzen jarraitu nuen, eta jakin nuen bi emakume gazte haiek gibelak txikitzen jarduten zutela, sendabide egokia omen da-eta hori anemia kaltegarriaren aurka, nahiz eta, oker ez banago, haietako bat ezkondu eta bi haur txiki izan.

Kontu horiek alde batera utzi behar izaten ziren, noski, eta, on-dorioz, literaturako pertsonaia femeninoen deskribapen opa-roak soilegiak eta aspergarriak gertatzen dira askotan. Dema-gun, esate baterako, gizonak emakumeen maitale gisa baino ez direla agertzen literaturan, eta ez direla inoiz beste gizon, solda-du, pentsalari edo ameslari batzuen lagunak... Shakespeareren antzezlanetako pertsonaia gutxi ere gutxi egokituko litzaizkie-ke gizonari, eta literaturak galanki sufrituko luke orduan! Otelogehiena gorde ahal izango genuke, bai eta Antonioren puska handi bat ere, baina ez Zesar, ez Brutus, ez Hamlet, ez Lear, ez Jaques... Literatura izugarri pobretuko litzateke, emakumeei ateak itxi izanak literatura pentsa genezakeen baino askoz ere gehiago pobretu duen bezalaxe. Beren nahiaren aurka ezkonaraziak, gela batean giltzapetuak, eginkizun bakar batera kondenatuak... Nolaz emango zuen antzerkigileak haien irudi bete, interesgarri eta egiazkorik? Maitasuna zen interprete posible bakarra. Grinatsuak edo ozpinak izatea beste aukerarik ez zuten poetek, non eta ez zuten aukeratzen «emakumeak gorrotatzea», eta halako gehienak emakumeei eta, bide hori aukeratzen zutenean, emakumeentzat erakargarri ez zirela adierazten zuen horrek gehienetan.

Horrenbestez, baldin eta Chloek Olivia gogoko badu eta laborategi berean lan egiten badute biek —horrek bariatuago eta iraunkorrago egingo du haien adiskidetasuna, ez baita hain pertsonala izango—; baldin eta Mary Carmichaelek idazten badaki —hasita nengoen haren idazkeran halako kalitate bat sumatzen—; baldin eta gela bat badu beretzat —ez nago guztiz ziur horretaz— eta urtean bostehun libera —frogatzeke dagoe-na—, orduan uste dut garrantzi handiko gertakizun baten aurrean gaudela.

Izan ere, Chloek Olivia gogoko badu eta Mary Carmichael hori adierazten asmatzen badu, Maryk zuzi bat piztuko du orain arte inork urratu gabeko ganbera erraldoi honen erdian. Argi motelak eta itzal sakonak dira nagusi, bat kobazulo bihur-gunetsuetan barneratzen denean bezala, non zapaltzen ari den jakin gabe, kandela eskutan hartuta eta alde guztietara begira. Liburua irakurtzeari ekin nion berriro, eta irakurri nuen nola Chloek so egiten zion Oliviarri hark poto bat apal batean jarri eta etxeratzeko ordua iritsia zela zioela, haurrengana joateko. Mundua mundu denetik ez da inoiz halako eszenarik ikusi, bota nuen, eta neu ere begira jarri nintzen, jakin-minak jota. Jakin nahi nuen Mary Carmichael nola moldatu zen horrela jasotzeko emakumeak beren kasa daudenean, beste sexuaren argi apetsatu eta koloretsuak argiztatzeko ez dituenen, sabaiko sutsen itzalak bezain oharkabeki sortzen diren eta inoiz idatziz jaso ez diren halako keinuak, esan gabeko edo erdi esandako hitz haiek guztiak. Lortuko badu, arnasari eutsi beharko dio, pentsatu nuen, aurrera jarraiturik irakurketan; beti isil-gordeka bizitzera ohituta egonik, emakumeek errezeloz hartzen baitute motibazio argirik gabeko interes oro, eta ospa egiten dute begi bat berengana begira sumatu orduko. Modu bakarra duzu hori egiteko, pentsatu nuen, aurrean banu bezala zuzenduz Mary Carmichaeli: beste zerbaitetaz hitz egin behar duzu, leihotik begiratu behar duzu adi-adi, eta idatzi egin behar duzu, oraindik inor gutxik ahoskatutako hitzetan, baina ez arkatza eta koaderno erabiliz, takigrafia estu-estua baizik, zer gertatzen den Oliviarri, milioika urtez harkaitz baten itzalpean egon den izaki horrek, argia sumatzen duenean bere soinean eta jaki bitxi bat gerturatzeko zaionean: jakituria, abentura, artea. Besoak luzatzen ditu argia harrapatzeko, pentsatu nuen, begiak orritik jasoz berriro, eta bere baliabideak, beste xede batzuetarako hain bikain garratuak, beste modu batera erabili beharko ditu, hartara berrita-

suna molde zaharretan txertatzeko, osotasunaren oreka infinituki korapilatsu eta konplexua apurtu gabe.

Zoritarrez, baina, ez egitea erabakita neukana egiten ari nintzen, eta hortxe ari nintzen neure sexuaren gorazarretan, konturatu gabe. «Hain bikain garatuak», «infinituki korapilatsua»..., gorrespeneko hitzak dira horiek, inondik ere, eta norberaren sexua goraiatzea susmagarri gertatzen da beti, eta ergel samar ere bai askotan; gainera, nola justifika litezke hitzok kasu honetan? Batek ezin zuen, mapara joan, eta esan Kolonek aurkitu zuela Amerika eta Kolon emakumea zela; edo sagar bat hartu, eta Newtonek aurkitu zituela grabitatearen legeak eta Newton emakumea zela; edo zerura begiratu, eta hegazkinak hegan doazela han goian eta emakumeek asmatu zituztela hegazkinak. Ez da inolako markarik horman, emakumeen garaiera zehatza neurtzeko. Ez da metrorik, txukun-txukun milimetrotan zatiturik, ama on baten dohainak, alaba baten jaiera, ahizpa baten leialtasuna edo etxeoandre baten egokitasuna neurtzeko. Oraindik ere gutxi dira unibertsitateko titulurik eskuratu duten emakumeak; eta gutxi-gutxi dira, halaber, lanbideen munduan, lur eta itsas armadetan, merkataritzan, politikan eta diplomazian saiatutakoak. Gehienak ere sailkatu gabe daude oraindik. Baina, esate baterako, sir Hawley Buttsi buruz gizakiek idatzi duten guztia jakin nahi banu, aski nuke Burkerren edo Debretten liburuak irakurtzea, eta hantxe ikasiko nuke halako eta halako ikasketak egin zituela, oinetxe baten jabe dela, oinordeko bat duela, batzorde bateko idazkaria izan zela, eta Britainia Handiaren ordezkaria Kanadan, eta tituluak, ardurak, dominak eta bestelako goragarriak jaso dituela, bere merezimenduen marka ezabaezina ematen diotenak. Probidentziak baino ez daki hainbeste sir Hawley Buttsi buruz.

Horrenbestez, emakumeez ari naizela, «hain bikain garatuak» eta «infinituki korapilatsuak» diodanean, ezinezkoa zait halakoak egiaztatzea Whitakerren, Debretten nahiz unibertsitateko almanakaren laguntzaz. Zer egin dezaket ataka zail honetan? Liburutegira jo nuen berriro, biografien atalera: hantxe zeuden Johnson, Goethe, Carlyle, Sterne, Cowper, Shelley, Voltaire, Browning eta beste askorenak. Eta gogoan hartu nituen orduan, arrazoi bat edo beste zela medio, beste sexuko pertsona jakin batzuk miretsi, bilatu, haiekin bizi, haietaz fidatu, haiek maitatu, haiei buruz idatzi eta haiengan konfiantza jarri izan duten gizon gailen haiek guztiak, beste sexuko pertsona haiei premia edo mendekotasun gisa baino ulertzerik ez dagoen zerbait erakutsi izan dieten gizon haiek guztiak. Erlazio haiek guztiak zeharo platonikoak zirenik ez nuke esango, eta sir William Joynson Hicksek ere ukatu egingo luke hori ziurrenik. Gizon gailen haiei huts handia egingo genieke, ordea, esango bagenu erosotasuna, losintxak eta haragizko plazerak beste ezer ez zutela eskuratu elkartzeko haietatik. Argi dago beren sexuak eskaintzerik ez zeukan zerbait eskuratu zutela; eta ez ginatke okertuko, baldin eta, areago zehaztu eta, poeten hitz grinatsuetara jo gabe, esango bagenu sormena berritzeko akuilu bat zela zerbait hori, beste sexuak baino eskaintzerik ez daukana. Gizonak egongelako edo jolasgelako atea ireki, pentsatu nuen, eta hantxe aurkituko zuen emakumea, hurrez inguratuta beharbada, edo bordatua belalun gainean jarrita, bestelako bizi-sistema edo -antolamendu baten erdian inolaz ere; eta mundu horren eta bere Komunen Ganberako nahiz epaitegietako munduaren arteko aldea bizigarri eta suspergarri gertatuko zitzaion; eta berriketarik xumeanean ere bien artean zegoen berezko aldeak lagundu egingo zion bere ideia ihartuak berriz ernaltzen; eta, emakumea han ikusirik, zerbait sortzen, bereaz guztiz bestelako ingurune batean, bizkortu egingo zitzaion sormena eta, konturatu gabe,

martxan jarriko zen berriro gizonaren gogo antzua, eta berehala aurkituko zituen, emakumea ikustera joateko kapela janzten ari zenean burura etortzen ez zitzaizkion esaldi eta eszenak. Johnson orok du bere Thrale, eta estu eusten dio hari, aipatu berri ditugunen moduko arrazoiengatik; Thrale bere musika-irakasle italiarrarekin ezkontzean, Johnsonek burua galtzen du amorruek eta nahigabeak jota, ez soilik Streathameko arrastiri atseginak galduko dituelako, baizik eta bere bizitzako argia «itzali» dela sentituko duelako.

Eta, Johnson doktorea, Goethe, Carlyle nahiz Voltaire izan gabe ere, aise ikusten du batek, gizon gailen haiek ikusiko luketenez bestela ikusi arren, emakumeen artean guztiz garatuta dagoen sorkuntzarako gaitasun horren konplexutasun eta indarra. Sartu da bat gela batean... Gure hizkuntzaren baliabideak muturrera eraman beharko genituzke, baina, eta hitz samalda handiek bizitzara sortu beharko lukete hegalkak gogor astinduz bidegabeki, gela batean sartzen delarik emakume batek han gertatzen dena esaterik izan aurretik. Guztiz desberdinak dira gelak: badira gela lasaiak, eta gela zaratatsuak; itsasora ematen dutenak edo, aitzitik, espexeko patiora ematen dutenak; arropa garbia zintzilik dago batzuetan, eta opaloz eta zetaz apainduta daude besteak; zaldiaren zurdak bezain lakarrak dira batzuk, eta lumak bezain bigunak besteak; edozein kaletako edozein gelatan sartu besterik ez du batek, eta berehala sumatuko du emetasunaren indar txit konplexua. Nola izango da, bada, bestela? Emakumeek milaka eta milaka urte daramatzate etxe barruan itxita, eta etxeko horretara ere iritsi da honezkeroroi haien sormena, eta sormen horrek hainbeste gainkargatu du adreiluaren eta morteroaren ahalmena, ezen, ezinbestekoa baitu arkatzak eta pintzelak, negozioak eta politika baliatzea euskarri gisa. Gizonek dutenaz guztiz bestelakoa da sormen hori, ordea.

Eta ondorioztatu beharra dago pena ikaragarria litzatekeela sormen hori zapuztea edo alferrik galtzen uztea, mende luzetako diziplinarik zorrotzenaren fruitua delako eta ez dagoelako haren lekua beteko lukeen ezer. Guztiz penagarri litzateke emakumeek gizonek bezala idaztea, edo haiek bezala bizitzea, edo haien antza izatea: munduaren aniztasun eta zabaltasun ikaragarria kontuan izanik, bi sexu nahikoa ez dira eta, nola moldatuko ginatke bakar batekin? Hezkuntzak ez al lituzke, bada, desberdintasunak azaleratu eta indartu beharko, eta ez hainbestean geure arteko antzekotasunak? Badugu antz nahikoa dagoeneko, eta, esploratzaile bat etorriko balitzaigu beste zero batzuen azpiko zuhaitz-adarren artean aurkitutako beste sexu batzuen berri ematera, mesede galanta egingo lioke gizate-riari; eta ikuskizun atsegingarri askoa eskainiko liguke horrek, hortxe ikusiko baikenuke X irakaslea bere neurri-hagen bila abiatzen ziztu bizian, bera «gehiago» dela frogatzeko.

Neure artean egin nuen, oraindik distantzia apur batetik begiratuz orriari, Mary Carmichaelek ez zuela lan gutxi behatzaile izate hutsarekin ere. Beldur naiz ez ote den tentatuta sentituko nire ustez interesik gutxien duen bidea aukeratzeko: eleberrigile naturalista izatekoa, alegia, eta ez eleberrigile kontenplati-boa. Ezin konta ahala berritasun ditu kontu egiteko. Klase goi-ertaineko etxe errespetagarrietara mugatzeari utzi ahal izango dio orain. Ez adeitasun edo kondeszendenziaz, laguntasun-gogoz baizik sartuko da gortesauak, urdangak eta dama txakur txolindunak egoten diren gelatxo lurrunduetan, eta ikusiko du gizonezko idazleek ezinbestean egokitu behar izan dizkieten jantzi zakar eta arruntak daramatzatela oraindik. Mary Carmichaelek, baina, guraizeak atera eta tarte eta angelu guztietara egokituko dizkie arropak. Horretarako aukera iristen zaiguan, ikuskari bitxia izango da emakume horiek diren horretan

ikustea, baina itxaron beharko dugu pixka batean, gure arlotekeria sexualaren ondorioz «bekatuak» eragiten duen lotsaren zama sentituko baitu Mary Carmichaelek oraindik. Klasearen kate traketsak orkatiletan lotuta eramango ditu oraindik.

Nolanahi ere, emakume gehienak ez dira ez urdanga ez gortesau, eta ez dituzte udako arratsaldeak ematen belus zikinen gainean etzandako txakur txolinak laztantzen. Zer egiten dute, orduan?, eta ibaiaren hegoaldeko kale luze horietako bat etorri zitzaidan burura, bere etxe-ilara jendeztatuekin. Amona xahar bat irudikatu nuen, kalea zeharkatzen adin ertaineko emakume baten besotik helduta —alaba, beharbada—, bota eta larru hain dotorez jantzita biak, ezen, arratsalderoko jantzea erritual hutsa izango baitzen haientzat, eta, urterik urte, kanfordun armairuetan gordeko baitzituzten noski arropak udako hilabeteetan. Kalle-argiak pizten dituztenean zeharkatzen dute kalea (ilunabarra da haien ordu kuttuna), urteak joan urteak etorri egin duten moduan. Zaharrenak laurogei urte izango ditu, baina bizitzak beretzat zer esanahi izan duen galdetuz gero, Balaklavako gudurako argizatutako kaleak, edo Edward VII. erregearen jaio-tegunean Hyde Parken entzundako kanoi-hotsak gogoratzen dituela erantzungo luke. Gertakarien data eta sasoi zehatza finkatu nahian, 1868ko apirilaren 5ean edo 1875eko azaroaren 2an zertan zebilen galdetuz gero, berriz, harrituta begiratu, eta erantzungo luke ez dela ezertaz gogoratzen. Afari guztiak presatatuta, plater eta ontziak garbituta, eta haurrak eskolaratuta eta munduratuta baitaude dagoeneko, eta ez baita ezer gelditzen horretatik guztitik. Desagertu egin da dena. Horri buruz ez da hitzerdirik esaten inongo biografia edo historia-liburutan. Eta eleberriek, nahigabe, gezurra diote ezinbestean.

Bizitza infinituki ezezagun eta ilun horiek guztiak kontatzeke daude, esan nion Mary Carmichaeli, aurrean banu bezala; eta Londresko kaleak zeharkatu nituen neure gogoan, mututasunaren presioa, inork inon jaso gabeko bizitza ezezagun haien metaketa sentituz neure irudimenean, eta hantxe ikusi nituen emakumeak kale izkinetan, eskuak gerrian jarrita, eraztuz jositako beren hatz puztuekin, Shakespeareren hitzetan sumatzen denaren antzeko imintzio kulunkariak eginez hitz egitean; eta bioleta-saltzaileak, pospolo-saltzaileak eta sorgin zaharrak, atalondoetan babestuta; eta, eguzki- eta hodei-uhinen antzera, aurpegian gizon eta emakumeen joan-etorria eta erakusleihoetako argien dirdira islatzen duten neskak alderraiak. Jaso gabe zegoen haien guztien bizitza. Suzia eskutan tinko hartu, eta ikertu egin beharko duzu hori guztia, esan nion Mary Carmichaeli. Zeure arima argiztatu beharko duzu batez ere, haren sakonera eta azalera, haren handikeria eta eskuzabaltasuna, eta azaldu beharko duzu zure edertasun edo zatartasunak zer esan nahi duen zeuretzat, eta zer erlazio duzun marmol faltsuko zoruen gainean hedatzen diren oihalen galeria komertzialetako botikarien potoetatik datorren lurrin arinen artean gora eta behera kulunkatzen diren eskularru oinetako eta apaingarrien mundu etengabe aldakor horrekin, hortxe agertzen direnak botikarien potoetatik datozen lurrin arinen artean kulunkan gora eta behera, marmol faltsuko zorueta hedatutako oihalez osatutako arkuen azpian. Denda batera eraman baininduen irudimenak: zuri-beltza zuen zorua, eta kolorezko laxo eder miragarriak hormetatik zintzilik. Mary Carmichaelek egingo zion begiratu bat pasaeran, noski, pentsatu nuen, Andeetako arroila harritsu bat edo tontor elurtu bat bezain ikuskizun aproposa baita idatziz jasotzeko. Eta hortxe dago salmahaiaren atzeko neska ere. Nik behintzat nahiago nuke haren benetako historia irakurri, Napoleonen ehun eta

berrogeita hamargarren biografia edo Keatsi eta haren inbertsio miltonikoari buruz Z irakaslea eta haren kidekoak oraintxe idazten ari diren hirurogeita hamargarren ikerketa baino. Eta, orduan, zuhurtzia handiz eta oin-puntetan bezala (koldar hutsa bainaiz, aspaldi batean bizkarra berotzear izan nuen zartailuaren beldurrez), ahapeka esan nuen hari ere komeni zitziola ikastea beste sexuaren harrokeriei —bitxikeriei, hobe esanda, hitz ez hain iraingarri bat erabiltzearren— barre egiten, mingostasunik gabe. Izan ere, denok dugu puntu bat garondoan, shilling baten tamainakoa, norberak ikusterik ez duena. Horra sexu batak besteari egin liezaiokeen mesedeetako bat: garondoan dugun shilling baten tamainako puntu hori deskribatzea. Pentsa zenbat emakumek baliatu dituzten Juvenalen azalpenak, Strindbergen kritikak. Pentsa gizonek zenbateko gizatasun eta distiraz seinlatu dieten emakumeei garondoko puntu ilun hori, antzina-antzinatik. Eta Maryk, baldin eta guztiz ausart eta zintzoa balitz, beste sexuaren atzean jarri, eta esango liguke zer ikusten duen han. Ezinezkoa da gizon baten erretratu bere osotasunean margotzea, emakume batek shilling baten tamainako puntu hori deskribatu artean. Woodhouse jauna eta Causabon jauna tamaina eta mota horretako puntuak dira. Bere senean dagoen inork ez lioke, noski, gizonak barregarri uzteko eta haiei iseka egiteko aholkatuko Maryri; literaturak argi erakusten digu asmo horrekin idatzitakoen hutsaltasuna. Esazu egia, gomendatuko lioke batek, eta baietz emaitza interesgarriak lortu: aberastu egingo da komedia, eta datu ezezagunak azaleratuko dira.

Nolanahi ere, bazen garaia liburuko orrietara itzultzeko begirada. Mary Carmichaelek zer idatz zezakeen eta zer idatzi behar lukeen maiseatu ordez, hobe nuen begiratzea ea Mary Carmichaelek zer idatzi zuen; hala, irakurtzen hasi nintzen

berriro. Gogoratu nintzen banituela kexa batzuk haren aurka. Jane Austenen esaldi-moldea hautsia zuen, eta horrek galarazi egiten zidan neure gustu dotore eta belarri zorrotzaz harropuzteko aukera. Alferrikakoa baitzen esatea «Bai, bai, oso polita, baina Jane Austenek askoz hobeto idazten zuen zuk baino», kontuan izanik inolako antzik ez zela bien artean. Gero, urrunago jo eta segida hautsi zuen; espero dugun ordena, alegia. Konturatu gabe jokatuko zuen hala, beharbada, gauzei berezko hurrenkera emanaz, emakume batek egingo lukeen moduan, emakume batek bezala idatziz gero. Baina haustura hori txundigarri samarra gertatzen zen, batek ezin zuelako ikusi nola zihuan pilatuz uhina, eta krisi bat gerturatz hurrengo kantoitik. Horrenbestez, ezin nintzen harroturik ibili neure sentimendu bizien eta giza bihotzaz nuen ezagutza sakonaren kontura, zeren, betiko lekuetan maitasunari eta heriotzari buruz betiko gauzak sentitzeaz nengoen bakoitzean, izate dontsu hark tira egiten baitzidan, garrantzitsuena betiere haraxeago balego bezala. Eta, hala, galarazi egiten zidan nire esaldi arranditsuak botatzea «oinarrizko sentimendu»ei, «gizateriaren materia komun»ari eta «giza bihotzaren barren-barren»ari buruz eta, azalean oso bizkorrak izanagatik, muinean oso serioak, oso sakonak eta oso gizatiarrak garelako sinesmenari eusten dioten esamolde horiek guztiak hedatzea. Sentiarazten zidan ez ote ginen, serioak, sakonak eta gizatiarrak izan beharrean, gogo alferrekoak eta, gainera, konbentzionalak, eta ez zen hori batere ideia erakargarria.

Irakurtzen jarraitu, eta beste xehetasun batzuez jabetu nintzen. Mary Carmichael ez zen inolako «jenioa», hori argi zegoen. Ez zuen bere aurrekari handiek —lady Winchilseak, Charlotte Brontëk, Emily Brontëk, Jane Austenek eta George Eliotek— naturaren aurrean ageri zuten maitasunik, irudimen bizirik,

poesia basatirik, grazia distiratsurik edo jakinduria urragarri-rik; haren idazkerak ez zuen Dorothy Osborneren melodia eta duintasunik; azken batean, neskata bizkor bat besterik ez zen, eta haren liburuak paper-orea besterik ez dira izango hamar urte barru. Nolanahi ere, abantaila batzuk bazituen, berak baino askoz dohain handiagoko emakumeek mende erdi lehenago izan ez zituztenak. Gizonak dagoeneko «alderdi aurkaria» ez zirenez, Maryk ez zuen denbora galtzen ibili beharrik haien aurkako protestetan; ez zuen zertan etxegainera igo, eta burua higitzeraino gogoetatu ea noiz izango zituen eskuragai ukatuak zitzaizkion bidaiak, esperientziak eta munduaren eta jendearen ezagutza. Joanak ziren ia erabat beldurra eta gorrotoa; asko jota, askatasunak ematen zion poza gehitxo adierazi behar halako batean nabari zitzaizkion edo erromantizismoaren partez garrazkeriara eta satirara jo behar halako batean, beste sexuarekiko tratuan. Ukaezina zen goi-mailako gaitasun berezkoak zituela eleberrirako. Zabal, goseti eta askea zen haren sentiberatasuna, eta ozta-ozta hautematen zen estimulu bati erantzuten zion. Lurrazalera irten berritako landareak nola, halaxe ospatzen zuen hurbiltzen zitzaion irudi eta soinu oro. Eta gauza ia ezezagun eta aditu gabeak ere besarkatzen zituen, jakin-min eta sotiltasun handiz; gauza txikiakin pizten zen, eta erakusten zuen ez zirela beharbada hain txikiak. Argira ekarri zituen lurpean gordetako gauzak, eta bati pentsarazten zion ea zertarako lurperatu ote zituzten. Traketsa zen, eta ez zuen Thackeray baten edo Lamb baten idazlumaren arrastorik arinena ere belarrien gozagarri bihurtzen duen tradizio luzerik; hala ere, pentsatzen hasi nintzen ederki gauditua zuela lehenbiziko ikasgaia: emakume batek bezala idazten zuen, emakumea dela ahaztu duen emakume batek bezala, ordea, eta, horri esker, haren orrialdeak beteta zeuden geure sexuaz jabetzen ez garenean baino azaleratzen ez den gaitasun sexual bitxi horretaz.

Hori guztia primeran zegoen, baina alferrikakoak izango zitzaizkion bere sentipen ugariak eta bere ulermen zorrotza, baldin eta zutik iraungo zuen eraikin iraunkor bat eraikitzeko gai ez bazen iheskor eta pertsonala denarekin. Esana dut itxarongo nuela «egoera bati» nola aurre egiten zion ikusi arte; alegia, bere dei, keinu eta antolabidearen bidez erakusten zidan arte ez zela mugatzen azalerak urratzera, eta begiratzen zuela sakonean ere. Bada garaia, esango zion bere buruari halako batean, honen guztiaren esanahia aditzera emateko ezer bortitzik egin gabe. Eta hantxe hasiko zen —hori bai susperraldi nahasezina!— deika eta keinuka, eta gogora etorriko litzazkioke orduan, beste kapitulu batzuetan agertu ondoren erdi ahaztuta gelditutako pasarte beharbada axaleko samarrak. Eta haien presentzia ikusaraziko zuen, baten bat josten edo pipa erretzen ari zela modurik naturalenean, eta, gure idazleak idatzi ahala, munduaren tontorreraino igo eta mundu osoa bere oinen azpian hedatua ikusiko balu bezala sentituko litzateke bat.

Saiatzen ari zen, behintzat. Eta proba hartarako prestatzen ari zela hari begira nengoela, hantxe ikusi nituen (ez ahal zituen hark ikusiko) gotzain eta deanak, doktore eta katedradunak, patriarka eta pedagogoak, hari oihuka denak batera, beren ohar eta aholkuekin: Ez egin hori, ez esan halakorik! Unibertsitateko kideak bakarrik sar daitezke belarretara! Emakumeek debekaturata daukate sarrera aurkezpen-gutunik gabe! Eleberrigileak izan nahi duzuen emakume segailok, hemendik! Oihuka ari zitzaizkion horrela, zaldi-lasterketa batean hesi ondoan pilatutako jendetzaren antzera, eta ezker-eskuinera begiratu gabe hesia gainditzea zen hark pasatu beharreko proba. Madarikatze-ko gelditzen bazara, jai duzu, esan nion; gauza bera barre egiteko gelditzen bazara. Duda egin edo hanka sartu, eta zureak egin du. Jauzian bakarrik pentsatu, erregutu nion, neure diru

guztia haren alde jokatu banu bezala; eta txoriak bezain arin gainditu zuen hesia. Bazen beste hesi bat aurrerago, ordea, eta beste bat harago. Ez nekien ziur ba ote zuen jarraitzeko indarrik, nor bere onetik ateratzeko modukoak ziren-eta txaloak eta oihiak. Baina ahal zuen ongien jarraitu zuen. Kontuan izanik Mary Carmichael ez zela jenio bat, logela-egongela batean bere lehen eleberria idazten ari zen eta izatea komeni den gauza horrietatik -denbora, dirua eta aisia- behar beste ez zituen neskak ezezagun bat baizik.

Eman emakume horri beste ehun urte, ondorioztatu nuen, azken kapitulua irakurriz —jendearen sudur eta sorbalda biluziak ageri ziren zeru izartsuaren kontra, norbaitek gortinak ireki baitzituen egongelan—, eman gela bat berarentzat eta bostehun libera urtean, utzi esateko dauzkanak esaten eta erdiraino arintzen orain hor jartzen duena, eta idatziko du egun hauetakoren batean liburu bat hobea. Poeta bat izango da, esan nuen, hantxe apalaren muturrean kokaturik Mary Carmichaelen *Life's Adventure*, ehun urte barru.

SEI

Biharamunean, urriko goiz hartako argi-izpi urdinxkak sartzen ziren gortinarik gabeko leihoetan barrena eta zirkulazioaren burrunba iristen zen kaletik. Suspertzen ari zen berriro Londres; zalaparta betean ziharduen fabrikak; martxan jartzen hasita zeuden makinak. Tentagarria zen, hainbeste irakurri eta gero, leihotik kanpora begiratzea Londres zertan zebilen ikusteko, 1928ko urriaren 26ko goiz hartan. Eta zertan zebilen, bada, Londres? Ez zirudien inor ari zenik *Antony and Cleopatra* irakurtzen. Londreski ez zitzaizkion batere ardura, antza, Shakespeareren antzezlanak. Jendeari bost axola zitzaion —ulertze-koa denez— literaturaren etorkizuna, poesiaren heriotza edo emakume arruntek aurkitzen ote zuten prosa-estilo bat egokia beren gogoetak aditzera emateko. Baten batek klariona hartu, eta gai horiei buruzko iritziak idatzi balitu espaloian, inor ez zen makurtuko haiek irakurtzera, eta urrats presati ezaxolek ordu erdian ezabatuko zituzten hizkiok. Mandatari bat ikusi nuen pasatzen; emakume bat gero, zakur bat zekarrela uhaletik helduta. Londresko kaleek liluratu egiten dute bat, ez baitira aurkitzen han bi pertsona berdin inola ere; bakoitzak dirudi bere zeregin berezian zeharo murgilduta. Bazen itxura profesionaleko jendea, bere zorro txikiekin; baziren nora gabeko ibiltariak, zarata ateratzen makulua hesien artean labainduz; baziren kalea bilera-gelatzat duten pertsonaia adeitsuak, gurdietan zihoazen gizonak agurtzen eta eskatu gabeko informazioa ematen. Baziren hiletak ere, eta gizonak, bat-batean gogoraturik beren gorputza ere noizbait hilko zela, kapela kentzen zuten segizioa ikustean. Horretan, gizon txit goren bat jaitsi zen eskaileratan behera poliki-poliki, eta bertan gelditu zen, kalean

barna zetorren emakume gartsuaren kontra ez jotzeko. Hantxe zetorren emakumea, auskalo non eskuratutako larruzko beroki bikain bat soinean eta Parmako bioleta sorta bat eskuan. Denek ziruditen elkarrengandik bereziak, beren baitara bilduak, nor bere arazoez arduraturik.

Une horretan, Londresen askotan gertatzen den moduan, mugimenduaren baretze eta gelditze erabateko bat gertatu zen zirkulazioan. Ez zetorren ibilgailurik kalean behera; ez zebilen inor batera eta bestera. Hosto soil bat berezi zen kalearen beste muturreko platanondotik, eta, etenaldi eta barealdi hartan, lurrera amildu zen. Ikur baten modukoa zen nolabait, oharkabean pasatu ohi zaizkigun gauzen baitako indar batez ohartzarazten gaituen ikur baten modukoa. Ematen zuen ibai bat seinatzen zuela, kantoia hartu eta hor doalarik, ez-agerian, kalean behera jendea harrapatu eta hantxe eramanez zurrunbiloka, Oxbridgeko ibaiak ikaslearen txalupa eta hosto hilak eraman zituen bezala. Une horretan, kalearen alde batetik bestera zeharka, txarolezko botaz jantzitako neska bat ekarri zuen ibaiak, eta gizon gazte beroki granatez jantzi bat ere; eta taxi bat; eta hirurak elkartu zituen nire leihoaren azpiko puntu batean; eta hantxe gelditu zen taxia; eta hantxe gelditu ziren neska eta mutil gaztea ere; eta orduan taxira igo, eta aldendu egin ziren, ur-lasterak beste norabait eramanak bezala.

Gutziz arrunta izanagatik ikuskizuna, harrigarria zen, batetik, nolako hurrenkera erritmikoa hartua zuen nire irudimenean, eta, bestetik, taxi batera igotzen diren bi pertsonaren ikuskizun arrunt horrek halako indarra izatea zerbait aditzera emateko haiek itxuraz ageri zuten pozaz. Kalean behera datozen eta kantoi batean elkartzen diren bi pertsonaren eszenak zertxobait baretzen du, antza, burua, pentsatu nuen, taxiak kantoia hartu,

eta ospa egiten zuelarik. Esfortzu handiegia izango zen, behar-bada, bi sexuak bereizten saiatzea, aurreko bi egunetan jardun nuen moduan. Eragotzi egiten du gogoaren batasuna. Esfortzua amaitua zen jada, eta gogoaren batasuna leheneratua, bi pertsona kalean elkartu eta taxi batean igotzen ikustearekin bat. Organo misteriotsua da inondik ere gogo, pentsatu nuen burua leihotik aldenduz, eta ezer gutxi dakigu hari buruz, haren mende egonagatik erabat. Zergatik iruditzen zait hausturak eta aurkaritzak daudela gure gogoan, gorputzean, ageriko arrazoiengatik, tentsioak dauden modura? Zer esan nahi du batek «gogoaren batasun» horrekin?, hausnartu nuen, ez baitirudi, edozein unetan edozein puntutan kontzentratzeko duen ahalmen itzela kontuan hartuta, egoera bakar batez osatuta dagoenik. Kaleko jendearengandik aldendu eta bere burua haiengandik bereizita irudika dezake; adibidez, leiho garai batetik haiei begira balego bezala. Edo beste pertsona batzuekin batera pentsa dezake, berez, albiste bat entzuteko bildutako jendetzaren erdian balego bezala, esate baterako. Bere aiten bidez pentsa dezake, edo bere amen bidez bestela, idazten duen emakumeak bere amen bidez pentsatzen duen bezala. Bestalde, bat emakumea bada, ustekabean kontzientzia zatitzen zaiola senti dezake bat-batean, Whitehalletik pasieran doala, adibidez, zibilizazio horren oinordeko naturala izateari utzi eta izaki baztertu, arrotz eta kritikatzailerik bat bihurtzen delarik. Bistan denez, etengabe ari da gogo bere arreta-gunea aldatzen eta munduari ikusmolde berriak eskaintzen. Gogo-giro horietako batzuk, baina, berez geureganatuak diruditen arren, ez dira besteak bezain erosoak. Gogo-giro horiei eusteko, bat etengabe ari da zenbait kontu beretzat gordetzen oharkabean, eta errepresio hori esfortzu gogorra bihurtzen da azkenerako. Baina izango da noski nekerik gabeko gogo-giroren bat, geure baitan ezer gordetzeko esfortzurik eskatzen ez diguna. Oraingo hau, esaterako, pentsatu nuen leihotik urrunduz, bikotea taxian

sartzen ikustean, banatuta egon eta gero bere berezko batasunera itzuli balitz bezala sentitu bainuen neure gogo. Horren arrazoi agerikoa izan liteke naturala dela bi sexuak elkarlanean jardutea. Batek sen sakon, nahiz irrazional, bat du gizonen eta emakumeen arteko batasunak pozik handiena eta zorionik erabatekoena dakartzala dioen teoriaren alde. Baina bi pertsona haiek taxi hartan sartzen ikusteak eman zidan pozak galdera batzuk piztu zizkidan: bi sexu al ditu gure gogoak, bi sexu fisikoekin bat datozenak?, eta bat eginda egon behar al dute bi sexu horiek poz eta zorion erabatekoa lortzeko? Hantxe ekin nion arimaren plano kaskar bat zirriborrateari: gutako bakoitzaren baitan bi indar gailentzen dira, maskulinoa eta femeninoa; gizonen burmuinean indar maskulinoa nagusitzen da femeninoaren gainetik, eta emakumeen burmuinean, berriz, indar femeninoa maskulinoaren gainetik. Egoera normal eta eroso batean biak harmonian bizi dira elkarrekin, lankidetzan espiritualetan. Bat gizona bada, bere burmuinaren alde femeninoaren eragina ere jasoko du noski, eta emakume batek ere izan beharko du trataturik bere baitako gizonarekin. Hori zen, beharbada, Coleridgek adierazi nahi zuena, adimen handiak androginoak direla esan zuenean. Batasun hori gertatzen denean baino ez da lortzen gogo guztiz ernaltzea eta bere ahalmen guzti-guztiak erabiltzea. Gogo soilik maskulinoarentzat, ezinezkoa izango da noski sorkuntza, eta gogo soilik femeninoarentzat ere berdina. Nolanahi ere, ondo legoke, pare bat liburu hartu, eta begiratzea zer esan nahi duen batek gizon femenino eta emakume maskulino terminoekin.

Adimen handiak androginoak direla esan zuelarik, Coleridge ez zen ari emakumeak gogoko dituzten adimenez, ez eta haiekin bat egiten duten edo haiek interpretatzera emanak diren adimenez, inondik ere. Adimen androginoak desegokiagoak dira, beharbada, halako bereizketak egiteko, sexu bakarreko adimenak

baino. Adimen androginoa burrunbatsua eta porotsua dela esan nahiko zuen agian; oztoporik gabe transmititzen dituela emozioak, eta berez dela sormentsua, goria eta zatitu gabea. Izan ere, bati Shakespeare datorkio gogora adimen androginoaren, adimen maskulino-femeninoaren eredu gisa, nahiz eta ez dagoen jakiterik Shakespearek zer iritzi zuen emakumeez. Eta, egia izanik ere adimen guztiz garatuen bereizgarrietako bat dela sexuaz ez pentsatzea ez modu berezian ez modu bereizian, inoiz baino zailago zaigu gaur egun egoera horretara iristea. Bizirik dauden idazleen liburuetara jo nuen orduan, eta hausnarrean egon nintzen pixka batean ea ez ote zen egitate hori aspaldi nahasirik nindukan zerbaiten kausa. Ez da izan beste arorik, gure aurretik, sexuaz hainbeste arduratu denik; horren froga garbia dira emakumei buruz gizonen idatzitako ehunka liburuak, British Museumen gordeak. Sufragioaren aldeko kanpainak izan zuen errua, zalantzarik gabe. Auto-afirmaziorako nahi sekulakoa eragingo zien gizonen; beren sexua eta haren berezitasunak nabarmentzera bultzatuko zituen, nahiz eta, inork aurre egin izan ez balie, ez ziren inoiz gaiokin kezkatuko. Eta, bati aurre egiten diotenean, kapela beltzez jantzitako emakume gutxi batzuk izanda ere aurre egiten diotenak, batek erantzun egiten du, eta, aurretik inork aurre egin ez badio halakoari, neurrigabea izan daiteke erantzun hori. Beharbada horrek argitzen dizkigu hemen aurkitutako ezaugarri batzuk, pentsatu nuen apaletik beste eleberri bat hartuz, A jaunarena oraingoan. Adinaren lorean dago A jauna, eta, antza denez, oso estimu handitan dute kritikariek. Liburua ireki nuen. Esan beharra daukat poza eman zidala gizon baten idazkera irakurtzea berriro ere. Hain ziren zuzenak eta zintzoak haren hitzak, emakumeen testuak irakurri eta gero. Adimen aske bat, pertsona libre bat eta konfiantza sumatzen dira hitzotan. Batek halako ongizate fisiko bat sumatzen zuen ondo hazi eta hezitako gogo libre haren aurrean, sekula ezer

ukatu ez eta bidea oztopatu ez dioten eta sortzetik beretik nahi zuen bidetik jotzeko askatasuna izan duen gogo haren aurrean. Hori guztia miresgarria zen, baina, pare bat kapitulu irakurri eta gero, itzal moduko bat hedatu zen orrian, alderik alde. Marra zuzen ilun bat zen, «I» letraren formako itzal bat^{*}. Han-hemenka begiratzen hasten zen bat, begiz jo nahian atzeko paisaia. Zuhaitz bat zen, ala oinez zihoan emakume bat, ez nekien ziur. Han zegoen bat berriro «I» letraren inguruan dantzan. «I» hartaz aspertzen hasita zegoen bat. Egia da «I» hura «I» guztiz agurgarri bat zela; zintzoa eta logikoa; intxaurra bezain gogorra, eta haziera eta heziera onek findua menderik mende. Nire miresmen eta begirune guztia merezi du «I» horrek. Baina —pare bat orri pasa nituen orduan, zerbaiten bila—, txarrena da lainoa bezain itxuragabea dela guztia «I» horren itzalpean. Zuhaitz bat ote da? Ez, emakume bat. Baina... ez du hezur bakar bat ere gortutzean, pentsatu nuen Phoeberi begira, horixe baitzuen izena, hondartzaren bestaldetik zetorrela. Alan jaiki zen orduan, eta haren itzalak Phoebe ezabatu zuen. Alanek iritziak baitzituen, eta Phoebe itota gelditzen baitzen Alanen iritzi-oldearen azpian. Alanek, pentsatu nuen, baditu bere grinak ere; eta orriak pasatzen hasi nintzen, azkar-azkar, sumatuz bazetorrela krisia, baita etorri ere. Hondartzan gertatu zen krisia, eguzkipean, denen begi-bistan. Kemen handiz egin zuten dena, modu ezin zantarragoan. Baina... Gehiegitan esana nuen «baina». Batek ez dauka ibiltzerik etengabe «baina»ka. Bukatu egin behar du esaldia nola edo hala, egin nion errieta neure buruari. Buka dezadan esanez «Aspertuta nago, baina!». Aspertuta zergatik, baina? Batetik, «I» letraren nagusitasunagatik, pago erraldoiak nola, bere gerizpean eragiten duen elkortasunagatik. Han ezin da ezer hazi. Bestetik, beste arrazoi ilunago batengatik. Halako ozto-

* Ingelesezt, «I» lehen pertsona singularreko izenordain pertsonala da, euskarazko «ni»ren parekoa. (Itzul. oharra)

po edo eragozpen bat sumatu nuen A jaunaren gogoan, sortzeko kemena zapuztu eta muga estuen barruan zokoratzen zuena. Eta, Oxbridgeko bazkari hura gogora ekarriz, eta puru-errautsa eta Manxeko katua eta Tennyson eta Christina Rossetti denak nahasian, iruditu zitzaidan hantxe zegokeela oztopo nagusia. Alanek utzi dionez ahapeka kantatzeari: «Malko eder bat jausi da lurrera atarian den pasio-loretik», Phoebek hondartza zeharkatzean, eta Phoebek jada erantzuten ez dionez: «Txori kantari bat dut nik bihotza ihintzetan duelarik habia», hura gerturatzen zaionean, zer egin dezake Alanek? Eguna bezain zintzoa eta eguzkia bezain logikoa izanik, gauza bakarra egin dezake. Eta horixe egin du behin eta berriro (esan nuen orriak pasatuz), eta berriro eta berriro. Eta hori, gehitu nuen, jabeturik izugarria zela neure aitorpena, aspergarri samar gertatzen da. Shakespeareren zantarkeriak mila eta bat kontu erauzten ditu gogotik, eta ez du ezer aspergarritik. Shakespearek, baina, atsegin hartze aldera dihardu; A jauna, berriz, haurtzainek dioten moduan, berariaz ari da. Bere protesta adierazteko egiten du. Beste sexuaren berdintasunaren aurka ari da protestaka, bere nagusitasuna aldarrikatuz. Ezindua, kikildua eta herabe sentitzen da, beraz, eta berdin sentituko zen noski Shakespeare ere, baldin eta Clough andereñoa eta Davies andereñoa ezagutu balitu. Guztiz bestelakoa izango zen isabeldar literatura, inondik ere, baldin eta emakumeen mugimendua XVI. mendean hasi balitz, eta ez XIX. mendean.

Horrek guztiak esan nahi du, gogoaren bi aldeei buruzko teoria hori zuzena bada behintzat, gizontasuna bere existentziaz jabetu dela, eta gizonek gaur egun beren burmuineko alde maskulinoarekin bakarrik idazten dutela. Emakumeak oker dabilta liburu haiek irakurrita, han aurkituko ez duten zerbaiten bila ibiliko baitira han, ezinbestean. Iradokitze ahalmena da ba-

tek gehien sumatzen duen hutsunea, pentsatu nuen, B jaun kritikariaren liburua eskuan hartu eta arreta handiz irakurtzen nituelarik hark poemagintzari buruz idatzitakoak. Oso egokiak ziren haren hitzak, zorrotzak eta irakasenez beteak. Arazo bat zuten, ordea: B jauna ez zela gai sentipenak adierazteko, bazirudien hainbat gelatxotan banatua zuela gogoia, eta ez zela batere soinurik pasatzen batetik bestera. Hala, batek B jaunaren esaldi bat gogora dakarrenean, plaust doa esaldi hori hilda lurrera; batek Coleridgeren esaldi bat hartzen duenean, aldiz, lehertu, eta hor erditzen da era guztietako hainbat ideia berriz, eta idazkera mota horrixek buruz bakarrik esan dezake batek betiereko bizitzaren sekretua duela.

Horren arrazoa edozein dela ere, gaitzetsi beharreko gertakaria da. Esan nahi baitu —Galsworthy jaunaren eta Kipling jaunaren liburu-ilaretara iritsia nintzen— entzungor egiten zaiela bizirik dauden gure poeten lanik ederrenetako batzuei. Saia-tuta ere, emakume batek ez du betiereko bizitzaren iturririk aurkitzen han, nahiz eta kritikariek ziurtatu hantxe dagoela. Kontua ez da gizonen bertuteak goraiatzeko, gizonen baloreak inposatzen eta gizonen mundua deskribatzen dutela bakarrik; kontua da liburu horiei darian emozioa ulergaitza zaiela emakumei. Badator, ari da metatzen, berehala lehertuko zait buruan, hasten da bat esaten amaierara iritsi baino askoz lehenago. Koadro hori burura eroriko zaio Jolyon zaharrari, eta bertan hilko da sekulako ikara hartuta. Apaiz zaharrak hitz batzuk eskainiko dizkio haren hiletan, eta Tamesisko beltzarga guztiak kantatzen hasiko dira batera. Baina batek ospa egingo du hori gertatu aurretik, eta arakatzen artean ezkutatu da, gizonei txit sakon, sotil eta sinbolikoak iruditzen zaizkien emozioak txundidura baino ez baitiete eragiten emakumei. Eta berdin gertatzen da Kipling jaunaren ofizialekin, atzea ematen dutelarik; eta haren

Ereileekin, ereiten dutelarik; eta haren Gizonekin, beren lanaren aurrean bakarrik daudelarik; eta Banderarekin... Letra larri horiek guztiek lotsagorritu egiten dute bat, orgia soil-soilik maskulino batean kuxkuxean harrapatu balute bezala. Kontua da ez Galsworthy jaunak ez Kipling jaunak ez dutela emetasun zimikorik ere beren baitan. Horregatik, haien ezaugarri guztiak zarpailak eta heldugabeak iruditzen zaizkie emakumeei, zilegi bada kontua hala orokortzea. Ez dute iradokitzeko ahalmenik. Eta liburu bati ahalmen hori falta zaionean, gogor joagatik go-goaren azalean, ezinezkoa zaio han barneratzea.

Eta izenburuei begiratu ere gabe bat liburuak sartu-atera dabile-naren aldarte artega horretan, hantxe hasi nintzen imajinatzen gizontasun erabateko eta irmoko etorkizun bat, irakasleen eskutizetan (sir Walter Raleighnetan, esate baterako) begitantzen zaigun eta Italiako agintariak dagoeneko indarrean jarri dutenaren tankerakoa. Bat txundituta gelditzen baita Erromari darrion gizontasun erabatekoarekin; gizontasun erabateko horrek estatuan duen eragina edozein dela ere, aztertzekoa da gizontasun erabateko horrek zer-nolako eragina duen poemagintzan. Nolanahi ere, egunkariak diotenez, badabil Italian nolabaiteko kezka literaturarekiko. Akademikoek bilera bat egin dute berriki, «italiar eleberria garatzeko» helburuarekin. Gizon ospetsu batzuk —«ospetsuak jaiotzez, edo finantzetan eta industria-munduan edo udalbatza faxistetan dabiltzalako»— elkartu ziren gaia aztertzeko lehengo batean, eta telegrama bat bidali zioten Duceari, itxaropena adieraziz ezen «aro faxistak laster emango duela aro horrek merezi duen mailako poeta bat». Denok lot gakizkioke funtsik gabeko itxaropen horri, baina ez dirudi poesiarik sor daitekeenik inkubagailu batetik. Poesiak ama bat behar du, eta aita bat. Pentsatzekoa da poesia faxista abortu beldurgarri bat izango dela, hiri txiki bateko museoa

kristalezko poto batean ikusten direnen gisakoa. Diotenez, halako munstroak ez dira luzaroan bizitzen; ez da egundo ikusi halako miraririk soroan segan. Buru biko gorputzak ez du bizi-itxaropen luzerik.

Nolanahi ere, horren guztiaren errua, baldin eta errudunak bilatzen tematzen bada bat, ez da sexu batena gehiago bestearena baino. Limurtzaile eta erreformatzaile guztiek dute beren erantzukizun puska: lady Bessboroughkek, lord Granvilleri gezurra esategatik; Davies andereñoak, Greg jaunari egia esategatik. Sexuaren gaineko kontzientzia pizten lagundu duten guztiak dira errudun, eta haiexek bultzatzen naute, nire gaitasunak liburu batean hedatu nahi ditudanean, poz hori hantxe bilatzera, Davies andereñoa eta Clough andereñoa jaio aurreko garai zorionsuan, idazleek adimenaren alde biak berdin erabiltzen zituzten aro hartan. Batek Shakespearerengana itzuli behar du, beraz, hura androginoa baitzen, eta Keats, Sterne, Cowper, Lamb eta Coleridge ere berdin. Shelley sexugabea izango zen beharbada. Miltonek eta Ben Jonsonnek gizontasun pittin bat gehiegizkoa zuten. Baita Wordsworthek eta Tolstoik ere. Gure garaira etorrita, Proust zeharo androginoa zen, femeninoegia ere bai akaso. Akats hori hain bakana izanik, ordea, ez diogu aurpegiratuko, zeren, halako nahasketa apur baten faltan, adimena nagusitzen baita, eta go-goaren gainerako ahalmenak zurruntzen eta antzutzen baitira. Nolanahi ere, fase hau ere pasatuko dela pentsatuz kontsolatu nintzen; zaharkitua irudituko zaizue neure arrazoibidea zuen aurrean azaltzeko egin nizuen promesari jarraiki esan dudan gehiena; susmo txarrekoak irudituko zaizkizue, adin nagusira iritsi gabeak zaretan horiei, nire begietako distira eta garrak.

Guztiarekin ere, esan nuen *Emakumeak eta literatura* izenburuko orria idazmahaitik hartuta, hauxe da hemen idatziko nukeen lehenbiziko esaldia: zorigaiztokoa dela, idazten duen edonorentzat, bere sexuan pentsatzea. Zorigaiztokoa da gizon edo emakume huts eta soila izatea: emakume maskulinoa edo gizon femeninoa izan behar du batek. Zorigaiztokoa da emakume batentzat kexu edo arrangurarik txikiena ere aditzera ematea; edozein kausaren alde egitea, arrazoi izanda ere; alegia, emakume gisa jardutea ohartuki. «Zorigaiztoko» hori ez da inolako figura erretorikoa hemen, hiltzera kondenatuta baitago halako partzialtasunez ohartuki idatzita dagoen guztia. Ez da ernaltzen gehiago. Pare bat egunez egundokoa eta eraginkorra, indartsua eta sekulakoa irudituko bazaigu ere, zimeldu egingo da ilunabarra iristerako, eta ezingo da hazi beste inoren gogoan. Gure gogoak beharrezkoa du nolabaiteko lankidetzak emakume eta gizonen artean, sorkuntzaren artea gauzatu dadin. Beharrezkoa du aurkarien arteko nolabaiteko bategitea. Gure adimen osoak zabal-zabalik egon behar du, idazlea bere esperientzia erabat eta zeharo komunikatzen ari dela sentituko badugu. Askatasuna behar da, eta bakea. Gurpilek ezin dute kirrinka egin, ez argiek dir-dir. Gortinek itxita egon behar dute. Idazleak bere esperientzia amaitutakoan, pentsatu nuen, etzan, eta utzi egin behar dio gogoari bere ezteiak ospatzen ilunpean. Ez du begiratu edo galdetu behar zer ari den gertatzen. Horren ordez, arrosari petaloak kentzen jardun dezake, edo beltzargei begira, ibaian behera patxada betean doazela. Eta hortxe ikusi nituen berriro txalupa eta ikaslea eta hosto hilak ur-lasterrak eramanak; eta gizona eta emakumea hartu zituen taxiak, pentsatu nuen, kallea zeharkatu eta biak elkartzen ikustean, eta berekin eraman zituen ur-lasterrak, pentsatu nuen Londresko zirkulazioaren zalaparta entzuten nuela urrunean, ibai ikaragarri hartarantz.

Horrenbestez, bada, Mary Beton isildu egingo da. Azaldu dizue nola iritsi zen bere ondoriora, bere ondorio sinplera: alegia, urtean bostehun libera eta gela bat bere sarrailarekin behar dituela batek eleberriak edo poesia idaztekotan. Saiatu da agerian uzten ondorio horretara eraman zuten pentsamendu eta iritziak. Bere hegaldian jarraitzeko eskatu dizue hor abiatu delarik eskolazain baten besoetarantz; batean bazkaldu eta bestean afaldu duelarik, marrazkiak egiten aritu delarik British Museumean, edo apaletatik liburuak hartzen zein leihotik begira. Hala zebilela, zuek haren akats eta makaltasunak aztertzen aritu zarete, noski, eta erabakitzen huts horiek zer-nolako eragina zuten haren iritzietan. Hark esandakoak gezurtatzen jardun duzue, eta egoki iruditutuz zaizkizuenak gehitzen eta kentzen. Halaxe behar du, gainera, era honetako gai batean, mota askotako hutsak elkarren ondoan jarrita baino ez baita aurkitzen egia. Neure izenean bukatuko dut orain, eta aurrea hartuko diet bi kritikari, hain dira-eta agerikoak zuek noski egingo zenizkidatenak.

Ez duzu iritzirik eman, esan zeniezadakete, idazle gisa ere sexu batek eta besteak dituzten merezimendu erlatiboetarako buruz. Nahita jokatu dut horrela, halako balioespenak egiteko garaia babiliz ere —eta oraintxe bertan askoz garrantzitsuagoa da jakitea emakumeek zenbat diru zuten eta zenbat gela, haien ahalmenei buruz teorizatzea baino—, balioespen horiek egiteko garaia babiliz ere, ez baitzait iruditzen baten dohainak, intelektualak nahiz izaerari dagozkionak, azukrea eta gurina bezala pisatu daitezkeenik, ezta Cambridgen ere, nahiz eta han oso iaioak izan jendea sailkatzen eta buruan birretak jartzen, eta deituren ondotik inizialak. Niri ez zait iruditzen Whitakerren *Almanacean* jasotako Lehentasunen Taulak berak ere balioen hurrenkera erabatekoa eskaintzen duenik, edo arrazoi sendo izpirik ere dagoenik pentsatzeko Komunaren ordenako komendado-

reak Eromenaren maisuaren atzetik sartu behar duela jangelan. Sexu bata bestearekin eta gaitasun bata bestearekin lehian jartzeko kontu horiek, bat bestearen gaintik dagoela eta bestea bera baino gutxiago dela aldarrikatzen ibiltzeko kontu horiek, eskola pribatuaren faseari dagozkio giza existentziaren barruan. «Alderdiak» egon ohi dira fase horretan: beharrezkoa izaten da alderdi batek bestea mendean hartzea eta berebiziko garrantzia izaten du oholtza gainera igotzeak, garaikur txit apaingarri bat jasotzeko zuzendariaren eskutik. Adinean gora egin ahala, baina, jendeak utzi egiten dio alderdietan, zuzendarietan eta garaikur txit apaingarrietan sinesteari. Eta, liburuei dagokienez behintzat, gauza ezaguna da zeinen zaila den merezimendu-etiketak jartzen ibiltzea, eta etiketa horiek ez erortzea. Egungo literaturari buruzko kritikak ez al dira, bada, iritzia emateko zailtasunaren erakusgarri etengabea? «Liburu bikaina», «liburu ezin txarragoa», liburu berak bi kalifikazio horiek jaso ditzake. Ez gorespenez ez gaitzespenek ez dute ezer adierazten. Balioa neurtzen ibiltzea denbora-pasa xarmangarria izanagatik, zereginik alferrikakoena da, eta neurtzaileen epaiei men egitea, berriz, jarrerarik zuriena. Nahi duzun horixe idazten duzula da axola duena; eta idatzi duzunak mende luzez irauten duen ala ordu gutxi batzuk baino ez, hori ez dago jakiterik. Baina zure ikuskeraren ñabardura txikienari ere, ikuskera horren izpi bakar bati ere uko egitea, zilarrezko garaikur bat eskuan daukan zuzendari batenganako edo mahuka barrenean neurri-haga bat daraman irakasle batenganako begirunez, traiziorik zitalena litzateke; ondasunak eta kastitatea galtzea, garai batean batek jasan zezakeen hondamendirik handiena, huskeria bat litzateke horren aldean.

Bestalde, nago beharbada aurpegiratuko didazuela garrantzi handiegia eman diedala gauza materialei. Sinbolismoari tarte polit bat eskaini, eta onartuko bagenu urtean bostehun libera

izateak aukera ematen diola bati hausnarrean egoteko, eta ate bat sarraileaduna izateak, berriz, bere kasa pentsatzeko, hala eta guztiz ere, esan zenezakete halakoen gainetik egon beharko lukeela gogoak, eta izan dela gizon pobrerik poeta handien artean. Erantzun diezazuedan, bada, zeuen literatura-irakaslearen hitzak aipatuz, nik baino hobeto azaltzen baitu hark zer behar den poeta bat izateko. Honela dio sir Arthur Quillerrek¹:

Zein dira duela ehunen bat urtetik honako poeten artean gailentzen diren izenak? Coleridge, Wordsworth, Byron, Shelley, Landor, Keats, Tennyson, Browning, Arnold, Morris, Rossetti, Swinburne... Hortxe geldituko gara. Horietatik, Keats, Browning eta Rossetti ez beste guztiak unibertsitariak ziren, eta, Keats izan ezik —gazterik hila, adinaren lorean—, denak ziren dirudunak. Ankerra emango du hau esateak, eta tristea da esan beharra, baina argi dago, errealitate gordinari begiraturik, ezer gutxi duela egiatik harako teoria hark; alegia, talentu poetikoa gogoak ematen dion lekuan agertzen dela, hala pobreen nola aberatsen artean. Eta egia da, halaber, hamabi idazle horietatik bederlatzi unibertsitariak zirela; alegia, nola edo hala lortu zutela sarbide izatea Ingalaterrak eskain dezakeen heziketarik onenera. Era berean, gainerako hiruetatik, Browning diruduna zen, dakizuenez; eta, egingo nuke diruduna izan ez balitz ez zuela lortuko *Saul* edo *The Ring and The Book* idaztea, eta, era berean, Ruskinen aitak negoziotetan arrakastarik izan ez balu semeak ere ez zuela erdietsiko *Modern Painters* idaztea. Rossettik errentatxo pertsonal bat zuen, eta margolaria zen, gainera. Keats baino ez zaigu gelditzen: Atroposek hila

1. Sir Arthur Quiller-Couch, *The Art of Writing*.

adinaren lorean, John Clare eroetxe batean, eta Thomson, etsipena ezitzeko hartzen zuen laudanoarekin, hil zituen bezala. Gertakari ikaragarriak dira horiek guztiak, baina aurre egin beharko diegu. Argi dago —gure herriarentzat lotsaizun handia izanagatik—, ezen, gure gizarte-ongizateko sistemaren gabezia batzuen ondorioz, poeta pobreak ez duela gaur egun, aurreko berrehun urtean izan ez duen bezala, aukerarik txikiena ere. Sinetsiezadazue badiotsuet —hamarkada oso bat eman dut oinarrizko eskolak aztertzen, hirurehun eta hogeiren bat guztira— ezen, demokrazia gora demokrazia behera aritzen bagara ere, Ingalaterrako haur pobre batek ozta-ozta duela Atenasko esklabo baten semeak baino aukera handiagorik burujabe izateko, hots, literatura onaren sorburu den askatasun intelektual hori bereganatzeko.

Ez zegoen modu argiagoan azaltzerik egoera. «Poeta pobreak ez du gaur egun, aurreko berrehun urtean izan ez duen bezala, aukerarik txikiena ere [...] Ingalaterrako haur pobre batek ozta-ozta du Atenasko esklabo baten semeak baino aukera handiagorik burujabe izateko, hots, literatura onaren sorburu den askatasun intelektual hori bereganatzeko». Halaxe da. Askatasun intelektuala gauza materialen mende dago, eta poesia, berriz, askatasun intelektualaren mende. Eta emakumeak beti izan dira pobreak, ez berrehun urtean bakarrik, mundua mundu denetik baizik. Emakumeek askatasun intelektual murriztagoa izan dute Atenasko esklaboen semeek baino. Emakumeek, beraz, ez dute aukerarik txikiena ere izan poesia idazteko. Horregatik azpimarratzen dut hainbeste diruarena eta norberaren gelarena. Dena dela, iraganeko emakume ezezagun haien neke eta lanei esker —nahi nuke gehiago bageneki haiei buruz— eta,

harrigarria bada ere, bi gerrari esker —Krimeakoa, Florence Nightingaleri aukera eman baitzion egongelatik irteteko, eta Gerra Handia, 60 bat urte geroago atek zabaldu baitzizkien emakume arruntei—, oneratzeko bidean ditugu gaur egun gaitz horiek. Bestela, ez zinatekete gaur hemen, eta urtean bostehun libera irabazteko aukera, zoritxarrez murrizt samarra oraindik ere noski, ezin ñimiñoagoa litzateke zuentzat.

Guztiarekin ere, pentsa zenezakete garrantzi handiegia ematen diodala emakumeek liburuak idazteari, kontuan izanik ezen, azaldu dizuedanez, neke handiak ematen dituela horrek, eta beste zer batzuetara eramán gaitzakeela, hala nola, norberaren izebaren hilketara, bazkaritara ia beti berandu iristera eta ika-mika latzak izatera jende jator askoarekin. Aitortu beharra daukat arrazoi neurekoiak ditudala, hein batean. Ikasketarik gabeko emakume ingeles gehienei bezala, irakurtzea gustatzen zait, liburuak irakurtzea bata bestearen atzetik. Azken boladan, ordea, dieta monotono samarra daramat: kontakizun gehitxo oinarritzen da gerretan; biografia ere gehitxo gizon gailenengan; poesiak antzutasunerako joera hartua duela iruditzen zait, eta eleberriak... Nahikotxo erakutsi dizkizuet honezkero literatura modernoaren kritikari gisa ditudan mugak, eta ez dut besterik gehituko. Eskatuko nizueke era guztietako liburuak idazteko, inolako gairik baztertu gabe, hala axalekoak nola sakonak. Espero dut nola edo hala nahikoa diru lortuko duzuela bidaiatzeko eta egonean egoteko, gogoeta egiteko munduaren iraganari nahiz geroari buruz, irakurtzean amets egiteko eta alferkerian egoteko kale-kantoietan, eta zuen pentsamenduaren korde-lari uretan sakon murgiltzen uzteko. Ez zaituztet eleberrietara mugatu nahi, inondik ere. Poz handia emango lidake niri, eta ni bezalako milaka eta milaka emakumeri, era guztietako liburuak idatziko bazenituzte: bidaia-liburuak eta abenturazkoak; ikerke-

ta-liburuak eta erudiziokoak, historiak eta biografiak, kritikak, filosofia eta zientziako liburuak. Hori eginda, mesede handia egingo zenioke eleberrigintzari, elkarri eragiten diote-eta liburuak. Eleberria askoz hobea izango da parez pare jarduten duenean poesiarekin eta filosofiarekin. Gainera, iraganeko edozein pertsonaia hartuz gero —Safo, lady Murasaki edo Emily Brontë, esate baterako—, ikusiko duzue aldi berean zirela oinordeko eta aitzindari, eta emakumeek idazteko ohitura bereganatzeari esker sortuak direla haiek. Beraz, poesiarako sarrera gisa ere, guztiz aberasgarri litzaizuke ariketa hori.

Ohar hauek berrikusi eta hitzok idaztean nerabilen arrazoibidea aztertzen dudalarik, ikusten dut nire arrazoiak ez zirela guztiz neurekoiak. Burubide eta iruzkin hauetan, halako sinesmen bat sumatzen da —ala sena ote?—: liburu onak desiragarriak direla, eta idazle onek, era guztietako gizatzarkeriak erakutsiagatik, gizaki onak izaten jarraitzen dutela. Beraz, liburu gehiago idazteko eskatzen dizuedanean, zeuen onerako eta mundu guztiaren onerako zerbait egiteko ari natzaizue erregutzen. Nola justifika litekeen sen edo sinesmen hori, nik ez dakit, filosofiako terminoak nahasgarri gerta baitakizkioke unibertsitatean ikasi ez duenari. Zer esan nahi du «errealitate» terminoak? Zerbait oso aldakorra, oso fidagarritasun eskasekoa ematen du: berdin aurkitzen dugu errepede zikin batean zein kalean botatako egunkari-txatal batean zein eguzkitan dagoen nartziso batean. Gela batean bildutako jende-multzo bat argiztatu, eta hango esankizun axalekoak jasotzen ditu. Izarren azpian, etxerako bidean harrapatu bat, eta mundu isila erreala goa bihurtzen du hitzezko mundua baino; eta hara han berriro, Piccadillyko zurrunbiloaren erdian doan autobus batean. Beste batzuetan, berriz, nolakoak diren bereizteko urrunegi ageri zaizkigun formetan bizi dela ematen du. Nolanahi ere, ukitzen

duen oro, finkatu, eta behin betiko bilakatzen du. Horixe gelditzen da egunaren azala landare-hesira bazterrarazi denean, horixe gelditzen da iragan-denboretatik eta geure maitasun eta gorrotoetatik. Idazleak, haatik, gainerako jendeak baino aukera gehiago du, nire ustez, errealitate horren presentzian bizitzeko. Hari dagokio errealitate hori bilatzea, eta biltzea, eta guri guztioi jakitera ematea. Horixe ondorioztatzen dut nik, behintzat, *Lear*, *Emma* edota *La Recherche du Temps Perdu* irakurrita. Zeren, liburu horiek irakurtzearen poderioz, zentzumenak egokitu-edo egiten baitzaizkigu, nolabait esateko; batek biziago ikusten ditu gauzak horren ondotik, munduari estalkia kendu eta izate biziago bat eman baliote bezala. Bai inbidiagarriak irreal-tasunarekin etsaituta bizi direnak; bai errukarriak jakin gabe edo arduratu gabe egindako gauzek eraitsiak. Beraz, eskatzen dizuedanean dirua irabazteko eta gela bat izateko zeuentzat, errealitatearen presentzian bizitzeko eta bizimodu pizgarri eta ernagarri bat izateko ari natzaizue eskatzen, gero horren berri idazteko aukera izan zein ez.

Hementxe utziko nuke hitzaldia, baina, konbentzionalismoari men eginez, erretolika batekin bukatu beharko dut. Niri bezala, zuei ere irudituko zaizue, noski, zerbait bereziki sutsua eta goresgarria izan beharko lukeela emakumeei zuzendutako erretolika batek. Arren eta otoi eskatzen dizuet zuen erantzukizunak gogoan hartzeko, eta jasoagoak eta espiritualagoak izateko; ez ahaztu gauza asko eta asko daudela zuen mende eta eragin handia izan dezakezuela etorkizunaren gainean. Aholku eta erre-gu hauek guztiak, baina, lasai utz diezazkiokegu beste sexuari, hark ederki adieraziko baititu, eta adierazi baititu dagoeneko; nik sekula izango dudan baino askoz etorri handiagoz, gainera. Neure gogoan miaka aritzen naizenean, ez dut aurkitzen sentipen noblerik kideko eta berdinak izateari buruz eta mundua jo-

muga jasoago batzuetarantz bultzatzeari buruz. Halakoetan, laburki eta arrunki esan ohi dut norbera izatea dela garrantzitsuen. Ez zaitezte saia beste pertsona batzuegan eragina izaten, esango nizueke, neure hitzei doinu sutua ematen baneki. Gauzei egiezue kontu, diren-direnean.

Egunkari, eleberri eta biografiei begiratu bat ematean berriro datorkit gogora nola, emakumeei zuzentzen zaienean, emakume batek beti botatzen dien zakarkeriaren bat. Emakumeak gogorak dira beste emakumeekin. Emakumeek ez dituzte emakumeak gogoko. Emakumeak... honezkero aspertuta egongo zarete hitz horrekin, ezta? Ni bai, behintzat. Ados egongo gara, beraz, emakume batek beste emakume batzuen aurrean emandako hitzaldi batek zerbait bereziki desatseginarekin bukatu behar duela.

Nola egiten da, ordea, hori? Zer bururatuko ote zait? Egia esan, gogoko izaten ditut askotan emakumeak. Gogoko dut ez izatea konbentzionalak. Gogoko dut haien betetasuna. Gogoko dut haien anonimotasuna. Gogoko dut... Tira, hobe dut bide horretatik ez jarraitzea. Horko armairu hori... ahozapi garbiak besterik ez daukala diozue, baina sir Archibald Bodkin balego haien artean ezkutatuta, zer? Tira, serioago mintzatuko naiz orain. Gai izan al naiz, orain arteko hitzekin, zuek behar beste ohartarazteko gizonen aldetik jasoko dituzuen aholku eta irainez? Azaldu dizuet Oscar Browning jaunak zer iritzi apala agertu duen zuei buruz. Aipatu dizuet zer pentsatzen zuen zuei buruz Napoleonek, eta zer pentsatzen duen Mussolinik. Bestalde, zuetakoren batek literaturan aritzeko asmorik balu ere, txukun-txukun kopiatu dizuet kritikoak ematen dizuen aholkua, zeuen sexuaren mugak adoretzu onartzeari buruz. Aipatu dizuet X irakaslea, eta hark emakumeei buruz esandakoak bereziki: emakumeak

intelektualki, moralki eta fisikoki gutxiago direla gizonak baino. Bilatu gabe esku artera iritsi zaidan guztia eskaini dizuet, eta, bukatzeko, hona hemen, azken ohartxo bat, John Langdon Davies jaunaren ahotik². John Langdon Davies jaunak emakumeak ohartarazi zituen ezen «haurrek uzten diotelarik guztiz desiragarri izateari, emakumeek uzten diote guztiz beharrezko izateari». Espero dut zuek ondo gogoan hartzea hitzok.

Zer gehiago egin dezaket zuek animatzeko bizitzako zereginiei heltzera? Neskatzak, esango nizueke —eta, adi-adi entzun, faborez, oraintxe hasten baita nire erretolika—, lotsagarria iruditzen zait zuen ezjakintasuna. Ez duzue inoiz aurkikuntza garrantzitsurik egin. Ez duzue inoiz inperiorik astindu, ez armadarik gidatu gudu-zelaira. Shakespeareren antzezlanak ez dira zuek idatziak, eta ez dizkiozue inongo jendakiri eraman zibilizazioaren dohainak. Zer aitzakia duzue? Esatea daukazue, noski, mundu zabaleko kale, plaza eta basoak seinalatuz, hortxe beren milioika biztanle beltz, txuri eta kafe-kolorekoekin, guztiak ere beren zereginetan murgilduta, joan-etorrian, negoziotan, maitte-kontuetan: beste zeregin batzuk genituen esku artean. Gure jardunik gabe, inork ez zituen itsaso horiek zeharkatuko, eta lur emankor horiek basamortu lirateke. Guk ekarri ditugu mundura eta hazi, garbitu eta hezi, sei-zazpi urteak bete arte, estatistiken arabera oraintxe bertan munduan dauden mila seiehun eta hogeita hiru milioi gizakiak, eta, gutako batzuek laguntza izan dugula onartuta ere, bere denbora behar du horrek.

Diozuen hori egia da, ez dut nik ukatuko. Baina, aldi berean, zilegi bekit gogoraraztea baditugula Ingalaterran emakumeentzako bi kolegio gutxienez, 1866. urteaz geroztik; eta,

2. John Langdon Davies, *A Short History of Women*.

1880tik aurrera emakume ezkonduak beren jabetzak izateko eskubidea dutela legez; eta 1919an, duela bederatzirte dagoeneko, boto-eskubidea eman zigutela. Eta zilegi bekit gogoraraztea, halaber, badirela hamar bat urte lanbide gehienetan onartzen dituztela emakumeak. Pribilegio itzel horietan pentsatzen jarrita, eta kontuan izanik noiztik ditugun, bai eta badirela oraintxe bertan bi mila emakume inguru urtean bostehun libera irabazteko modua dutenak, onartu beharko didazue balio guztia galdu duela aukera, trebakuntza, adore, denbora eta diru faltaren aitzakiak. Gainera, ekonomialariak hortxe ari zaizkigu esaten Seton andreak haur gehiegi izan dituela. Haurrak izaten jarraitu behar duzue, noski, baina, dioten moduan, bizpahiru, eta ez hamar edo hamabi.

Hala, esku artean denbora pixka bat eta garunean liburuetakoa irakaspén batzuk dituzuela —bestelakoetatik, izan duzue nahikoa, eta, gainera, beldur naiz ez ote zaituzteten unibertsitate-ra bidaltzen, hein batean behintzat, ezjakinak izateko—, beste etapa bati ekin behar zeniokete orain zeuen bizibide ezin luzeago, ezin neketsuago eta guztiz ilunean. Mila idazluma prest daude azaltzeko zer egin behar zenuketén eta zer eragin izango duzuen. Neure proposamen hau bitxi samarra da, ados; nahia-go dut, beraz, fikzio moduan aurkeztu.

Esan dizuet hitzaldi honetan zehar Shakespearek arreba bat zuela, baina ez ezazue bila haren izena sir Sidney Leek poetari buruz idatzitako biografian. Gazterik hil zen gure neska, hitz bat bera ere idatzi gabe zoritxarrez. Gaur egun autobus-geltoki bat dagoen lekuan lurperatuta dago, Elephant and Castle parean. Hala ere, ni sinetsita nago hitz bakar bat ere idatzi ez zuen eta bidegurutze batean lurperatuta datzan poeta hura bizirik dagoela. Bizirik dago zuongan eta nigan, eta, harrikoa egiten

edo haurrak oheratzen ari direlako gaur hemen gurekin iza-
terik ez duten beste emakume askorengan. Bizirik dago, bai;
poeta handiak ez baitira hiltzen: presentzia betierekoak dira,
eta aukera egokia besterik ez dute behar gure artera itzultzeko
hezur eta mami. Eta esango nuke aurki egongo zaretela gure
poetari aukera hori eskaintzeko moduan. Irudipena baitaukat,
ezen, beste ehun urtean bizi bagara —bizitza kolektiboaz ari
naiz, hori baita bizitza erreala, ez gizabanako gisa bizi ditugun
bizitza bereizi txikiez—, eta gutako bakoitzak bostehun libera
baldin baditu eta gela bat beretzat; askatasunera ohitzen bagara
eta ausardia biltzen badugu pentsatzen dugun horixe idazteko;
etxeko egongelatik pixka bat atera, eta hasten bagara gizakiak
ikusten, ez elkarrekin duten erlazioaren arabera ezinbestean,
errealitatearekin duten erlazioaren arabera baizik; eta berdin
zerua, eta zuhaitzak edo dena delakoa, diren-direnean ikus-
ten baditugu; eta muzin egiten badiogu Miltonen mamuari,
ez litzaiokeelako inori ikuspegia galarazi behar; onartzen ba-
dugu ez dugula zeri heldurik, eta bakarrik gaudela, eta errea-
litatearen munduarekin dugula erlazioa, eta ez soilik gizonen
eta emakumeen munduarekin; orduan aukera hori iritsiko zai-
gu, eta Shakespeareren arreba zen poeta hilak berriro jantziko
du behin eta berriro erantzi behar izan duen gorputza. Bere
aitzindari ezezagunenetatik xurgatuz bere bizia, haren nebak
lehenago egin zuen bezala, mundura jaioko da. Gu prestatuta
ez bagaude, guk eginahalak egiten ez baditugu eta erabakita ez
bagaude, berriro jaiotzean gure poetak bizitza bizi eta poesia
idatzi ahal izan dezan, ezin esperoko dugu halakorik, ezinezkoa
litzateke eta. Ni sinetsita nago, ordea, etorriko litzatekeela gure
artera, guk haren alde jardunez gero, eta merezi duela jardutea,
pobrezian eta iluntasunean bada ere, hori lortzeko.

AMAIERA

Virginia Woolfen *Gela bat norberarena* saiakerak emakumeak eta haien genero-rolak hartzen ditu aztergai, idazle eta fikzioko pertsonaiak diren aldetik. Tradizio patriarkalaren barruan landutako emakumeen idazkuntzaz diharduen saiakera hau 1929an argitaratu zen, eta manifestu feminista inspiratzailea bihurtu zen berehala. “Literatura egingo badu, emakume batek dirua behar du, eta gela bat beretzat”. Hizkuntza asko eta askotara itzulitako funtsezko lan hau ez genuen euskaraz, eta consoñnik *Gela bat norberarenaren* argitalpen berezia dakarkigu, liburu moldeko proiektu berri honetan. **Maria Colera Intxaustik** itzuli du testua, **Maite Zabaletak** prestatu du diseinua eta **Adelina Moyak** eta **Remedios Zafrak** idatzi dituzte hitzaurreak, guztia ere **Kajsa Dahlberg** artistaren interbentzio batez lagunduta. consoñni arte-ekoizleak bulego bat ireki berri du Bilboko kaleetan eta horri jarraiki bultzatu du ekimen hau, emakumeok lan egiteko, hausnartzeko eta sortzeko behar dugun espazio publiko nahiz pribatuaren aldarrikapen gisa.